



Bilbon egindako manifestazioaren amaiera ekitaldia, atzo. MARISOL RAMIREZ / FOKU

## Bizitzari keinuka, eta begirada greban jarrita

Indarkeria matxistaren kontra, bizitza aldarrikatu dute protestetan bildutakoek. Osteguneko grebarako deia lotu zaio aldarrikapen horri

HARIAN | 2-6

## NASAN

GEHIGARRIA



**IBON ARANBERRI.** «USTE DUT ERRADIKALTASUN BAT GALDU DELA IRISGARRITASUNAREN ALDE»  
**BERTSOLARITZA.** IBARZABALEK IRABAZI DU AZKEN FINALAURREKOA

**EAJ**  
EBBk Imanol Pradales bizkaitarra proposatu du lehendakarigai gisa

**Palestina**  
Su etena luzatzeko «aukera errealak» ikusten dituzte Egiptok eta AEBek

**JON CASENAVE**  
«Euskal Ikasketetan katebegi gisa ikusten dut ene burua»





# Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak aldarrikatu dituzte milaka lagunek kalean

- Euskal Herriko Mugimendu Feministak kaleak bete ditu bortxa matxistaren aurkako mezuekin.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren ertz guztiak amaitzeko eskatu dute, osteguneko greba orokorrean arreta jarrita.

**Aitor Biain**  
**Olatz Enzunza Mallona**

Indarkeria matxistaren aurkako aldarriak ozen entzun ziren atzo, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean. Euskal Herriko Mugimendu Feministak kaleak hartzeko deia egin zuen *Indarkeriarik gabeko bizitzak! Bizirik, libre eta antolatuta* lelopean, eta jende andana bildu zen hiriburu guztietako protestetara. Horietan guztietan, azaroaren 30eko greba feminista orokorra izan zuten hizpide, eta, egun horretan, lanuzteetan eta mobilizazioetan parte hartzeko deia ere egin zuten.

«Gora borroka feminista», «Kaleak, gauak, gureak dira», «Erasorik ez, erantzunik gabe» eta antzeko aldarrien artean egin zuten Bilboko manifestazioa. Jesusen Bihotzaren plazatik atera ziren manifestariak, eta udaletxe aurrean amaitu zuten protestaldia. Manifestua irakurri aurretik, Hiba Kamal Abu Nada poeta palestinarrek idatzitako azken olerkia irakurri zuen euskaraz Miren Gaztañaga aktoreak, eta, haren ondotik, Palestinako emakumeei egin zieten aitortza mugimendu feministako kideek: «Feministok beti defendatu izan dugu bizitza, haien memoria eta etorkizuna, eta herrien subiranotasunaren eta justiziaren alde borrokatzeko duten eskubidea ere defendatzen ditugu. Emakume palestinarrek, zuekin gaude».

Bide beretik, gogorarazi zuten emakumeen kontrako indarkeria ez dela kasualitatea. Izan ere,

«ezinbesteko» tresna da sistema «kapitalista, heteropatriarkal eta arrazistari» eusteko. «Baina indartsuak gara, asko gara eta antolatuta gaude», gaineratu zuten. Era berean, azpimarratu zuten «era askotara eta espazio askotan» erasotzen zaiela emakumei: «Umore lesbofobia eginez, eguneroko mikromatxismoetan, bikote harremanetan, komunikabideetan, osasunean, hezkuntzan, politikan...».

Bereziki, emakume migratu eta arrazializatuen egoera nabarmendu nahi izan zuten elkarretartzearen bitartez: «Egoera bereziki ahulean gaude, gure oinarritzko eskubideak urratzen zaizkigulako. Gutako asko zaintzaren eta etxearen eremuko langileak gara, eta indarkeria arrazista, sexuala eta koloniala jasaten dugu». La Cora Feminista abesbatzaren kantuekin amaitu zuten ekitaldia, oihu eta txistu artean; *Lau teilatu* abestiaren bertsio bat abestu zuten, besteak beste.

Iruñean ere arratsaldean egin zuten manifestazioa, Gazteluko plazatik abiatuta. Indarkeriak «aurpegi ugari» dituela gogoratu zuten mobilizazio amaieran irakurritako mezuan: «Emakumeok egunero pairatzen dugu indarkeria matxista, bai espazio pribatuan, bai publikoan: lanean, kalean, eskolan, kuadrillan...». Eta gizonei ere mintzatu zitzaizkien: «Utzi konplizeak izateari. Amaitu erasoak». Izan ere, gogoratu zuten askotan «hurbilekoak» izaten direla erasotzaileak: «Erasotzailea nire anaia, aita edo nire kuadrillako bat izan daiteke. Gure ingu-



## 1 | **BILBO**

Palestinaren kontrako eraso gogoan izan zuten atzoko mobilizazio guztietan. MARISOL RAMIREZ / FOKU

## 2 | **DONOSTIA**

Osteguneko greba orokorra antolatu dutela gogorarazi zuten Donostian. GORKA RUBIO / FOKU

## 3 | **BAIONA**

Manifestazioaren osteko hitzaldia, Baionan. PATXI BELTZAIZ

## 4 | **IRUÑEA**

Adin ezberdinetako emakumeek parte hartu zuten mobilizazioetan. JAGOBA MANTEROLA / FOKU



rukoek egiten dute, eta hori oso zaila da aitortzea eta are gehiago salatzea».

Sarritan, mugimendu feministaren adierazpenei «entzungor» egiten dietela salatu zuten, eta erakundeei exijitu zieten «dagoen erantzukizuna» hartzeko, eta indarkeriaren aurkako neurriak lehenesteko. «Gaia agenda politikoaren lehentasuna izan behar da», azpimarratu zuten.

Baionan, berriz, Askatasuna plazatik abiatu zen indarkeria matxista salatzekeo protesta. «Emazte, haur eta genero minorizatuek jasaten dituzten bortizkeriei aurre egiteko politika publikoen ekintza eskasa» salatu zuten manifestaldiaren bitartez, eta neurriak hartzeko exijitu dute.

### «Zuriketa morea»

Gasteizko mobilizazioaren amaierako mezuan ere gogora ekarri zuten bortxaren aldaera gehiago ere badaudela, datuetan islatzen ez diren arren. «Ez al da indarkeria matxista emakume migratuen prekarizazioa? Trans eta sexu genero disidenteen eskubideen urraketa sistematikoa? Etxeko langileen esklabotza? Emakume ijitoen kontrako zapalkuntza his-

torikoa?», itaundu zuten antolatzailleek. Eta adierazi zuten indarkeria horiek guztiak amaitzeko garaia dela: «Aski da! Zuengatik, guregatik eta etorriko direnengatik borrokan jarraituko dugu indarkeriei aurre egiteko!».

Hain zuzen ere, Gasteizko Mugimendu Feministako kideek ez ezik, pentsiodunek, etxeko langileek, desgaitasuna duten pertsonak, gerraren aurkako eta Zaballako espetxekeo emakume presoek ere hitza hartu zuten protestaren amaieran. Bereziki gogoan izan zituzten Gazan hildako emakumeak eta haurrak. Eta Israelen «genozidioaren eta feminizidioaren konplize» izatea leporatu zieten Eusko Jaurlaritzari, CAF enpresa Jerusalemengatik egin den «legez kanpoko proiektuak» diru publikoarekin babesteagatik. San Anton plazan hasi zuten manifestazioa, eguerdi partean, eta Frantzia eta Bake kaleak osorik zeharkatu ostean, Florida parkerainoko bidea egin zuten protestan. Bidean, amorrui oiha ozen entzun ziren, «Erasorik ez!», «Gora borroka feminista», «Bat ukitzen badute, guztiok ukitzen gaituzte!», eta «Sinisten dizugu!» bezalako aldarriekin.





## Elkarretaratze isilak eta gaitzespen mezuak

● Euskal Herriko erakunde publikoek protesta isilak egin zituzten atzo goizean, indarkeria matxistaren aurka-ko egunaren harira. Araban, esaterako, diputazioaren aurrean egin zuten elkarretaratzea. Bertan izan ziren aldundiko eta Vox ez beste talde politiko guztietako ordezkariak.

Nafarroako Gobernuak ere elkarretaratzea egin zuen Nafarroako Jauregiaren aurrean. Maria Txibite lehendakariak gaitzetsi zuen indarkeria matxista «gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren adierazpenik gogorrena» dela, eta nabarmendu zuen horri aurre egitea bera buru duen gobernuaren helburuetako bat dela.

Donostian ere jendetza batuzen mugimendu feministak antolatutako manifestazioan, batukadaren erritmoan. Oraingo honetan, erakundeek aldarri feministekin egiten duten «zuriketa morea» salatu zuten antolatzaileek, protestaren amaieran irakurritako oharrean. «Nazkatuta gaude gure diskurtsoaz jabetu eta hitz politekin apaintzeaz, azaleko proposamenak egiteaz eta ezertarako balio ez duten argazki instituzionalak ateratzeaz», gaitzetsi zuten.

Bulebarretik abiatu zen mobilizazioan adineko emakumeen «errealitate ikusezina» ere salatu zuten. Izan ere, adierazi zuten emakume horiek adinekoak izateagatik jasaten dutela indarkeria, eta maiz indarkeria horren «izaera matxista» ez dela onartzen edo ezkutatu egiten dela. «Adineko gizonen indarkeriazko portaerak ez dira agerian uzten», azpimarratu zuten.

### Grebarako deia

Mobilizazio guztietan gogoan izan zituzten 2003tik Euskal Herrian indarkeria matxistagatik hildako 118 emakumeak, eta, bereziki, aurtun zendutako lau emaku-

meak eta adingabe bat: Lourdes del Hoyo, Maialen Mazon, Maria Begoña, Zhen Jiang eta joan den azaroaren 7an Urbasan bere aitak hildako 7 urteko Mateo, hain zuzen ere. Babesa adierazi zieten emakumeen eta haurren senide eta lagun guztiei, eta gogoratu zuten gertakari «latz» horiek indarkeria matxistaren «muturreko ondorio» direla: «Nahikoa da! Nazkatuta gaude».

Bestalde, azaroaren 30eko greba feminista orokorra gogoratzeko ere baliatu zuten atzoko eguna: lau egun baino ez dira falta zaintza sistema publiko komunitarioa aldarrikatuko duen grebarako. Gaur egun, zaintza, «indarkeriaren ardatza» dela salatu zuten atzo, besteak beste: «Prekaritatea, lan baldintza zitalak, emakumeok egiten dugun zaintzari baliorik ez ematea, pentsio txikiak... hori ere bada indarkeria». Zaintzarako eskubide kolektiboaren alde egin behar dela gaineratu zuten, eta hilaren 30ean kaleak hartzeko deia egin zuten lurralde guztietan. Era berean, erantsi zuten «aliantzak» eraikitzea eta «autodefentsa feministaz» baliatzea izango direla «tresnarik eraginkorrenak».









bat, zure haurren zaintzaz arduratzeko. Halako egoerek ezinegon handia eragiten digute, baina gehiago kostatzen zaigu hori ikustea, izu sexualaren iruditeria hor dugulako. Eta, gainera, oso mugako egoeretan irudikatzen dugu geure burua: gauez, kale ilun batean, ezezagun batekin... Bortxaketaren kulturak egoera konplikatu horietan kokatzen gaitu emakumeak, zeintzuetan ustez oso zaila baiten norbere burua defendatzea. Kontakizun kulturean esamolde pila batek andreen gain jartzen dute indarkeriaren kontrola: «Zergatik ez da etxetik joaten?», edo «kontuz ibili». Eta ea: nik mugak jar ditzaket, baina bortizkeriaren gaineko kontrola hura egiten edo betikotzen duenak dauka. Zergatik da garrantzitsua maitasun erromantikoaz hitz egitea autodefentsarekin lotuta? Garrantzitsua da maitasunaz hitz egitea, eta afektuez orokorrean. Izan ere, emakumeak bidegurutze afektibo batean jartzen gaitu patriarkatuak: hezi gaituzte beskeen ongizate emozionalaz arduratzeko, eta sinetsarazi digute derrigorrez izan behar dugula lotura afektibo bat mundu guztiarekin. Eta horrek arazo asko

eragiten dizkigu harremanetan, arlo guztietan, mundu guztiak maita gaitzala nahi dugulako eta hori ezinezkoa delako, edo asko kostatzen zaigulako erlaziotan mugak jartzea. Esan ohi da berdintasun gehiago lortu ahala indarkeria gutxiago izango dela, baina hori auzitan jarri duzu. Indarkeria desberdintasunaren adierazpen bat da, baina baita patriarkatuaren erreakzio bat ere, eta horregatik esaten da emakumeen aurkako indarkeria gordindu dela: bortxa ez da inoiz desagertu, genero harremanak eta botere abusua iraunarazteko sistemak duen bermea delako; eta orain, gainera, bada erreakzio patriarkal bat berdintasunaren arloko aurrerapausoen aurka. Ukaezina baita berdintasunean aurrera egin dela: ni ez naiz bizi nire amonaren gizarte berean, aukera gehiago dauzkat, baina horrek ez du esan nahi nire bizitzan indarkeriarik ez denik. Arazoa ez da emakumeok zer egiten dugun, baizik eta ordena soziala oraindik oso patriarkala dela, nahiz eta berdintasunaren ilusioz mozortzen den. Ildo horretan, arazo bat dugu: uste dugu berdintasunean hezten ari garela, eta uste dugu



«Gizonei kostatzen zaie posizionatzea, hala uko egin diezaioketelako erantzukizunak bere gain hartzeari»

«Indarkeria desagerrarazteko, desexualizatu behar da: bortxaketa bat ez da sexu harreman bat»

berdintasunean hezte delako eredu androzentrikoari jarraitzea, hau da, mutili eta neskei mezu berdina ematea eta maskulinitateari lotutako balioak hobestea: indarra, adorea... Ez du hala behar? Neskei eta mutili erreminta diferenteak eman behar dizkiegu, errealitatea desberdina delako batzuentzat eta besteentzat. Mutilek beren parekoak auzitan jarri behar dituzte, haien zentzuzkoak izan arren, zeren desberdintasuna mingarria baita. Mutilekin aritzen garenean, sarri min egiten digu haien minak, neurritz gain ahaldunduta egon arren, baina ez digu hainbeste min eragiten nesken desboteretzeak. Gizonei zergatik kostatzen zaie hainbeste indarkeriari eta beste gizonei aurre egitea? Bizitzako lehen urteetan identitate soziala osatzen dutenean, *fatria* eraikitzen dute; eskoletako jolastokietan eta plazetan ikusten dugu: mutilek espazio zentrala hartzen dute; aldiz, emakumeak periferietan sozializatzen gara, eta gero asko kostatzen zaigu espazio zentrala hartzea. Beraz, lehenik, gizonek beren burua aztertu behar dute, oharretan indarkeria hau ez dela besteena,

baizik eta euren sozializazioaren eta pribilegioen parte. Zeren nola da posible gizonek esatea ez dutela genero gatazkarik ikusten, gure bizitzetako alor guztietan badago? Eta zaila da, noski, feminista gisa posizionatzea edo genero disidentea izatea; emakumeentzat ere hala da. Baina gizonei kostatzen zaie posizionatzea, hala uko egin diezaioketelako erantzukizunak bere gain hartzeari.

Azken urteetan asko hitz egin da taldeko bortxaketaz. Zeren adierazle dira?

Rita Segatok krudeltasunaren pedagogiaz hitz egiten du: emakume bati min eginez gozatzea. Eta berriro goaz hezkuntzara. Ume eta nerabe gehienek sexualitateari buruzko hitzaldi bat jasotzen dute, nahi gabeko haurdunaldiak saihestera oso enfokatuta, baina sexu heziketarekin lotura handirik ez duena. Beraz, desinformazio patriarkal handia dago sexualitatearen inguruan. Eta gazteek gehien deskargatutako bideoa taldeko bortxaketa batena bada, zeren bidez ari dira sexualitateaz ikasten? Indarkeria desagerrarazteko, ezinbestekoa da indarkeria desexualizatzea: bortxaketa bat ez da sexu harreman bat. Eta tresnak eman behar zaizkie: mutili argi azaldu emakumeen aurkako indarkeria ageri den bideo bat iritsi ahal zaiola, agian bere lagun onenak bidalita, hori ez dela sexualitatea baizik bortxa, eta geldiarazi egin behar duela, eta adierazi halakoak ezin direla onartu, andreen aurka bortxa erabiltzen dutelako. Nola da posible bortxaketa baten bideoa telefono batetik bestera zabaltea? Horrek adierazten du normalizatu egin dutela bortizkeria, grazia edo plazera emateraino. **Liburuaren azpititulua da *Ezetz esaten ikasteaz harago, eta ez zara ari soilik indarkeria egogere; besteak beste, zaintzeko derrigortasuna aipatu duzu.*** Emakume pila batek beste pertsona askoren biziak sostengatzen dituzte, baina asko kostatzen zaie beren burua zaintzea, presio handia dutelako; ez dago erantzukidetasun sozial, instituzional eta laboralik, eta, beraz, oso zaila da norbere burua lehenestea, zeurekoi izatea aurpegiaratu badizute. Denbora desjabetze bat dago hor: andreak ez dute denbora propiorik. Beraz, zaintzaren alorra erabat aldatu behar da; greba feminista orokorrerako deialdiak argi dioenez, zaintzarik gabe ez dago bizitzarik. Baina zaintzak zaugarritasun edo mendekotasun garaiez harago ere ulertu behar ditugu; lanera joateko, elikatze, denerako dira beharrezkoak. Beraz, denon ardura da



# 118 emakume gutxiago

Bi hilabetez behin emakume bat hiltzen dute Euskal Herrian, batez beste. 2003tik, 118 emakume hil dituzte gizonak, eta hamabi ume ere bai.



**DONOSTIA.** Batukadak ireki zion bidea atzo Donostian egindako manifestazioari. GORKA RUBIO / FOKU



## %37,5

**SUIZIDATUAK.** Hamar hiltzailetatik lauk (%37,5) beren buruaz beste egin zuten, edo horretan ahalegindu ziren, edo beren buruak zauritu zituzten. 111 hiltzaileetatik 42 izan ziren, eta horietatik 31 hil egin ziren. Hamar hiltzailetik bi baino gehiago (%24) ihesi joan ziren, baina polizia atxiki zituzten azkenean. Hamarretik beste lauk beren buruak entregatu zizkieten polizia.

## %35

**AURREKARIAK.** Eraildako andreen heren batek-edo jarriak zituzten hilko zituzten gizonen kontrako salaketak, edo noizbait salatu zituzten, edo haien inguruko jendeak bazekien emakume horiek tratatu txarra jasotzen zutela. Beste bi herenei buruz, ordea, ez zegoen halakoen zantzurik.

**Mikel P. Ansa**

Indarkeria matxistak 118 emakume eta 12 ume hil ditu 2003ko urtarrilaren 1etik orain arte. Etenik ez duen bortxa da: batez beste, 65 egunean behin hiltzen du gizon batek emakume bat Euskal Herrian. Eta instituzio publikoak 2003an baino lehenago hasi balira hilketen estatistikak egiten, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko pertzeptzioa beste bat izango zen: sistematikoa da.

Duela hogeitau urte sortu zen BERRIA, eta orduan hasi ziren erakunde publikoak emakumeen hilketak zenbatzen. Urteroko zenbaketa bat zen hasieran, urtarrilaren lehen kontagailua hutsean jartzen zena. Horrek arazoaren dimentsioa ezkututzen zuela ohartuta, datuak biltzen hasi zen egunkari hau, eta *Hilketa matxisten mapa* aurkeztu zuen 2018an. Harrezkero, hilketa bakoitza erregistratzen du egunkari honek. Hogeitau urteotan gertatu diren hilketa guztiak ikus litezke mapa horretan, eta estatistika batzuk ere ematen ditu. Kasu bakoitzaren informazioa ere bai.

Datu bilketa horri esker ikusi ahal izan da Lapurdin ezohiko hil-

keta kopurua gertatu dela hogeitau urteotan: 23 emakume hil dituzte herrialde horretan bakarrik. Nafarroan ere 22 andre hil dituzte epe berean, baina Lapurdirko biztanleriaren doblea baino gehiago du herrialde horrek. Aldea sumatze-ko, tasak konparatu behar dira: Lapurdin, 10.000 emakumetik 1,8 hil dituzte gizonak urteotan; Nafarroan, 10.000tik 0,6. Hiru aldiz gehiago. Araban, berriz, 10.000 emakumeko 0,9 hil dituzte; eta Bizkaian, 0,6.

Gipuzkoako estatistika deigarria da, hilketa matxista gutxien dituen herrialdea delako; 10.000 emakumetik 0,3 hil dituzte han, 2003az geroztik. Nafarroa Behereko biztanleriaren kopuru txikiak ez du fidagarri egiten tasa hori, eta Zuberoan ez da hilketa matxistarik izan epe horretan.

**Bilbon adina Baiona aldean** Hiriburuei erreparatzeak ere mezezi du: Bilbon hamalau emakume hil dituzte, baina Baiona-Angelu-Miarritze hirigunean ia beste horrenbeste: hamabi; eta Gasteizen, hamar; Iruñean, berriz, sei. Aldiz, Donostian ez du emakumerik hil indarkeria matxistak. Bizkaiko Ez-

kerraldeko datua ere esanguratsua da: hamasei emakume hil dituzte hogeitau urteotan, horietatik zazpi Barakaldon.

Adinak ez du libratzen inor. Adingabeak, gazteak, helduak, zaharrak: denetarik dago biktimen artean. Baina emakume gehiago hil dituzte adin talde batzuetan: lautik batek 30 eta 39 urte artean zituen. Orobat, hildakoen %62k 50 urte baino gutxiago zuten, eta, beraz, esan liteke indarkeria matxistaren biktimen artean emakume gazteak zein adin ertainekoak direla gehienak. Baina ezin da bistatik galdu %18 inguruk 70 urtetik gora zutela hil zituztenean, eta, azken buruan, hamarretik lauk 50 urte baino gehiago zutela. Hortaz, indarkeria matxistak ez du bereizketarik egiten adinaren arabera.

Emakume zahar horien artetik gehienak beren semeek hil zituzten. Ez dira kasu bakanak, eta, justiziak indarkeria matxistat hartzen ez baditu ere, BERRIAk hilketa matxistat zenbatzen ditu, emakumeen kontrako indarkeria kasu horien atzean osagai patriarkalak ere badaudelako. BERRIAren datuen arabera, gutxienez hamar bat emakume hil dituzte, azken ho-

gei urteotan, semeek edo ilobek. Ez haiek bakarrik, senarrek eta bikotekideek ere hiltzen dituzte emakumeak.

Biktimen zein hiltzaileen jatorriari buruz ere maiz espekulatu da, baina datuek erakusten dute eraildako emakumeen %82 europarrak zirela; halaxe hiltzaileen %85 ere: europarrak. Euskal Herrian bizi ziren eta Euskal Herrian lan egiten zuten biktimen eta hiltzaileen datuak biltzen ditu BERRIAk, eta «nongoak ziren?» galderak erantzun erraza du: hiltzaileen %10 baizik ez ziren sortzez amerikarrak, eta %5 sortzez afrikarrak; eta biktimen %13 besterik ez ziren sortzez amerikarrak, eta %5, sortzez afrikarrak.

Beti ez da zehazki jakin ahal izaten hiltzaileen eta hildakoen sorlekua, eta agintariak gehiengotik ez dute bereizten inplikatuak Frantzia edo Espainian sortuak ote ziren. Baina indarkeria matxista ez da atzerriko edo atzeritarren arazo bat, bistan denez, baizik eta egiturazkoa eta sistematikoa; beraz, herritar guztiena. Nolanahi ere, sorleku zehatza ezagutzen zitzaien eraildako hamar emakumetik sei gutxienez Euskal Herrian sortuak



ziren; eta jatorri zehatza ezagutzen zitzaizen gizonetako hiltzaileen hamarretik sei ere gutxienez Euskal Herrian sortuak ziren.



### Hiltzaile ezaguna

Hiltzailea etxean bertan, ohe be-rean, izan ohi zuten emakume gehienek, bestalde. 118 eraildakoe-tatik erdiak (%52) senar edo bikote-kideek hil zituzten; eta laurden bat (%21), bikotekide ohiek.

Datu horiekin, ez da zaila osatzea hiltzaileen batez besteko soslai-a: 40 eta 65 bat urte arteko gizon zu-ria, europarra, erail duen emaku-mearen bikotekide edo bikotekide izandakoa. Hori da soslai nagusia. Ez dira gutxi izan, hain justu, sena-rra edo mutil laguna uzteko asmoa zuten edo dibortziatzen hasitako emakumeen hilketak. BERRIAK zenbatutako arabera, egoera horretan zeuden hemeretzi emakume, gutxienez, hil zituzten biko-tekideek, mendeku gisa.

Horien artean ziren, esaterako: Yvette Ustariz, Mercedes Galdeano, Sophie Housset, Audrey Male, Loredana Andriescu, Maria Puy Perez, Marie Laurence Canicas, Yasmin Zamira Rodriguez, Deisy Mendoza, Binta Keita, Amagoia Elezkano, Andina Pereira, Celine Dos Reis, Rosa Lidia de la Cruz, Maria Ana Prunar, Leire Rodriguez, Ana Belen Jimenez, Maria Jose Bejarano eta Lourdes del Hoyo.

Bere buruaz beste egiten saiatu diren hiltzaileak ere ez dira gutxi izan, eta esanguratsua da. 111 hiltzaile izan badira hogeitortan, haietatik 42 saiatu ziren suizidatzen, emakumea hil ondoren. Heren bat baino gehiago dira; eta haietatik 31 hil ziren. Hilketa burutu ondoren ihes egiten edo hilketa ezkututzen ahalegindu dira beste gizonetako batzuk, eta horiek ere ez dira gutxi: 27; laurdena, alegia. Hamarretik sei dira, beraz, hilketa beren gain hartu nahi izan ez dutenak. Aldiz, hamarretik lauk bere burua entregatu dute komisariatetan.

### Oroitzeko izenak

Feminizidioak bazter ohar bat ziren egunkarietan duela hogeitortan, eta

# 118

HILDAKOAK. 2003ko urtarri-laren 1etik 2023ko azaroaren 25era 118 emakume hil dira indarkeria matxistaren eraginez Euskal Herrian. Ez dago lehenagoko datu estatistikorik. Instituzioak orduan hasi ziren datuak biltzen

# 12

HILDAKO UMEAK. Indarkeria bikario deitzen zaion horren adierazpenik krudelena dira umeen hilketak: 12 hil dituzte, 2003tik hona. Hamabi adingabe, aitek hilak, bikotekide zituzten emakumeei min egiteko asmoz. Azkena, Lizarran izan da (Nafarroa).


# 65

BATEZ BESTEKOA. Bi hilean behin hiltzen du gizon batek emakume bat, batez beste; zehazki, 65 egunean behin. Urteen artean badira gorabeherak; 2005ean hamar emakume hil zituen bortxa matxistak; 2004an eta 2010ean, zortzina. 2019an, aldiz, hiru hilketa izan ziren; aurten, lau. Gehiago edo gutxiago, baina ez da hildako emakumerik gabeko urterik.

## Hilketa matxista

2003tik hilketa matxistaren ondorioz hildako emakumeak Euskal Herrian


### HILDAKO EMAKUMEAK, UDALERRIKA



Iturria: BERRIA


### EMAKUMEEN ADINA

16 eta 49 urte artekoak %62 dira



### HARREMANA

Emakumeen eta haien hiltzaileen arteko harremana. %73etan bikotekideak edo bikotekide ohiak ziren.



orain, berriz, auzi nagusietako bat dira gizartearentzat. Zerbait aldatu da. Baina, hala ere, oroimen kolektiboan nekez gordetzen dira emakume haien izenak eta gertakariak. Hogeitortan, Nagore Laffageren hilketak aldaketa bat eragin zuen, seguru asko; eten bat. Bortxa matxista beste era batera aztertzen eta epaitzen hasi da harrez geroztik. Hiltzailea eta hildakoa ezagutzen ez zirenez ez baitzen indarkeria matxistatzat hartu auzitegietan. Tarteka, harrabotsa sortu dute auzi batzuek. Aurten bertan, esaterako, Maialen Mazonen hilketak eztabaida handia sortu du: urrutzeko agindua zuen gizonak hil zuen, nahiz eta ertzainek jakin bazekiten bikoteak harremana zuela eta, beraz, gizonak agindu hori urratzen zuela. Baina hori ere ez da berria. Babes neurriek huts egin izan dute lehenago ere, eta ez

behin. Endurance Orisewenhimi, Ofelia Hernandez, Ana Isabel Madariaga, Asun Villalba, Izaskun Jimenez, Amelia Amaya, Cristina Estebanez, Rosario Roman, Celine Dos Reis, Nathalie Van Put, Maguette Mbeugou, Yolanda Jaen, Begoña Bohoyo... Askok izan dira bikotekideak edo bikotekide ohiak salatu ostean hildako emakumeak. Esanguratsua izan zen Mbegouren auzia, Juan Luis Ibarra EAeko Justizia Auzitegi Nagusiko presidente ohiak berak ere barkamena eskatu zuelako, Justiziak «porrot» egin zuela aitortuta. Mbegouk babesa eskatu zuen gizonak hil baino bederatzi hilabete lehenago, alferrik. Zerrenda horretako emakumeek tratatu txarren historia luzea zuten gehienek, eta salaketak aurkeztu izan zituzten. Beste batzuek ez zuten inoiz salaketarik jarri senarren edo bikotekide ohien aurka, baina

etxean hil zituzten bikotekideek: Maria Vicenta Lopez, Dora Angulo, Argelis Romero, Pilar Sampereo, Flor Maria Camacho, Estibaliz Angulo, Clara Rangel, Kristine Bosque, Caridad Rodriguez, Axelle Forgeron, Blanca Marques, Noelia Noemi Godoy, Natalya Balyuk, Conchi Gonzalez, Erika Tavares... Horiek guztiak, eta izenez aipatu gabeak, eta hil ez dituzten arren noizbait bortxa klaseren bat jasan duten andreak, eta oraindik jasaten dutenak, hartu zituzten gogoan atzoko ekitaldietan. Eguneraketak datu basean BERRIAK eguneratu egin du *Hilketa matxisten mapa*. Bi kasutan, epaiketetan ez zen frogatutzat jo gizonak emakumea hil zuenik. Eta Sophia Loescheren hilketa kendu egin du datu basetik, ez baitzen euskal herritarra, eta hilketa ez baitzen Euskal Herrian gertatu. ●



# LENIZ

## Garajea



Aingerugarda pasealekua, 31  
20540 **ESKORIATZA**  
Tel.: 943-71 50 61  
garajeleniz@gmail.com



# EAJk Imanol Pradales bizkaitarra proposatu du lehendakari gisa

- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura diputatua da EBBren apustua Iñigo Urkullu ordezkatzeko.
- EAJko zuzendaritzak adierazi du «garai egokia» dela «belaunaldi berri bati bidea irekitzeko».

## Xabier Martin

EAJk eman du Urkulluren ordezkaren izena: Imanol Pradales. Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura diputatua da Euzkadi Buru Batzarrek oinarriari proposatuko dien lehendakari gisa. Bihar egin behar zuen bilera EBBk hautagaiari buruzko prozesua abiarazteko, baina, hedabideek Urkulluk ez zuela jarraituko zabaldu ondoren, ohiz kanpoko bilera egin zuen atzo, eta espekulazioen joko moztu nahian, bere apustua jakinarazi zuen: Imanol Pradales (Santurtzi, Bizkaia, 1975).

Deustuko Unibertsitateko Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktorea da Pradales; hango irakaslea den arren, 2007tik dago lan baimenarekin. Ibilbide politikoa Bizkaiko Foru Aldundian egin du. 2011n, Ekonomiaren sustapeneko diputatu izendatu zuen Jose Luis Bilbao orduko ahaldu nagusiak, eta, 2015ean, Lurralde garapen eta azpiegituren saila hartu zuen, gaur arte. Azken hilabeteak, Elixabete Etxanobe ahaldu nagusiaren taldean egin ditu. Euskaraz, gazteniaz eta ingelesez badaki.

Lau anai-arreben artean zaharrena da. Mamarigako auzoan hazi zen, Santurtzin. Haren ama eta aita egun berean afiliatu ziren EAJn, 1976an. Pradalesek badu beste datu bat bitxi bat, Urkulluren erreleboa dela ezagutu denetik bederen: Urkullu bera irakasle izan zuen Asti-Leku ikastolan OHOkos bosgarren mailan eta seigarrenean.

Horiek horrela, EBBk «Lehendakariarako, Euzko Legebiltzarrerako eta Europako Parlamenturako hautagaitzak» aukeratzeko hauteskunde prozesuak abiarazi ditu alderdiaren barruan. Urtarrilaren 20ra bitarte garatuko den prozesua martxan dela jakinarazi du EAJk ohar baten bidez eta haren lehen proposamena eman du ezagutze-

ra: «Imanol Pradales Gil izango da EBBk proposatzen duen lehendakari gisa».

## Belaunaldi berriak

Euzkadi Buru Batzarreko presidente Andoni Ortuzarrek esan du «Urkullu lehendakariak azken hiru legegaldi hauetan egin duen lan eskerga eskertzen eta aintzatesten» duela EBBk. «Ia hamabi urteko konpromiso eta dedikazioa izan dira, Euskadiren alde eta bere gobernuan, beti herritargoaren onbeharrez eta krisi ekonomikoek, pandemiak eta nazioarteko zein gure gizarteko gatazkek konplikatatu dituzten garaietan. Gure alderdiak oso modu positiboan baloratzen ditu bere jarduna eta gure autogobernuaren goi ordezkari gisa».

Balorazioak balorazio, EAJk norabidea aldatzea deliberatu du, eta ez da arriskurik gabea aldaketaren alde egitea hiru legegintzaldi bete dituen lehendakari bat baztertuta. Oraindik ez dute jakinarazi Euzko Legebiltzarrerako hauteskundeak noiz egingo diren, baina oso zabaldua dago Urkulluk deialdia aurreratu duela —hark bakarrik deitu dezake hauteskundeetara— eta martxoan izan daitezkeela, ekain hasieran egingo diren Europako Parlamenturako bozekin batera egin ez daitezken. Espainiako Estatu osorako den deialdi horretatik bereiztea litzateke bozak



««Urkullu lehendakariak azken hiru legegaldi hauetan egin duen lan eskerga eskertzen eta aintzatesten dugu»

ANDONI ORTUZAR  
EAJko presidentea



IMANOL PRADALES. EBBk proposatutako lehendakari gisa. ASIER BASTIDA / EFE

aurreratzearen arrazoia, baina, aldi berean, aukera horrek epeak asko estutu dizkie alderdiei. Pradales Bizkaian da Araban eta Gipuzkoan baino ezagunagoa, eta EAJk ez ditu hilabete askorik izango hautagai gizarteratzeko.

Ortuzarrek helarazi du «epe ertain eta luzera begiratzu» hartu duela EAJren zuzendaritzak Urkulluri erreleboa jartzeko erabakia. «Urkullu lehendakariak eta bere gobernuak utzi diguten asebetetze oinarri handiarekin, EBBk ulertzen du garai egokia dela belaunaldi berri bati bidea irekitzeko», idatzi du. EBBko presidentek uste du belaunaldi horrek «datozen hamarkadetan euskal erakundeak gobernatu» ahal izango dituela, «gure herriarentzat planteatzen diren ziurgabetasun eta aukerez betetako garaia datozela ikusirik».

Belaunaldi hori gorpuzten du EBBk lehendakariarako proposatu duen hautagaiak, Pradalesek alegia. Egungo foru diputatua Santurtziko Uri Erakunde alderdikidea da, eta, EBBren ustez, «sobera erakutsi du kudeatzeko gaitasuna». Hala, EAJk «azken hamar urteotan garatu dituen hausnarketa eta berrikuntza prozesuetan egin duen ekarpenek bihurtu dute» alderdi barruko eta kanpoko «errealitate politikoaren aditu». ●

## PUNTUA

### Ziklo aldaketaren hasiera

Aurtengo hauteskunde itzalean EAJko zuzendaritzako zenbait kidek egindako adierazpenek islatzen dutenez, Urkullurena ez da aldaketa bakarria izango EAJren barruan. Berrikuntza horrek eragingo du alderdian bertan ere, eta Andoni Ortuzarrek EBBko presidentek gisa jarraituko ote duen, horrek argituko du aldaketaren sakontasuna eta neurria. EAJren Batzar Nagusia 2024 eta 2025 bitartean izango da, bederatzigarrena; beraz, baliteke alderdiaren barruan abiatu den ziklo aldaketarekin loturik egotea EBBk Urkullu lehendakariari ordezkaria jartzeko erabakia. Ortuzarrek berak iradoki du bera ere ardura uzteko prest dagoela, eta Araba Buru Batzarreko presidente Jose Antonio Susok iragarri du hilabete gutxian utziko duela bere kargua..

Ez da arriskugabea EAJko zuzendaritzak Urkullu ordezkatzeko hartu duen bidea, Pradales ez baita hautagai oso ezaguna —Bizkaian gehixeag o—. Bozak martxora aurreratu daitezke, eta ez dago beta handirik gizarteak lehendakari gaiei buruz gehiago jakin dezan. Baina 2023ko bi bozek —Udal eta foru hauteskundeak eta Espainiako Gorteetakoak— boto galera handia ekarri diote EAJri, alegia, ziklo politiko luze batez nagusitasun eta erdigune politikoa eskuratu duen alderdiari. Ortuzarrek berak «belaunaldi berriei bidea irekitzeko» beharra azpimarratu du, Urkullu ordezkatzeko erabakia azaltzean.



X. MARTIN



# Santano, Madrilera

- Irungo alkate sozialista Espainiako Garraio idazkaria izango da.
- Oscar Puente Espainiako Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren ministro berriak deitu dio haren bigarrena izateko.

## Edu Lartzanguren

Jose Antonio Santanok baietz esan dio Espainiako Gobernuak egin dion proposamenari, eta Irungo alkate postua utziko du, Madrilen garraio idazkari postua hartzeko. Oscar Puente Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren ministro berriak deitu dio Santanori, bere bigarren gisa postua eskaintzeko.

PSE-EEko kideak 21 urte egin du Gipuzkoako hiriko alkatetzan, eta seigarren agintaldia hasi berri zuen. Izan ere, maiatzeko udal hauteskundeetan ostean alkatetza eskuratu zuen EAJren eta PPren abstentzioarekin.

Trenbideei loturiko gaien inguruan egingo du lan postu berrian. Joan zen abenduan Bordele eta Irun arteko trenbidea berritzeko eskatu zuen, Jean Rene Etxega-

rai Baionako auzapezarekin eta Bordeleko (Okzitania) Pierre Hurmicekin batera. Esan zuten, AHTaren proiektua «ez da sinesgarria», eta hori da gaur egun dagoen «alternatiba bakarra». Indar politiko, ekonomiko eta sozialei dei egin zieten eskaerarekin bat egiteko.

Litekeena da Cristina Laborda Alboleak hartzea Irungo alkate-tza, Santanoren orde, hura izan baitzen bigarrena hauteskunde zerrendan. Laster argituko da, edonola ere.

## Aurtengo alardea

Urte askoan Irungo alarde parekidea bazterturik egon ondoren erakundeen aldetik, aurtengo estreinako, harrera egin dio



PSE-EEko alkateak emakumeak soldatu gisa ateratzen diren alarde bakarrari. 27 urte joan dira alarde parekidea lehen aldiz ateratzen saiatu zenetik, eta 25 lortu zuenetik. ●

**SANTANO.** Irungo alkatea Rivera ministroarekin.  
GORKA RUBIO / FOKU

**Bestelako Basogintza**

www.errez.eus  
690 084 773  
ARAMAIO

+

**Larrañaga Juanjo HARAKIÑA**

943-86 06 21, Zumaia      943-89 02 15, Zarautz

+

**BORDA ARDOAK**

Foruen kalea 12, behea • ZARAUTZ • Tel.: 943-13 42 05

+

EGUBERRI... BERRIENAK

**Marí Domingiren errepublika magikoa**

Abenduaren 1etik 17ra

Sarrerak [maridomingi.eus](http://maridomingi.eus)

Antolatzailea: **orereka ikastola** AURRERA!

Laguntzaileak: **berria** ERRETERIA UDALA



# Iztueta, goi mailako artisau esnekiak

**IZTUETA ESNEKIAK** | Iztueta baserriak jogurtik onenaren saria irabazi du Esneki azokan. Izan ere, kalitaterik goreneko behi esnekiak ekoizten ditu.

**G**oi mailako artisau esnekiak ekoizten dituzte Lazkaoko Lazkaomendi auzoko Iztueta baserrian (Gipuzkoa), hango larreetan bazkatzen diren behien esne jetzi berriarekin: jogurtak, izozkiak, gazta eta baserriko esnea. Esneki bikainak. Horren lekuko da Esneki Euskal Herriko gazta eta esnekien azokan jaso duten jogurtik onenaren saria. Esneki azoka azaroaren 3an eta 4an izan da Tolosan (Gipuzkoa), eta Iztueta baserriak aurkeztu duen jogurt krematsua irabazi du aipatu saria.

Marije eta Eñaut ama-emeak dira Iztueta baserriaren egitasmoaren buru, eta hainbat langileekin aritzen dira. Eñautek azaldu ditu saritutako jogurt krematsua-aren ezaugarriak: «Esne freskoaren berezko zaporea mantentzen dugu jogurt krematsuan. Proteina altuko esnearekin sortzen ditugu esnekiak gure behiek larreetan bazkatzen duten belar onari esker». Horrez gain, artisauen jakintza eta gaurko teknologia baliatuz lan egiten dute. «Osagai naturalak erabiliz, ia 24 orduz mimoz landutako prozesu luze baten emaitza da Iztueta jogurt krematsua».

Sari garrantzitsua da Iztueta baserriarentzat. «Indarra hartzen eta ilusioa berpizten lagundu digu. Txikitasuna handi egiten dute horrelako sariak. Aldi berean, kontsumitzailearengandik



**SARIA.** Iztueta baserrikoak, jogurtik onenaren sariarekin, Esneki azokan. IZTUETA

**«Oso garrantzitsua da lekuan lekukoa kontsumitzea, hau da, zero kilometroko produktuak»**

**Eñaut Sala**  
Iztueta baserriko burua

gertuago egoteko aukera bikaina da. Honela, gure lan egiteko modua, jatorria eta lehengaiak nondik datorren eta nola lantzen dugun ikusteko aukera du gizarteak. Azken batean, gurea bezalako baserri txikietan lantzen dira gure inguruko lursailak, larreak, animaliak, intsektuak, natura, biodibertsitatea... dena kate bat da».

Aralar mendikatearen magalean dago Iztueta baserria. Esne behiak dituzte, eta *Esnetan bizi gara* da haien leloa. Naturarekiko

errespetua eta animalien ongizatea bermatzen dituzte esnekiak ekoizteko orduan. «35 behi inguru ditugu jezten. Egunero larrea ateratzen ditugu euri edo elurterik ez bada. Ziklo osoaz arduratzen gara, txekorra jaiotzen denetik produktuak dendetan saltzeraino».

Belaunaldiz belaunaldi, zuzeneko salmentaren alde egin dute, eta ezin hobeto egokitzen ari dira kontsumitzaileen ohitura berrietara. «Gure birraitonak, mandoa- ren laguntzaz, goizero-goizero behien esne jetzi berria kalean saltzen zuen, gero amona, ama... eta ni ere txikitan amarekin batera etxez etxe esnea saltzen ibilia naiz. Orduetik, esnea poltsaratu, vending makinak instalatu, jogurt krematsua eta artisau izozkiak merkaturatu... urtez urte etengabe pauso ezberdinak ematen joan gara merkaturatu eskariari erantzunez».

Horrela, gaur egun, Goierriko herritar gehienek ezagutzen dituzte Iztueta esnekiak. «Bertako kafetegi garrantzitsuenekin elkarlanean gaude, ikastola ezberdinetan ere gure produktuak kontsumitzen dituzte, denda txiki, supermerkatu... Gure ustetan oso garrantzitsua da lekuan lekukoa kontsumitzea, hau da, zero kilometroko produktuak».

Iztueta baserriak atea irekitzen ditu bertan egiten duten lana jendeari ezagutarazteko. «Hila-

betean behin, gutxienez, eta jendea oso ondo ari da erantzuten. Tradizioa eta teknologia berriak ikusi, animalien ongizatea bermatu, belardiak eta natura bertatik bertara ikusi, haurrekin jolastu, dastatzeak... hori guztia egiteko aukera eskaintzen dugu. Kontsumitzailearekin zuzenean egoteko beste aukera bat dira ate irekiak, guretzat eta bisitariarentzat oso aberasgarriak».

## KALITATEZKO HARAGIA

Iztueta baserrian haragi salmenta ere sustatu nahi dute. Izan ere, kalitatezko esnekiak ekoizteaz gain, kalitatezko haragia ere badute. «Fleckviech arrazako behiekin egiten dugu lan, eta horien berezitasuna da kalitate handiko esnea eta haragia sortzea. Gure baserrian animalien ziklo naturala eta belarjale izatea errespetatzen saiatzen gara. Horri esker, behi batek bere ziklo amaieran kalitate handiko haragia ziurtatzen digu».

Txekor txikiak idiskoak — arrak— jaiotzen badira ere, tokia badute Iztueta baserrian. «Gaztetan baserriko belardietan eta ondoren Aralarko parke naturalean hazten dira belar berdea janz. Iztuetan hazten diren behi eta idien haragiak Tolosako Casa Julian jatetxearekin merkaturatzen ditugu. Horrela, idien haragiarekin ekoizturiko txorizo edo saltxitxoia eros ditzakezue jate-txean bertan edo gure baserrian».

Etorkizunera begira, sukaldeko lanetan murgilduta daude Iztueta baserrian. «Beti izan dugu gaztaren munduarekin harreman zuzena gure baserrian, txiki-txikia nintzenez ganbaran beti edukitzen genuen gazta ontzen. Aspaldiko ohitura horiek berreskuratzeko gabilta, eta, hainbat adituren laguntzarekin, litekeena da gazta ezberdinen munduan jardutea Iztueta baserria etorkizunean». ●

Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: [www.iztueta.eus](http://www.iztueta.eus)



Beste behin  
mila esker  
**txikitasuna handi**  
egiten duzuen guztiei





# Batasuna helburu duen ereserki proposamena

- Euskal Ereserkiaren I. Batzarra egingo dute gaur Urretxun.
- *Gernikako Arbola* kantua jo du horretarako proposamen egokitza.

Isu Alberdi

1853an konposatu zuen Jose Maria Iparragirrek *Gernikako arbola* abestia; ereserki bat askorentzat. Hala, kantua 170. urteurrena baliatuta, Euskal Ereserkiaren I. Batzarra egingo dute gaur Urretxun (Gipuzkoa), azken urteetan mahai gainean jarritako proposamen bat hauspotzeko: abesti hura bilakatzea Euskal Herriko himno.

Herri batek bere ikurrak behar ditu. Hala uste du Gontzal Mendibil abeslari eta *Gernikako Arbola* elkarteko kideak. Hala, ikurrinarekin batera, «kantu amankomun bat» ere behar dela zehaztu du: «Esaterako, Katalunian *Els segadors* dute. Iritzi askotarikoak biltzen ditu, eta denek hartzen dute euren himno moduan».

Euskal Herrian, baina, zehazteko dago zein abestik beteko duen hutsune hori. Mendibilek berak aipatu du badirela kantu konpartitu ugari: *Txoria txori*; *Eusko gudariak*; *Agur, jaunak*... Baita

egun Euskal Herriaren parte batenak diren ereserki ofizialak ere: *Gorteen ereserkia* Nafarroan, eta *Gora eta gora* Araba, Bizkai eta Gipuzkoan. Halere, abeslariaren ustez, *Gernikako arbola* abestia da horretarako egokiena: «Denok bat egitea zaila da, baina himno batek batasun hori irudikatu behar du. Eta *Gernikako arbola*-k badu hori». Haren historiari eta abestiaren eta arbolaren sinbolismoari «askatasuna, elkartasuna, justizia, epika...» erreferentzia egin dioten askotariko erreferenteak aipatu ditu argudio gisa: Jean-Jacques Rousseau, Dolores Ibarruri, Sabino Arana... «Gure lurrari lotuak dauden abertzaleek eta ez-abertzaleek erabili izan dute».

Mendibilekin bat egin du ekitaldiaren antolatzaileetako batek ere, Juan Luis Aranburuk: «Ereserki batek behar dituen ezaugarriak betetzen ditu: atemporala izatea, epika, aitortza historikoa, baztertzalea ez izatea eta askatasunaren inguruko mezu bat bidaltzea». Hark azaldu duenez, baina, gaurko ekinaldiaren xedea ez da ereserkia *Gernikako arbola* izan behar dela baieztatzea, hura proposamen gisa aurkeztea baizik.

Izan ere, Aranburuk uste du 1980ko hamarkadatik aurrera abestia «ahaztua» gelditu dela, nahiz eta aurrez ereserki gisa funtzionatu zuen: «Lurralde administratiboak sakabanatzean, ikusi dugu gero eta zatituago gaudela, eta aukera gutxi izan dela nazioartean aritzeko». Hori ikusita, ekarpen bat egitea



GERNIKAKO ARBOLA. Abestia ereserki bilakatzearen aldeko ekimen bat. J. MANTEROLA / FOKU

dute helburu: «Batzen gaituenari heltzea».

## Konplexurik gabe

Aranbururen esanetan, haien asmoa zen 2020an Iparragirrerren jaiotzaren 200. urteurrena ospatzea, baina pandemiak zapuztu egin zituen plan haiek. Orain, ekitaldi honekin heldu diote berriz haren figura gogoratzeari. Halere, azken urteetan *Gernikako arbola* berreskuratzearen aldeko manifestuek ezarritako ildoak ere segitzen du batzarrak. Gaur bostehun lagunetik gora espero dituzte. Ekitaldi solemne bat egingo dute lehenik, Pagoeta gune soziokulturalean, manifestu bat aurkezteko. Ondoren, kalejiran abiatuko dira Iparragirre plazaraino: han beste ekitaldi bat egingo dute, kantu

eta abesti artean. Herri bazkaria, kantua eta dantza ere izango dira gero.

Horiek hala, gaiari «konplexurik gabe» heltzeko deia egin du Mendibilek. Beste ereserkiak

sortzeko beharrik gabe, edo jada eginak daudenak aldatu gabe. «Ez dugu ahaztu behar gure historia nondik datorren», esan du, eta gogoratu haren parte dela *Gernikako arbola* abestia ere. ●

**ERROTA**  
HORTZ KLINIKA

ZURE AHO OSASUNAREN  
ZAINZAILEAK

Julian Apraiz, 1  
01012 GASTEIZ  
Tel.: 945 21 33 90  
errotadental@euskalnet.net

Kirurgiaren ondoren  
berragertutako zainetako  
ultzera eta barizeetan  
espezialistak

**variTek**

KIRURGIARIK  
GABE

ERRADIOLOGIA  
INTERBENTZIONISTA

www.varitek.es

DONOSTIA 666 776 159 • BILBO 690 623 391 • GASTEIZ 689 338 931

**Deusto**  
Deustuko Unibertsitatea

INFORMAZIO SAIOAK  
Aurrez aurre eta online

Azaroaren  
6tik  
abendua  
14ra

Gradu eta gradu  
bikoitzak honako  
ezagutza-arlo hauetan:

- zuzenbidea
- enpresa
- ingeniariaritzak
- hizkuntzak
- komunikazioa
- politika eta nazioarteko harremanak
- gizartea
- osasuna
- hezkuntza eta kirola

Nor izan  
nahi  
duzu?

Kontsultatu datak  
eta ordutegia



➤➤➤ Eman izena! | deusto.eus/saioak



## ANALISIA

## «Bilera gehiago?»



Mikel P. Ansa

**B**i urte iraun du BERRIA berritzeko prozesuak. 2021eko azaroan intuizioak zirenak errealitate dira orain. Bidean, gogoeta, hizketaldi eta gorabehera asko. Lehenik, produktuari buruzko hausnarketa sakon bat, etxeko kazetarien eta lankideen ekarpenekin abiatu zena, eta pixkanaka osatuz eta borobilduz joan dena. «Beste gogoeta prozesu bat?», galdetu zuten askok, bilerak hasi zirenean. «Bilera gehiago?». Bai, izan dira bilera gehiago, aste honetan BERRIAk aurkeztu dituen berrikuntzeta-ira iritsi ahal izateko.



BERRIAren erredakzioa. MENDI URRUZUNO

gogoeta horretatik, hauxe: ez informazio gehiago, baina bai hobea, kalitate gehiagokoa, zaindua. Eta ondo aurkeztua. Paperean bai, baina sarean batez ere.

Diseinua berritzeko prozesua etorri zen ondoren, Iruñeko Errea estudioarekin elkarlanean, iazko azarotik aurtengo urrira. Bilera gehiago. Eta lan asko. Diseinu taldeak papereko maketa guztiak berregin behar izan ditu, eta maketazio sistema berri bat sortu, ia hutsetik.

Horrekina batera, laneko tresna guztiak aldatu ditu BERRIAren erredakzioak, eta teknikoek lan astuna egin behar izan dute. Azpiegitura tekniko guztia eta edizio sistema osorik berri dituzte, Kataluniako BAB eta Galiziako Grupo Dana enpresen laguntzarekin. Eta tresna horiek euskaratu behar Euskara Taldeak. Lan gehiago.

Antolaketa eta funtzionamendua goitik behera berritzeko prozesu bat etorri da azkenik, otsailetik urrira. Bilera gehiago kazetariarentzat.

Eta tartean, Martxelo Otamendi Eigurenen eta Amagoia Mujika Tolaretxipiren arteko erreleboa, eta BERRIAren hogeigarren urteurrena. Eta bilera gehiago eta lan asko marketineko taldearentzat eta etxeko beste sail guztientzat.

Ahaztu gabe bitarte horretan lantaldeak egunero argitaratu duela egunkaria. Berrikuntza hau guztia ezinezkoa izango baitzen lantaldearen konpromisorik, borondaterik eta ekarpenik gabe. Hori baita, azken buruan, BERRIAk aste honetan gauzatu duen aldaketaren muina: lantaldea.

Aldaketa handia izan da, agertuko dira akatsak eta egin beharko dira hobekuntzak. Pazientzia beharko da xehetasun guztiak doitu bitartean.

Orain, irakurleak juzgatu beharko du bi urteko lanak zenbat merezi izan duen. ●

Produktuaren gogoeta hori digitalean oinarritu da asko. «Zer-nolako egunkari nazionala beharko lukete euskaldunek, gaur sortu beharko bagenu? Nolakoa izango litzateke?». Galdera horretatik abiatuta diseinatu du BERRIAko lantaldeak orain BERRIAren zaleek eskuen artean duten hau. Eta ondorio bakar bat atera behar balitz

**Aldaketa handia izan da, agertuko dira akatsak eta egin beharko dira hobekuntzak. Pazientzia beharko da xehetasun guztiak doitu bitartean**



**Bi hamarraldi.  
Milaka aldi.**



**aldi hau**  
*kontatzeko*  
**berria**

Orain, aldi berria dator. Zure aldia.  
2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure ekarpena**



www.ehu.eus

**BILBOKO SIMON BOLIVAR 19 KALEKO GARAJEKO 99.  
APARLEKUAREN ENKANTEA**

Higiezin hori enkante bidez besterenduko da eta eskaintzak gutun-azal itxian aurkeztu behar dira.

**Lizitazioarako oinarritzko prezioa:** 31.187,19 €.

**Bermea:** Lizitazioarako oinarritzko prezioaren % 20.

**Eskaintzak aurkezteko azken eguna:** 2023ko abenduaren 26a.

**Higiezinari buruzko informazioa eta esleipenerako prozedurari buruzko xehetasunak:** [https://www.ehu.eus/eu/web/kontratazioa/doako\\_kostu\\_bidezko\\_besterentzeak](https://www.ehu.eus/eu/web/kontratazioa/doako_kostu_bidezko_besterentzeak)

**Informazio gehigorako eta higiezinetara bisita hitzartzeko:** 946015030.





Herritarrak botoa ematen, maiatzean, Eguesibarren. AITOR KARASATORRE / FOKU

## Bozak dira gaur Nafarroako 38 herri eta 39 kontzejutan

- Ez zen hautagaitzarik aurkeztu maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan.
- Iratxetan errepikatu egingo dituzte: pertsonak baino boto gehiago zenbatu zituzten.

### Jakes Goikoetxea

IRUÑEA— Maiatzaren 28ko hauteskundeetan ez zen hautagairik aurkeztu Nafarroako herri eta kontzeju askotan, eta hauteskundeak egin beharko dituzte gaur. 38 herri eta 39 kontzeju dira guztira. Udal hauteskundearen ardura Espainiako Gobernuari dagokio; kontzejuetako hauteskundeena, berriz, Nafarroako Gobernuari. Aurrena Espainiako Gobernuak erabaki zuen hautagairik gabeko herrietan hauteskundeak gaur egitea; Nafarroako Gobernuak egun bera aukeratu zuen kontzejuetako hauteskundeak egiteko.

Hauek dira gaur hauteskundeak izango dituzten herriak: Aranaratxe, Arantza, Areso, Arribe, Atetz, Auritz, Barasoain, Barga, Beire, Beraskoain, Bidankoze, Burgi, Deikaztelu, Eratsun, Eslaba, Etaiu, Ezkaroze, Garde, Garralda, Hiriberri, Iturmendi, Itzaltzu, Izaba, Legaria, Lezaun, Muruzabal, Nabaskoze, Orbaizeta, Orisoain, Orotz-Betelu, Sartze, Tirapu, Urroz, Urzainki, Uterga, Uztarroze, Zare eta Zubietta. Kontzejuei dagokienez, berez 77 kontzejutan ez zen aurkeztu hautagaitzarik maiatzaren 28ko hauteskundeetan. Bihar ez dituzte ordezkaririk aukeratu guztietan: 39tan aurkeztu dira hautagaitzak (43 guztira). Iratxetako kontzejuan (Leotz) bozketa egin zuten, baina gaur berriz egingo dute: Hauteskunde Batzordearen arabera, erroldan izen emandako pertsona kopurua baino boto gehiago zenbatu zituzten.

Kontzejuak Nafarroako udal administrazioentzako entitate bereziak dira. Mila biztanletik gorako kontzejuetan, kontzejuko batzarreko lehendakaria eta sei ordezkaririk hautatu beharko dituzte; 50 eta mila biztanle artekoetan, batzarreko lehendakaria eta lau ordezkaririk; eta 50etik beherakoetan, berriz, lehendakaria. ●

## HITZ GUTXITAN

### Eusko Jaurlaritzak 40.000 euroko isuna jarriko dio Serunion enpresari

GASTEIZ— Zenbait eskolako jangeletan harrak eta beste zomorro batzuk agertu dira janarian. Jangela horietan guztietan Serunion catering enpresak eskaintzen du zerbitzua. Jokin Bildarratz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak jakinarazi du 40.000 euroko zigorra jarriko diotela enpresari. Murgiako (Araba) institutuak eta hango guraso elkarteak Jaurlaritzari eskatu diote bertan behera utz dezala Serunionekin duten kontratua.



ISTRIPUA. Motorra, errepidean, istripua eta gero. FORUZAINGOA

### Hil egin da Mendabian traktore bat jo eta larri zauritu zen motor gidaria

IRUÑEA— Motor gidari batek traktore bat jo zuen herenegun goizean Mendabian (Nafarroa), NA-134 errepidean. Kolpeak zauri larriak eragin zizkion, eta atzo hil zen, Gasteizko Santiago Apostol ospitalean. SOS Nafarroak 06:54an jaso zuen istripuaren berri. Istripua izan eta gero, aurrena Logroñoko (Errioxa, Espainia) San Pedro ospitalera eraman zuten. Motor gidaria, 35 urtekoa, Logroñokoa zen.

### ELAk elkarretaratzea egin du Madrilen, Iberdrolaren jarrera salatzeko

MADRIL— ELAk deituta, langile batzuek elkarretaratzea egin zuten atzo Madrilen, Soleko plazan, eta salatu Iberdrolak sekulako irabaziak baditu ere —3.637 milioi euro aurtengo bederatzi hilabetean— horiek ez direla iristen langileengana. Madrilen egin zuten elkarretaratzea, «bere burua euskal enpresatzat izendatzen badu ere, zuzendaritza gehienak Madrilen dituelako». ELAk kritikatu du Iberdrolak presio egin diola Espainiako Gobernuari, zergak jaisteko, baina ez diola langileen erosahalmenari eutsi nahi.

## Eskelak

(0034) 943-30 40 30 • eskelak@bidera.eus

**Berria.eus/eskelak**

BERRIAlagunek eta BERRIAlagun harpidedunek %25 merkeago izango dituzte eskelak



**bidera**  
komunikazioa



Dena finduko dugu  
dotore azaldu zaitezten

Publizitatea eta marketina, diseinu grafikoa, inprimaketa, errotulazioa, webguneak...



[www.bidera.eus](http://www.bidera.eus)

**berria** Taldearen zerbitzu enpresa • 943-303 555 / 607-787 304 • [bidera@bidera.eus](mailto:bidera@bidera.eus)





## Matrici, zulotik atera nahian

● Matriciren kasua ezberdina da, kinka larritik ateratzea lortu baitu Zamudioko kooperatibak (Bizkaia), Mondragon taldekoak. Iaz, 23 milioi euroko zorra kudeatzeko eskatu zuen hartzekodunen zerrendan. Urtebeteko negoziazioaren ondoren atera da zerrendatik. Autogintzaren krisiaren biktima izan zen, eta Evergranderekin izandako kobrantza arazok zama-tu zuten. Bideragarritasun planak kate motzean lotu du, baina. Egun, 134 bazkide ditu, baina beste hirurogeik erretiroa hartu dute edota Mondragonen elkartasun bideetara jo dute. Amundarainek argi du dibertsifikazioa dela trokelgintzaren itzaropena, eta Matricik hori egin du. Autogintzaren mugak hautsi, eta aeronautikaren atea jo du: ITP, Lauak... eta halako enpresekin lan eginez.

# Trokelgintza: tantaka odolusten

Mecaner ixteko arriskuak sektore historikoaren kinka larria areagotu du. Azken bi hamarkadetan enpresa askok eten dute jarduna. Sindikatuek deslokalizazioaren itzala ikusten dute.

Imanol Magro Eizmendi

BILBO— Mecaner izan zen aurrenekoa, 1960ko hamarkadan. Erhardt zen Urdulizko (Bizkaia) plantaren jabea, eta Seaten autogintza enpresaren eskari bat onartu zuen, molde handi bat egiteko. Eskari hura sektore baten jaiotza izan zen Euskal Herrian: trokelgintza eta matrizegintza. European autogintza zabalkunde betean zegoen, eta ekoizpen kateetan erabiltzeko moldeak behar zituzten. Haien erabiliz, altzairuzko xafiak autoen kapota, ate edo gurgipen estalgarri bilaka zitzaizkiren, eta euskal enpresak trebeak ziren horretan.

Euskal enpresak baino gehiago, Bizkaikoak, han baitzeuden trokelgintza enpresa gehienak. Industriaren eta eskulangintzaren arteko jardun bat zen, eta altzairua milimetroetako zehaztasunarekin leuntzeko gai ziren matrizegintza maisuak ospe handiko profesionalak ziren. Jarduna deskribatzeko, baina, iraganeko aditzak erabili behar dira, Asiatiko eta Europako ekialdeko lehia gogorak bete-bete astindu baitzuen sektorea.

2004an, ACICAE autogintza klusterreko enpresen langileen %6k jarduten zuten trokelgintzan, eta salmenten %5 haienak ziren. Hartaz geroztik, baina, jarduna odolustuz joan da, eta kopuru horiek etengabe txikitu dira. Bi lantegi hauek izan dira ixten azkenak: Araluce Igorrekoa, 2019an, —141 langile— eta GTS Matriceria Deusto Erandiokoa, 2021ean (230 langile). Aurrenekoaren jabea Batz Mondragon taldeko enpresa zen, eta bigarrenarena, berriz, Gestamp. Aurretik, baina, gauza bera gertatu zitzaizen Troquenorri 2013an (110)—, Troquelaria Iruraki 2009an (105), Ayalari 2009an (65), Untrori 2009an (70)... Zerrenda luzea da.

«Autogintzan aktibitatea asko murriztu da, eta horrek kalte handia egin dio trokelgintzari. Plataforma berririk ez da sortzen, eta marka batzuek ekoizpen plataforma zaharrak berrerabiltzen dituzte modelo berrietan. Tro-

**BORROKAN.** Mecanerreko langileek itxiera salatzen dituzten protesta ekintza. ARITZ LOIOLA / FOKU

kelgintzak ez du piezarik ekoizten, moldeak baizik, eta modelo berriak behar ditu merkaturatzeko». Azalpen zehatza Mikel Amundarain Eusko Jaurlaritzako industria sailburuordearena da.

Orain, Mecaner bera dago zintzilik, Stellantis autogintza talde erraldoiak (Peugeot, Opel, Citroen, Fiat...) hura itxi nahi duela jakinarazi baitu. 144 langile ditu Mecanerrek, eta ia 606.000 euroren irabaziak izan zituen iaz —langileek bideragarritasun plan bat aurkeztu zuten ostiralean—. «Inork ezingo du esan arrazoi ekonomikoengatik itxi nahi dutela; beste nonbaiten merkeago egingo dutela uste duelako itxi nahi du Stellantisek», azaldu du Sergio Calvo ELAren industria federazioko kidea. Ondo eza gutzen du sektorea, Mecanerren inguruko auzia darama gaur egun, eta, bere garaian, Araluceko erregulazio txostena zehatz aztertu zuen.

**Gestamp, Batz...**

Egun Egun, Gestamp multinazional erraldoia eta Batz kooperatiba dira sektoreko izen handiak Euskal Herrian. Trokelgintzaz gain, estanzak ere egiten dute, ale-

gia, hurrengo pausoa, trokelaren erabilera piezak egiteko. Azken urteetan biek ala biek nazioartearatze prozesu handiak egin dituzte. Gestampek 41.000 langile ditu munduan, eta ehun plantetatik zortzi ditu Euskal Herrian. Batz enpresaren bolumena askoz txikiagoa da; halere, besteak beste, Txinan, Mexikon eta Txekian ditu plantak.

Amundarainek ez du ukatu deslokalizazio kasurik egon ez daitekeela, baina, haren ustez, autogintzaren globalizazioaren testuinguruan aztertu behar da. «Trokel sinpleak Asian egiten dituzte, eta konplexuagoak hemen, baina atzerrian ikasi dute. Nahasketa moduan ikusi behar da. Markek, lehiakorrak izan daitezten, kanpoko eta hemengo ekoizpen ahala nahasten dute. Atzerriara joateko arrazoi asko egon daitezke, gainera. Dena den, nire ustez, garrantzitsuena da ingeniariak lana hemen gelditzea, jakinduria alegia».

Euskal trokelgintzako beste ezaugarri bat lan baldintza onak ziren. Calvok, baina, zehaztu du asko duela mitotik. «Kalitate handiko lana da. Trokelgintzarekin diru asko irabazi da herri honetan. Langileek bai, baina baita enpresarietara ere. Mozkinak oparoak ziren, eta bezeroak enpresa handiak. Azken urteetan, baina, langile berriek gutxiagotik hobetzen zituzten metalgintzako ituneko baldintzak». ●



«Trokelgintzarekin diru asko irabazi da. Langileek bai, baina baita enpresarietara ere. Haien mozkinak oparoak ziren»

SERGIO CALVO

ELAko industria federazioko kidea



# Zehaztasun gutxi, eta zalantzak nagusi



**ANALISIA**  
Joxerra Senar

**A**steartean argitu behar omen zuen Siemens Energyk zer egin asmo duen Gamesarekin. *Capital Market's Day* edo Kapital Merkatuen Eguna zen, eta bere etorkizuneko planak aurkeztekoa zen. Moduak adierazgarriak izan ziren. Aurreko astean 4.588 milioi euroren galerak aurkezteko prentsurrekoa alemanez eman zuten; webgunean zuzenean jorratu zuten kazetariarentzat, berriz, ingelesezko eta gaztelezko itzulpen automatikoa jarri zuten. Alabaina, asteartean, akziodun handien aurrean, Siemens Energyko eta Gamesako arduradunak ingelesez mintzo ziren, horixe baita finantza merkatuen hizkuntza, eta inbertitzaileek erabilitako hizkak eta kezkak ez dira langileek dituztenak. Haien arretagunea bestelakoa zen: turbinen arazoak noiz konponduko diren, dibidenduak noiz banatuko diren, inbertsio kalifikazioa noiz hobetu daitekeen... Langileez eta lantokiez ez zuten deus esan.

Jochen Eickholt Siemens Gamesako kontseilari ordez-

kariak gauza bat aurreratu zuen soilik: gastu finkoak 400 milioi euro murrizteko asmoa dutela; teknologia, osagaiak eta antolamendua. Plan horren atzean zer den ez zuen argitu. Aurreko astean Christian Bruch Siemens Energy taldeko presidenteak azaldu zuen ez dutela negozio eolikoa salduko eta ez dutela Euskal Herriko lantokirik itxiko. Halaber, bi agerraldietan adierazi zuten ohiko izaten direla oso azkar hedatutako eta guztiz ez heldutako teknologia energetikoetan halako krisiak, baina etorkizunari begira perspektiba oso onak dituela sektore eolikoak.

Oraingoz, baina, hitzak baino ez dira. Euskal Herrian 2.800 langile ditu Sarrigurengo eta Zamudioko egoitzetan, eta Mungia eta Asteasuko lantokietan. Ezinegona handia da. Lehenik eta behin, galerak handiak direlako: azken urtean 4.347 milioi euro galdu ditu, eta asteon ohartarazi dute turbinen arazoei aurre egiteko beste 2.000 milioi euro inguru gal daitezkeela 2024an. Taldearen helburua da 2026an errentagarri egitea.

Aurrekariak ez dira onak. Enpresa ezagun egin da kaleratzeak eta moldaketak ustekabeak jakinarazteagatik. Langileek komunikabide bidez jakin zuten, adibidez, Agoizko lantokiaren itxiera. Edo iaz bat-batean iragarritako 2.900 kaleratzeak munduan —horietatik 352 Sarrigurenen, Zamudion eta Madrilen izan ziren, eta, azkenean, borondatez enpresa uzteko baldintzak hitzartu ziren CCOO eta UGTekin—.

Azken enplegu murrizketa hori Mistral planaren barruan etorri zen, eta bertan jaso-

tzen zen jada gehiago egiteko hipotesia: «Siemens Gamesaren negozio ataletako lanpostuen inguruan, langilerian beste doikuntza bat egiteko aukera aztertuko da», esaten zuen txostenak, kriptikoki.

**Mistral plana, iaz.** Siemens Gamesaren akzio guztien erosketa burutzeko eta konpainia Siemens Energy taldean integratzeko helburua zuen Mistral planak. Plan horrek zioen 300 milioi euro aurreztu nahi zituztela, sinergia bidez. Nola? Siemens Energyren logistika kateak eta ikerketa eta garapena bateratuta, administrazio kostuak murriztuta eta proiektuen adjudikazioa hobetuta. Azkenean, otsailean atera zen burtsatik Siemens Gamesa, eta xurgatzea osatu zen horrela.

Urtebete geroago, zenbaki gorriak areagotu dira, eta, teknologiaren bateratze horretan, Siemens Gamesaren sinesgarritasuna kolokan jarri da turbinen arazoarekin. Alta, autokritikarik ez da entzun Alemanian. Asteartean galdetu zitzaion Eickholti ea integrazioa burutu al zen: «Oraindik, ez», onartu zuen Eickholtek, agerian utziz sektore eolikoa ulertzeko talka dagoela Gamesaren eta Siemens Energyren artean. Testuinguru horretan, orain diote hurrengo bi urteetan 400 milioi euro aurreztu nahi dituztela, besteak beste, antolamendua eta kudeaketa eredu aldaturak.

Ostiralean Siemens Gamesako zuzendaritza Madrilen bildu zen sindikatuekin lasaitasuna emateko asmoz, baina langileen ordezkariek ez dira fio. Izan ere, astearteko agerraldiak dena airean utzi du. Zehaztasun gutxi, eta zalantzak nagusi. ●



## Bakarrizketa

### Epaileak ezin ditu tranpak lasai egin

Iker Aranburu

**1 | Epaileak eta tranpak. Ikusten dut gaur Espainiako justizia sistema dugula hizpide. Euskara? Amnistia? Shakira berriro ere?**

Ez dut Espainiako epaile zintzo eta profesionaleri buruz adierazpenik egingo... nire abokatu aurrean ez badago. Baina ez, Alemaniari buruz ari naiz eta Europako Batasuneko kideen kontu publikoei buruz. Afera horretan epaile eta fiskal izan da Berlin, bere arau zorrotzak inposatzen saiatu delako beste kideei, eta kargu hartu die hautsi dituztenean.

**2 | Alemania tranpa egiten harrapatu dute?**

Aste honetan bertan Europako Batzordeak ohartarazi dio aurkeztu dion aurrekontu proiektuarekin ez dituela beteko berak bultzatutako arauak. Baina errietarik gogorrena Alemaniako Auzitegi Konstituzionaleko epaileek beraiek egin diote gobernuari, bere kontuetan tranpak egiteagatik.

**3 | Alemaniako konstituzionalekoak ez dira inkisidore itxura duten horiek?**

Ez dakit haien jantzi gorriak inkisidoreenak, kardinalenak edo Merlin aztiarenak diren, baina bai, ordea, Alemaniako gobernuak lotsagorritu dituztela. Kontua da debekatu egin diola klima aldaketaren aurka borrokatzeko funts batean 60.000 milioi euro sartzea.

**4 | Epaile negazionistak...**

Ingurumenaren aurka borrokatzeko dirua jartzea baino, gobernuak diru hori erabiltzeko baliatu nahi zuen trikimailua konstituzioaren aurkakoa dela esan dute. Konstituzioak dio Alemaniaren kontu publikoek gehienez jota BPGaren %0,35eko defizita izan dezaketela. Haren eskutik, 2009tik 2019ra, zor publikoaren krisiaren erdian, Alemaniak %81tik %60ra jaitsi zuen bere zor publikoa, eta lezioak ematen ari-tu zen Greziari eta enparaei.

**5 | Alemaniari zurrurenaren topikoa elikatzen, alegia.**

Baina COVID-19a iritsi zenean, gerria erakutsi zuen Berlinek. Larrialdi garaian zorraren araua eteteko aukera baliatu zuen, eta diru publikoarekin erantzun zien kalte sozial eta ekonomiko. Funts horietatik sobran geratu ziren 60.000 milioi erabili nahi zituen gobernuak KTF Klima eta Eraldaketa Funtsa hornitzeko. Ezin dituela erabili esan diote epaileek, ezin duela larrialdia argudiatu. Gainera, epaiak kolokan jartzen ditu gobernuaren balantzeek kanpoko beste funts batzuk; horien artean dago herritarren energia kostuak txikitzeko sortutako 200.000 milioi euroko WSF funtsa.

**6 | Zer egingo du gobernuak?**

Berriro ere erakutsi du bada-kiela komeni zaionean bere araei izkin egiten. Christian Lindner Finantza ministroak jakinarazi du 2023 larrialdi ekonomikoko urte gisa deklaratu duela, eta, horrenbestez, zorraren araua ez dela ezarriko. 2024an zer gertatuko den, ordea, airean dago, eta gobernu bera kolokan dago, Lindnerren FDP liberalak eta haren bazkideek —Olaf Scholz kantzilerraren sozialdemokratik eta Robert Habeck Ekonomia ministroaren berdeek— kontrako ideiak dituztelako aurrekontuak orekatzeko. ●



**BAKOITZAREN BEHARRETARA EGOKITUTAKO ESPAZIOAK**

**BIGMAT URBIL**  
Hiribarren Kalea 34  
20210 Lazkao  
T 943 008887

**COCOON**



**TRADEBI**  
TRANSLATION

Itzultzaileak

tradebi@tradebi.com





#### SU ETENAREN ABAGUNEA.

Gazako herritar taldeak, atzo, zerrendaren iparraldetik hegoaldera bidean, Israelen eta milizia palestinarren arteko su etena baliatuta. MOHAMMED SABER / EFE

edo bi gehiago» hedatzeko, azaldu zuen estatuko Informazio Zerbitzuko zuzendari Diaa Raxwanek. Kasu horretan, preso eta gatibu gehiago askatuko lirakeela esan du.

Arabiar Ligarentzako hori ez litzateke nahikoa, eta su eten iraunkor bat eskatuko dute NBE Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluan. Jordaniako Atzerri ministro Ayman Safadik nabarmendu zuen Israel ezin dela egon «nazioarteko zuzenbidearen gainetik», eta Kontseiluari ohar-tarazi zion Israelen «basakeria betiketzaeren erantzule» izango dela Tel Aviv erasoak geldiaraztera behartzen ez badu.

Su etenak balio izan du Gazara laguntza humanitario gehiago bidaltzeko. Israelek horretarako baimena eman zuenetik —urriaren 21ean— jaso duen kopururik handienean iritsi da zerrendara azken bi egunetan. Elikagaiak, sendagaiak, oheak, kanpin dendak eta erregaia banatu dituzte. Azken horri dagokionez, gasa jaso dute lehenengoz. Haren behar handia dute Gazan, besteak beste, ospitaleetan zerbitzua emateko eta ura gatzgabetzeko instalazioak martxan jartzeko. NBERen arabera, 137 kamioi sartu ziren herenegun zerrendan, eta kopuru hori atzo 340ra heldu zitekeela esan zuen Egiptoko Gobernuak. Bestalde, herritarrek bonbardaketen etena baliatu zuten hurrengo egunetarako elikagaiak biltzen saiatzeko, beren senideak nola dauden bertatik bertara ikusteko, beren etxeek zutik jarraitzen duten argitzeko eta hurbilekoen gorpuak hondakinen artean ateratzeko.

#### Erabateko etenik ez

Su etena indarrean bada ere, erasoak ez dira guztiz desagertu. Gazan, Israelgo indarrek palestinar bat hil zuten herenegun, eta dozenaka zauritu zituzten, NBERen arabera. Menia ezarri ondorengo orduetan, milaka palestinarrek hasi zuten Gaza hegoaldeko iparralderako bidea, eta Israelgo soldaduek tiro egin zieten horietako batzuei.

Bestalde, Zisjordaniako Qabatiya herrian, Israelgo indarrek beste palestinar bat hil zuten tiroz atzo, sarekada batean. Urriaren 7tik, ugaritu egin dira armadaren operazio militarrek Zisjordanian, eta, orotara, 3.100 palestinar baino gehiago atxilotu ditu. ●

#### Gorka Berasategi Otamendi

Su etenaren bigarren egunean, Gazako milizien gatibuen eta preso palestinarren arteko beste truke bat espero zen atzo. Edizio hau ixterako egin gabe zegoen oraindik, baina Qatarrek adierazia zuen azken orduko zailtasunak gainditu zituztela. Hamasek gatibuak aske uzteko erabakia atzeratu zuen, Tel Avivi leporatuta ez ziola giza laguntzari Gaza iparraldean sartzen utzi. Israelgo Espetxe Zerbitzuak jakinarazi zuenez, 39 preso aske uzteko ari zen prestatzen, eta Hamas hamahiru gatibu askatzekoa zen. Tel Avivek eta Gazako miliziek adostu duten su eten akordioaren parte da trukea. Lau eguneko tregoa, miliziek 50 gatibu askatzeko konpromisoa hartu dute, eta Israelgo Gobernuak 150 preso palestinar askatuko dituela hitzeman du. Akordioak jasotzen du su etena egun gehiagotan luzatzeko aukera, Gazako talde armatuek gutxienez hamar bahitu askatzen badituzte meniak irauten duen egun bakoitzeko. Luzapen horri buruz baikor mintzatu ziren AEBak eta Egipto, «aukera erreala» dela eta «keinu baikorrak» daudela iritzi-ta.

Aurreikusitakoa betez gero, herenegungo bide bera erabili behar zuten bi aldeek gatibuak eta presoak trukatzeko. Gazako miliziek Gurutze Gorriaren esku utzi

## Su etena luzatzeko «aukera erreala» eta «seinale baikorrak» ikusten dituzte

- AEBen eta Egiptoren iritziak, bideragarria da tregoa egun batzuk gehiago irautea.
- Gazak orain arteko giza laguntza handiena jaso du azken bi egunetan, Israelek konboi humanitario batzuk baimendu zituenetik.

behar zituzten bahituak, eta horiek Egiptora eraman, Rafah pasabidetik. Egiptok Israeli entregatu behar zizkion ondoren. Bahituak libre, Tel Avivek Zisjordanian askatuko zituen preso palestinarrik, Ramallah kanpoaldean dagoen Ofer kartzelan. Israelgo Espetxe Zerbitzuen arabera, 24 adingabe eta 18 emakume askatzekoa zen.

Herenegun, su etenaren lehen egunean, Israelek beste 39 preso

palestinar askatu zituen —guztiak adingabeak edo emakumeak— eta miliziek beste 13 bahitu israeldar utzi zituzten libre. Horiez gain, Thaiandiako hamar herritar eta Filipinetako bat ere askatu zituzten, Iranek hala eskatuta. Akordioaren urraketa larririk ez bada, su etena luzatzeko aukerarik badela uste dute AEBek eta Egiptok. Bi herrialde horiek izan dira, Qatarrekin batera, tregoa bitartekariak. AEBetako

presidente Joe Bidenek herenegun gauean adierazi zuenez, menia luzatzeko «aukerak erreala dira». Dena den, ez zuen lotu luzatze hori gerraren amaierarekin. Bidenen esanetan, «zilegi» da Israelek « Hamas suntsitzeko helburua » betetzea.

Egiptoren iritziak ere bideragarria da su etena luzatzea, «seinale baikorrak» jaso baititu bi aldeetatik. Egipto «kontaktu bizietan» dago engaiatuta, su etena «egun bat



SERIEA



GAZAKO EGUNEROKOA (12)

# «Mundutik bereiz utzi gaituzte»

Atef Abu Saif Palestinako Aginte Nazionaleko Kultura ministroa eta idazlea da. Urriaren 7an Gazan zen, eta han gelditzea erabaki zuen Israelen eraso hasi zenean. Bertatik idazten ari den egunerokoa BERRIaren esku jarri du, eta egunez egun argitaratuko da.

Testua **ATEF ABU SAIF**

Itzulpena **BERRIAKO EUSKARA TALDEA** Ilustrazioa **EIDER EIBAR**

## Urriak 28, larunbata

**H**asi al da lurreko inbasioa?». Inork ez daki. Atzo arratsaldeko seiak eta hogeian, alde guztietan aditzen ziren eztandak. Lagun batzuekin eserita nengoen aitagarrebaren etxearen aurrean, eta, halako batean, danbateko ikaragarri batek astindu gintuen guztiok. Gero, ehunka tanke eta gerraontziren balak pasatu zitzaizkigun gainera, burrunban, mendebaldetik iparralderantz. Bazirudien ondoko etxeetan jo zutela eraso. Leherketak kontatzen saiatu ginen hasieran: bat, bi, hiru... hamar... hamabost... hogeita hamabost. Jolasa nazkagarria egin zitzaigun, eta konturatu ginen hurbil adituta ere esparrutik kanpo ari zirela, mendebaldean eta iparraldean. Argi dirdira handi bat

bakarra izaten da, eta hiruzpalau eztanda gero. Argialdi bakoitzaren ondotik poliki-poliki kontatzen dugu, nontsu izan den kalkulatu nahian. Yasserrek gogora ekarri du bere zientzia eskoletako bat, nola esplikatu zioten segundo bakoitza milia bat dela. Bat-batean, leherketa segida bizkor bat izan da, oraingo honetan etenik gabea. Badirudi ez direla sekula bukatuko. Gure amaren lehengusu Hayat-ek honela esan du: «Gauerdian su etena izango da, eta horregatik ari dira orain gogorrago». «Su etena?», erantzun diot, hitza esate hutsak hunkituta. Hayatek norbaiti aditu omen dio: su etena izango omen da, gatibuak eta bahituak trukatu ahal izateko. Hemen bildutakoetako batzuk —hamar bat gara— deseaten daude, ea noiz iritsiko tregoa ekarriko lituzkeen ordu atsedenezkoak. Aitagarrebari, berriz, modua emango lioke alabaren, haren senarraren eta haurraren gorpuen bila aritzeko, badira-eta hamar egun hondakinen azpian daudela.

Su etenetan, israeldarrek beti eginahal



**SAMINA.** Emakume palestinar bat, negarrez, eraikin hondakinen artean, Gaza hirian. MOHAMMED SABER / EFE





**8**  
**Bertsolaritza.**  
Nerea Ibarzabal  
garaile, Bizkaiko  
Bertsolari  
Txapelketako azken  
kanporaketan.



**9**  
**Musika.**  
Bob Dylanen  
kontzertu bati  
begiratu dio Cat  
Power taldeak bere  
azken diskorako.

**berria**

2023ko azaroaren 26a, igandea

# NASAN

Ibon Aranberrik  
azken 30 urteetan  
sortutako lanen  
arteko elkarrizketa  
proposatzen du.

**Atzera  
begirakoa,  
Reina  
Sofia  
museoan**





**Itziar Ugarte Irizar**

DEBA— Nazioartean oihartzunik handienetakoa duten euskal artistetako bat da Ibon Aranberri, baina, «artista gisa», hau da argazkitan Itziarren ateratzen den aurreneko aldia, eta keinua nabarmendu du. Dioenez, denbora darama «kanpotik eraikitzen den artista identitatetik» iheska, baina, aldi berean, datozen asteetan Madrilgo Reina Sofia museoan bere izena ikusiko du handi-handi, eta «kontraesan hori kudeatzen» igaro ditu erakusketa lantzen egon den hiru urteak. «Baina horiek nire barne sentipenak dira; beste gauza bat da han zer egongo den», esan du. Eta egongo dena zera da: azken 30 urteetan Aranberri egindako lanen eguneratze eta elkarrizketa bat. 50 bat lan dira denera; formatuak, askotarikoak —«pintura ez, beste guztiak»—. Martxoaren 11ra arte egongo da erakusketa Madrilén, Vista Parcial izenpean; Gasteizko Artiumera iritsiko da gero, apirilean.

**Nola heltzen da halako tamainako erakusketa bat?**

Badaude aurrekari batzuk. 2010ean egin nuen erakusketa berezi bat, Silosko monasterioan [Burgosen, Espainia], eta programa hura Reina Sofia museoak kudeatzen zuen. Balio izan zuen hizketan hasteko, eta handik urtebetera beste erakusketa bat egin nuen, bakarkakoa, Bartzelonan, Tapiés fundazioan, eskala horretan izan dudak bakarra. Gero, irakasle ibili nintzen Eskandinavian, baina lan asko handik datoz.

**Ekoizpen berririk badago?**

Ez, baina horrek ez du esan nahi berrikuntzarik ez dagoenik. Gehiago dira genealogiak, eta erakusketa honen bereizgarria hori izango da: lanen artean ez dago sorpresarik; lan horien eguneratzean dago saiakera nagusia.

**Nolatan hori?**

Atzera begirakoaren formatuak nolabaiteko kontsakrazio bat ematen dizu, baina artistok nahi duguna bizirik jarraitzea da. Atzera begirakoetan, ohikoa izaten da lan zaharrak eta zerbait berria aurkeztea, baina berri horrek besteak zahartzen ditu, nire us-tez ez dena egokia; lanak bizirik dauden heinean ez direlako egonkortzen. Hor mutazio moduko batzuk izan dira, eta lan batek

bestera zaramatza... Lan hauek batera ez ditut sekula jarri, eta niretzat, emozionalki, ez da erraza leku horietara bueltatzea. Nire mamua beti da erakusketaren artistaren ispilu bihurtu nahi izatea: «Hau naiz ni» esatea. Nola mantendu zure hauskortasuna, zure poetika pertsonalak, eta, aldi berean, halako leku erraldoi batean agertu. Erakusketaren funtsa tentsio hori da. Nire erronka guztien erdigunean kokatu dut, eta harakiri bat izan da ia-ia. Horregatik saiatu naiz lanak desegonkortzen, eta ez jartzen modu kanoniko eta afirmatibo batean. **Zer beste erabaki ekarri du horrek?**

Bat izan da erakusketaren ibilbidea ez izatea kronologikoa eta izatea asinkronikoa. Nire lana ez da inoiz izan konstantea, mila

istoriotan ibili naiz, eta ez dut ulertzen artistaren praktika produktorearen zentzuan. Erakusketaren duena ez da hainbeste lanen izaera, baizik lanen antolaketa, haien arteko erlazionalitatea. Hamabi bat salaz osatuta dago, eta horrek ere, halabeharrez, ezartzen dizu eginbide bat. **Pisu nabarmena duen erakunde bat da Reina Sofia. Nola ikusten duzu zuk?**

Uste dut kasu paradoxikoa dela. Badu oso kutsu *mainstream*-a, baina azken hamabost urteetan egon den zuzendariak, Manuel Borja-Villelek, lortu du, onartzu lekuaren izaera boteretsu hori, bestelako narratiba batzuk txertatzea: historia postkoloniala, feminismoa, modernitatearen kritika, kritika instituzionala... Esango nuke nire erakusketa hortik ere

badatorrela. Beste kontu bat da hori zenbateraino sostengatzen den, eta gainera dauden geruzak ez ote diren zurrungoak. Baina, programatikoki, kasu berezi bat da niretzat.

**Borja-Villel eta Artiumeko zuzendari Beatriz Herraiz izan dira, hain justu, Vista parcial-en komisarioak. Nola lotuko dira Madrilgo eta Gasteizko erakusketak?**

Erakusketa bat da, lanak bertsuak izango direlako, baina erakusketa oso ezberdinak izango dira. Argitalpen bat ere egongo da, eta testu ekarpenetan bi alde jasoko ditu: Miren Jaiorena —eta berak ia-ia espazio intimo batetik idazten du—, eta testuingurua ezagutzen ez duen norbaitena. Interesatzen zait hori, arteak funtzionatzen duelako artistaren intentzioez

harago. Era berean, artelanen nolabaiteko polisemia bat defendatzen dut; gauza batzuk modu batean ulertuko dira Madrilén, eta beste modu batean Gasteizen. Modernitateak egoera simultaneoak sortu ditu munduan zehar, nahiz eta elkarren kontzientziarik ez izan. Nik, nire ibilbidean, irrika berezi bat izan dut modernitatearen tradizioari buruz. Nahiz eta gu ez izan horren parte guztiz. Eta hor dago gaur egungo kritika ere; modernitatea oso eraikuntza maskulino eta totemikoa izan da, mendebaldarra, maila batean; denbora behar izan dugu aurkitzeko modernitate periferikoak, eta ulertzeko gu ere ez ote garen periferia horren parte.

**Gu esaten duzunean, zeinetaz ari zara?**

Euskal Herria, esate baterako.

# IBON ARANBERRI

## «Harakiri bat izan da ia-ia»

Testua **ITZIAR UGARTE IRIZAR**  
Argazkia **GORKA RUBIO / FOKU**





## Madrilgo Reina Sofian atzera begirakoa irekiko du asteartean. Ibilbidearen errepaso hutsetik urrun, lanen eguneraketa bat prestatu du. Artiumera iritsiko da handik.

Ibon Aranbarri artista, Itziarren (Deba). GORKA RUBIO / FOKU



Ez da erraza. Instituzioek bereganatu dute heziketaren misio bat, defendatuz publiko guztientzat izan behar duela irisgarria arte garaikideak. Askotan ematen du dokumentazioa txertatuta horretan laguntzen ari zarela, baina modernitatearen frakaso bat da hori. Modernitateak beti aldarrikatu du artelaneak, ikurrek, arkitekturek transformazio eragiketarako sortzen dituztela zeinu bilakatzen diren heinean. Uste dut galdu egin dela nolabaiteko irisgarritasunaren aldeko erradikaltasun bat. Ni ez naiz gai erakusketa honetako gauza batzuk irisgarri egiteko. Artistikotasunaren galera bat dakar. Mediazioa eraiki behar da, baina beste modu batera. Galdera ez da «zer esan nahi du?». Galdera da: «Zer da?». Hori galdutako borroka bat da. Errepresentazioan eta kontakizunaren erotikan gaude. **Bilboko industriari lotuta dago *Política hidráulica* ere; argazkiak egin zenizkien urtegei.**

Bai. Bilboko industrializazioa niretzat bikoitza izan zen: Iberiar penintsulako lurralde txiroetatik etorritako migrazioa eta hustuak izan diren lurralde horietan izan den estraktibismoa, zer eta argindarra sortzeko Bilboko industriaren indar erraldoiarentzat. Hori Bilboko bankaren, industriaren eta Euskal Herriko ingeniariaren artean gertatu da; hortik Iberdrola eta bestelakoak.

Esango didate... «Ados, baina hori ez da ikusten lanean». Ez da ikusten, baina intrahistoria horregatik ez balitz, nik ez nuen lan hori egingo. Lehen esan dudan zeinu izaeragatik da; nahi baldin badugu kontatu memoria horren analisi kritiko bat, badaude soilik artistikoak ez diren baliabideak. **Lanik berriena zein izango da?**

Joan den urtean egin nuen bat. Liebanako [Espainia] herrirka batean bizi da Filiep Tacq, eminentzia bat artisten argitalpenetan, eta eskatu zidan bere estudioan zerbait egiteko. Arantzazuko egutegiaren moduko orrietan, berak sortzen zuen azala, ia-ia Erdi Aroko sistema bat erabiliz, eta nik idazten nuen atzeko aldeko literatura. Hiru hilabetez, egunero-egunero. Orain hori horman zabalduko dugu, eguneroko bat bezala. Niretzat oso ederra izan zen, ze idazten asko sufritzen dut, baina gozatu ere asko egin dut.

(HURRENGO ORRIALDEAN  
JARRAITZEN DU) →

«Nire mamua beti da erakusketa artistaren ispilu bihurtu nahi izatea: 'Hau naiz ni' esatea»

«Gauza batzuk Madrilen ulertuko dira modu batean, eta Gasteizen beste modu batean»

«Uste dut erradikaltasun bat galdu dela irisgarritasunaren alde»

«Subjektu artistikoa bada niretzat artistaren lekua politizatze modu bat; ahalduntzekoa»

Uste dut modernitatearen bulkada horrek bazuela nahi unibertsalista bat sinesten zuena artea geografiaz haragoko hizkuntza bat izan zitekeela. Oso kritikagarria, baina esango nuke nire lanak izan duela irrika hori; ziur aski, abstrakzioarako joera batean antzematen da. Abstrakzioarako tradizioa eta arte kontzeptuala izan dira bi mutur niri lagundu didatenak nire burua kokatzen, korapilo guztiekin. Beste paradoxa bat da Lemoizko proiektu burutugabea izatea

zure lanik ezagunenetako bat. Suzko loreak bota nahi zenituen zentral nuklearraren gainean, baina ez zen posible izan azkenean. Zer harreman duzu harekin? Hor momentu bat izan zen Bilbon, Consonni proiektuaren sorreran. Proiektu bat egin behar nuen. Bi ikur hartu nituen —Guggenheim, Bilbo berria, eta Lemoiz, mapatik desagertua izan zena—, eta ideia zen ikustea ze elkarrizketa mota sor nezakeen bien artean. Gero, pentsatu dut: «Gutxiagorekin ezin

zinen konformatu?» [barreak]. Momentu fuertea izan zen: atzerrian bizitzetik nentorren, mende aldaketa, krisi aurreko urteak, ETaren azken-aurreko su-etena... ematen zuen edozer zela posible. Ikasketa prozesu handia izan zen, baina guztiz ezinezkoa. Halere, saiakera bera oso inportantea zen; mugak ukitzeko saiakera bat. Eta kobazuloa ixtearena, berdin [2007an, haitzulo baten sarrera tapatu zuen xafra metalikoz, zulo bat utziz saguzarren sartu-irtenerako]. Zergatik?

Hiriaren kontrapuntua da kobazuloa. Ez soilik ikur gisa, baita metodologia gisa ere. Ehunka bisitatu nituen, eta horrek markatu egin ninduen guztiz. Ixtea ondoren etorri zen. Bilbon muga topatu banuen, beste honetan ere bilatu behar nuen. Hirian ez nintzen gai izan; aldiz, hiritik at, hain erregulatuak ez dauden espazio horietan, posibilitateak handiagoak dira. Baina hori nola kontatzen da? Nola eramaten duzu erakusketa batera? Nola?



→ (AURREKO ORRIALDETIK DATOR)

**JAI Jarduera Artistikoaren Institutuan zabilta lanean, Itziar Okariz eta Asier Mendizabalekin batera. Nola doa?**

Azken urteetan nire inplikazio nagusia izan da. Aurten laugarren edizioa gauzatu dugu, eta emaitza oso ona da. Oso egitasmo zaila da, baina, era berean, oso ederra. Zaila, maila batean Troiako zaldi bat izan nahi duelako. Gai izan gaitezke instituzio edo munstro horien barnean kokatu eta hor posibilitate espazio bat eratzeko? Ariketa gisa, interesatzen zait. Alternatiba zein da? Nafarroako herri okupatu batera joatea guztiok? Niretzat, biak. Artistok gai izan behar dugu dagozkigun lekuak okupatzeko.

**Zer norabidetan ari zarete lanean?**

Finkatu dugun lehen galdera da zer den subjektu artistikoa. Eta bestea, kontzeptualki, sormenetik praktika artistikora desplazatzea. Horrek adierazten du ez dela guztiz beharrezkoa artearen autokontzientzia bat. Mediazio on bat eraikitzen bada, bestelako praktikak ere lekua izan dezakete; idazketak, zinemak... Gazteen ezaugarria ere praktiken dibertsitatea da. Ez da gure kasuan bezala «nik hau egiten dut», baizik «hau egiten dut, hori ere egiten dut, eta hori ere egiten dut». Izaera likido hori praktika artistikoaren zentzuan ulertzen dut; irekiera bat da.

**Eta subjektu artistikoa zer da zuretzat?**

Niretzat konkretua da: egiten duzun horren kontzientzia eta ardura hartzean dago. Gizarte neoliberalean, ematen du artista izateko ez dela beharrezkoa egiten duzun hori bilakatzea; baizik eta autonomia bat ematen diozu egin duzun horri, eta zu zara hori egin duena. Konplikatu da, baina subjektu artistikoa bada niretzat artistaren lekua politizatze modu bat; ahalduntzekoa. Gaur egun, dena da sormena, eta, noski, terminologia hori hedatzen denean inguruan, nahiz eta izan dezakeen arrisku atzerakoi bat, subjektu artistikoaren defentsa beharrezkoa da. Bestela, ematen du denak garelako balio erantsi produktibista bat sortzeko eragileak.

Gaurko *impasse* egoeran arteak nola erantzuten dio munduari? Tira, hitz lodiak dira, baina esango nuke badagoela artistaren aktibazio bat. Horrela bizi dut nik.



## «XX. mendeko errentak dira hauek; ez da berriz gertatuko»

I. Ugarte Irizar

DEBA— Arte sistemarekin kritikoa da Aranberri, eta, azken urteetan, zenbait instituziotan aldaketa zantzuak sumatu dituen arren, berriki Palestinako auziak ostera boterearekiko menpekotasuna ageri-agerian utzi duela iruditua zaio. Artisten «prekarizazio absolutua» ere oso du presente.

**Zer aldaketa nabarmen egon da arte instituzioen diskurtsoetan?** Nik ikusi dudana da egitura horiek oso azkar txertatu dituztela politika berriak, niretzat zuritze bat bezala; askotan, ahotsik erradikalenei lekua eskainiz. Konturatzeko naiz batzuetan inplikazio politikoaren kuota asetzat ematen dela genero identitatearen posizio batetik, baldintza materialetan sartu gabe. Aurreko etapa misoginoa izan da, eta horren aurrean kritika garbi bat egin dezakegu. Baina politika berrien

inguruko dialektika askoz konplexuagoa da. Badago jende bat oso irakurria, politika *queer* argi eta ederrekin, baina ez dituena mahai gainean jartzen bakoitzaren baldintza materialak eta biopolitika. Palestinako gatazkak oso agerian utzi du hori niretzat. Berdintasunaren eta ekologiaren diskurtsoetan inork baino azkarrago jarra hartu dutenak Palestinarekin blokeatuta daude orain; ezin elkartasun agiri simple bat sinatu. Oraintxe, Palestina anatema bihurtu da; interes handiak daude atzetik. Reina Sofiari dagokionez, ni erdian tokatu naiz.

**Diozunean ez duzula berriz halako erakusketa bat ezagutuko, tentsio horiengatik ere badiozu?** Gauza asko juntatzen dira, baina ikusten dudana gerra kultural bat da. Orain arte, eskuina ez da sartu ardura kulturaletan, baina iruditzen zait garai baten aldaketan gaudela. Orain arte posible zen, espazio *mainstream*-ak izanik ere, autonomia batzuk sortzea diskurtsoa modu batean lantzeko. Hori gertatzen zen inork ez zuelako muturra sartzen; 1990eko hamarkadan, gurekin Artelekun bezala. Politikariak ez ziren enteratzen, hori pentsatzen genuen. **Eta orain enteratzen dira.**

Bai, eta ikusten dugu. Tabakaleraren zeregina oso konkretua da: hiriaren *branding*-a, beste ekonomia batzuk aktibatzeke. Konplexutasun horretan guztian zer egiten duzu? Artelanak sortu? Prekarizazioa absolutua da, eta artista gisa biziraun nahi baduzu, soilik posible da norabide ezberdinetan lan egiteko gai bazara: artea sortu, klaseak eman, kolaborazioak, idatzi... Erakusketa bat prestatzea, txikia izanik ere, gutxienez urtebete da, eta

artistak ehuneko ehunetan egon behar du. Horretarako, beste guztia abandonatu behar duzu, eta orduan nola bizi?

**Zuk zer egiten duzu?**

Nik zorte handia izan dut. Bestelako lanak ere egin ditut, eta ez zait inporta hori. Orain, erakusketa dela eta, ezohiko egoera batean nago, ze beste guztia alde batean utzi dut. Baina museoak badaki aurrera begira hori ez dela eramangarria. XX. mendeko errentak dira hauek. XX. mendean, pintore batek egiten bazuen erakusketa bat Reina Sofian, artista horrek galeria batzuekin lan egiten zuen, bazeuden inguruan egitura batzuk etekin bat sortzen zutenak. Demagun Txillida bat. Sistema hori ez da aldatu, baina artearen ekonomia eta artistaren bizitza guztiz aldatu dira. Horretatik esaten dut: ez da berriz gertatuko.

**Artista gazteagoekin egotean, hori bera berresten dizute?**

Zer ordaintzen den eta zer ez, astakeria bat da. Eta hori guztia zeren arabera? Kapital sinbolikoa. Hori etereoa da, eta, hala ere, onartzen dugu. [Reina Sofian] halako erakusketa bat egin duten Euskal Herriko artistak bi dira: Cristina Iglesias eta Txomin Badiola. Hori beste garai bat da. Nik erakusketa egiten dut hor, baina nik ez daukat inguruan balio sinboliko horri erabilera bat emango dion egiturarik. Ez dakit interesatzen zaidan, bestalde. Izatekotan, nire lanaren parte bat egitura dagoelako. Baina zu 35 urteko gazteengana zoaz, eta ez daude hor.

Egia da, baina, Euskal Herrian badagoela mugimendu artistikoa. Jendea ari da, eta horretan asko sinesten dut. ●



«Gerra kultural bat ikusten dut. Eskuina ez da sartu ardura kulturaletan orain arte, baina garai baten aldaketan gaude»



ARTEA ETA ERAKUSKETAK



HEMEN DRAGOIAK DAUDE  
MIKEL OTXOTEN

ARTEA ABIAN  
San Telmo Museoa (Laborategia)  
Urtarrilaren 7a arte

GAUR



MIKEL LABOA...  
IZAN LITEKE KONSTELAZIO,  
IZAN GABE IZAR...

LITERAKTUM  
Okendo K.E.  
Urtarrilaren 27a arte



EUSKAL IRUDIGILEAK,  
20 URTE

Aiete K.E.  
Azaroaren 26a arte

AZKEN  
EGUNA

GREGORIO ORDÓÑEZ.  
BIZITZA POSIBLEA  
LA VIDA POSIBLE

Aiete K.E.  
Abenduak 01 - Urtarrilak 28

MUNDUARI BIRA  
80 EGUNETAN  
DAVID GUIRAO

Ernest Lluch K.E.  
Urtarrilaren 13a arte

ANTZERKIA



POSTDATARIK  
GABEKO GUTUNAK  
XAKE PRODUKZIOAK

Gazteszena (Egia)  
Azaroak 26. 19:30

GAUR



SUSTRAI  
ZIRKUSS KONPAINIA  
ZIRKU GARAIKIDEA

Gazteszena (Egia)  
Abenduak 01. 19:30

MIRA HADI  
LORALDIA PRODUKZIOAK!

Gazteszena (Egia)  
Abenduak 03. 19:30

EL REY QUE FUE  
ELS JOGLARS

Victoria Eugenia  
Abenduak 08-09. 19:30

LA CELESTINA  
ANABEL ALONSO

Victoria Eugenia  
Abenduak 16. 19:30

PENTSAMENDUA

VIDA, OBRA Y MILAGROS  
DE LOS AGUJEROS NEGROS  
SUPERMASIVOS

SILVIA BONOLI  
ZIENTZIAREN BIDE BERRIAK  
Ernest Lluch K.E.  
Azaroak 28. 19:00

DANTZA

BIHOTZEKO KORAPILOAK  
VERDINI DANTZA TALDEA

Victoria Eugenia Club  
Abenduak 03. 19:00



DANCE ME, MUSIQUE DE  
LEONARD COHEN  
BALLETS JAZZ MONTRÉAL

Victoria Eugenia  
Abenduak 05. 19:30

ZINEMA



LE PROFESSIONNEL (1981)  
NOSFERATU

Tabakalera  
Azaroak 29. 19:00

HAURRAK

EZ GARA JAITSIKO!  
PIRRITX, PORROTX  
ETA MARIMOTOTS

ANTZERKIA  
Intxaurrondo K.E.  
Abenduak 01. 17:00 + 19:00

MUSIKA



MYRA MELFORD'S  
FIRE AND WATER QUINTET

Victoria Eugenia Club  
Azaroak 29. 19:30



IKER LAUROBA &  
BESTE URTAROAK  
AZKEN KONTZERTUA  
DKLUBA

Imanol Larzabal (Lugaritz)  
Abenduak 01. 19:30

DONOSTIAKO  
CANTE FLAMENKOAREN  
XXII. LEHIAKETA

Antzoki Zaharra  
Abenduak 10. 18:00  
Artista gonbidatua: Rubio de Pruna

DIEGO VASALLO:  
MALO NI BUENO

Victoria Eugenia Club  
Abenduak 13. 19:30

MIKEL ERENTXUN:  
SEPTIEMBRE TOUR 2023

Victoria Eugenia  
Abenduak 17. 19:00



Ainhoa Sarasola

**B**ehatzaile aparta izatea. Gaitasun hori nabarmendu izan zioten Nadine Gordimer idazleari, beste hainbaten artean. Eta berak ere ezaugarri horri lotuta ulertzen zuen idazle langintza. «Abeslari batek kantatzeko ahots korda egokiekin jaio beharra dauka —nik bainugelan baino ezin dut abestu—. Eta idazle batek berdin; gizakiaren motibazio sakonenetaraino iristeko beharrezkoa den adorearekin eta sentsibilitatearekin jaio behar du». Horixe egiten zuen berak; behatu, eta, ondoren, ikusitakoak sorrarazten ziona narrazioetara eraman, apaingarririk gabeko prosa garden eta zuzen batekin. Apartheidaren garaiko Hegoafrikari jaioa izanik, segregazioaren auzia ezinbestean bihurtu zitzaion literaturarako gai, baita komunitate beltzaren aldeko militantzian engaiatzeko motibo ere. Idazle konprometitua, Literaturako Nobel saria irabazi zuen lehen emakumezko afrikarra izan zen, baita lehen idazle hegoafrikarra ere. Ehun urte bete berri dira Gordimer sortu zela.

Springs mehatzari udalerrian, Johannesburgo hiritik gertu sortu zen Gordimer, 1923ko azaroaren 20an. Juduak zituen gurasoak; lituaniar jatorrikoa aita, eta ingelesa ama. Dantzari izan nahi ei zuen txikitan, baina gaitz baten ondorioz, bestelako bide bat hartu zuen. Behaketarako zuen joerak bultzatuta hasi zen, ziurrenik, idazten, 9 urte baino ez zituela. 13 urterekin argitaratu zituen bere lehen ipuinak, prentsan; helduentzako lehen narrazioa 16 urte zituela eman zuen. Witwatersrand Unibertsitatean urtebete egin zuen, baina ez zituen ikasketak amaitu, eta 25 urterekin, Johannesburgon behin betiko kokatu zuen bere bizilekua.

Bere lehen eleberria 1953an argitaratu zuen: *The Lying Days*. Kutsu autobiografikoko kontakizuna da, zeinetan meatzari herri bateko neska bat Johannesburgora lekualdatzen den, familia girotik urrundu eta ingurune intelektual eta liberalago batean murgiltzeko. Urte berean plazaratu zuen *The Soft Voice of the Serpent* ipuin laburren bilduma; narrazio horietan ekin zion bere herrialdearen egoera aztertzeari, betiere arretagunea pertsonaien barne munduetan eta jarreretan kokatuz, baina atze-oihal gisa segregazioaren auzia agertuz.

Izan ere, ordurako jabetua zen bere herrikide beltzen zapalkuntza egoeraz; gazte garaitik izan zuen horren kontzientzia.



# Behatzaile konprometitua

Apartheidaren aurka borrokatu zen **Nadine Gordimer**, eta literaturarako gai ere izan zuen auzia. Nobel saria jaso zuen lehen emakume afrikarra, eta lehen idazle hegoafrikarra izan zen. Jaio zela mendea bete da asteon.

Bere eskolan neska zuriak baino ez zeuden, zinemara edo liburutegira joaten zenetan ez zuen sekula beltzik ikusten... 1960an, apartheidaren aurkako borrokari lotzea erabaki zuen; bere lagun baten atxiloketak eta Sharpeville herrian manifestazio baketsu batean Poliziak egindako sarraskiak eraman zuten urratsa egitera. Afrikako Kongresu Nazionalan,

klandestinitatean egin zuen lan, iheslariak etxean gorde zituen, nazioartera eraman zuen salaketa, eta Nelson Mandelari bere aurkako epaiketako hitzaldia idazten lagundu zion, besteak beste. Idazle gisa irabazten hasia zen sona sarri baliatu zuen ahotsa altxatu eta apartheida salatzeko.

Segregazioa bukatu arte jardun zuen borrokan, eta, ondoren ere,

beste hamaika auzitan erakutsi zuen bere konpromisoa. Tartean, adierazpen askatasunaren alde eginez. Hark ere ezagutu baitzuen zentsura garai hartan: *A World of Strangers* (1958) nobela ezin izan zuen Hegoafrikari publikatu —segregazioa oinarri duen Hegoafrikako gizartea deskubritzen duen gazte ingeles bat du protagonista—, ezta *Occasion*

*for Loving* (1963) —gizon beltz baten eta emakume zuri baten arteko ezinezko maitasun harremana— nahiz *The Late Bourgeois World* (1966) —emakume baten istorioaren bidez, herrialdearen erretratua egiten duena— eleberriak ere. Beste hainbat lan ere zentsuratu zizkion aginteak. Baina segitu zuen idazten, nobelak eta narrazio liburuak tarte-

LITERATURA. Gordimer, 2010eko argazki batean. ALEJANDRO ERNESTO / EFE



katzen, eta haren sona handituz joan zen nazioartean *The Conservationist* (1974), *Burger's Daughter* (1979), *July's People* (1981), *A Soldier's Embrace* (1980) eta beste hainbat lan eskerekin. 1991n jaso zuen Literaturako Nobel saria; «bere lan epiko apartekin giza-teriarri zerbitzu bikaina» eman izana aitortu zion epaimahaiak.

### Egiaren bilaketa

Gordimerrek ingelesez idatzi zuen bere obra osoa, eta, Coetzeearekin batera, XX. mendeko Hegoafrikako literaturako idazle nabarmenetakotzat jotzen da. Bere bizitza eta obra elkarri lotuta joan ziren ezinbestean, eta inguruak sorrarazten ziona maiz eraman zuen paperera. Berak ere iritzi izan zion idazleengan «erabateko eragina» duela bizilekuak, eta bera ez zela salbuespen bat horretan. Hegoafrikan ez beste herrialde batean jaio izan balitz, zer-nolako idazlea izango ote zen galdetzen zion bere buruari; eta, halere, ez zuen uste idazle batek «gatazkak edo gai handiak» beharrezko zituenik. Izan ere, haren hitzetan, «poesia, narrazioa, pintura... ez dira sortzen gertakarietatik, haien oihartzunetatik baizik».

Adituek maiz goretzi zioten errealtatearen eta fikzioaren arteko oreka maisuki menperatzea. Behatzearekin lotzen zuen, beste behin ere, langintza hori. Bizikide bat lotan ikustearekin alderatu izan zuen: «Gorputz horri begiratu, eta ezagutzen ez duzun zerbait baino ezin duzu ikusi, zuretzat sekretua den zerbait. Noski, idazleak osatu egiten du hori, asmatu egiten du». Haren ustez, «fikzioa barne munduaren esplorazioa» baita.

Idazketa egia bilatzeko tresna bat ere bazen Gordimerrentzat. Baina idazle bakoitzak «egiaren ale txiki bat» besterik ezin zuela antzeman ere argi zuen. Literatura zen harentzat mundua ulertzeko bidea. «Nik uste dut deskubritzeko prozesu batean gaudelako idazten dugula; bizitza esploratzen, gizakiek egiten duten historia, eta gizakiak egiten dituen historia. Erlitioak eta ohiturak esploratzen ditugu, horiek direlako giza izaeraren inguruan dauden egiturak». Bestela esanda: «Nor-bait atzerrira doanean eta gauza berriak ezagutzen dituen bezala da. Berdin gertatzen da liburuekin. Ezagutzen dugunaren eta ezagutzear gaudenaren arteko espazioa betetzen dute eleberriek».

Gordimer 2014ko uztailaren 13an hil zen, Johannesburgoko bere etxean. Haren lanik ez dago euskaraz argitaraturik. ●

### KRIKA

## Hemendik ez oso urrun

### Irati Majuelo

**I**bilbide luzeko idazlea da Juan Luis Zabala, eta askotariko genero eta estiloak landu ditu urteen joanean. Oraingo honetan, zientzia fikzioa jo du hamabost kontakizun laburrez osaturiko liburuan. Istoria bakoitza independentea bada ere, denek dute amankomunean AGK (Agin-taritz Global Konputarizatu) teknologia, gizateriaren egiturak, bizimoldea eta biziraupena antolatzen dituen adimen artifiziala. Izan ere, gizakiek euren burua gobernatzeari uko egin diote ipuin hauetan, dimisioa eman dute, liburuaren izenburuari keinu eginez.

Zientzia fikzioa tradizio luzeko generoa da, gureaz bestelako munduak imajinatzea, etorkizun posibleei buruz gogoetatzea duena ardatz. Horretarako, ekintza espazio-denborazko koorde-



'DIMISIOA'  
Egilea: Juan Luis Zabala.  
Argitaletxea: Susa.

natu imaginarioetan kokatu ohi da, balizko aurrerapen zientifikoei edo sozialei buruz hausnartzeko. Kasu honetan, Zabala Euskal Herria hartu du kokaleku nagusi, etorkizunean independente izango den herri bat aurkeztu du, hari buruzko zertzelada gutxi eskaini arren: AGK-k aginduta lortu da independentzia eta euskara da hizkuntza nagusia, nahiz eta aberastatsun linguistikoa galdu duen. Euskal Herritik kanpo ere,

### KRIKA

## Enpatia ariketa

### Imanol Mercero

**Z**er-nolako azal indartsua duen liburu honek! Badu, gainera, barruan zer aurkituko dugun iradokitzen ahala, zeren eta hemen barruan plazararako zezen bati gertatutakoa kontatzen baitzaigu, anekdota moduan.

Narratzaileak Pantxo zezenaren ikuspuntua ematen digu, ipuinetik bezainbat kronikatik duen moldean. Baserrian lasai nola bizi zen ikusten dugu, animalia adiskideekin batera, gizakirik gabe, gureetakoen arrastorik ez dago eta. Halako batean, ordea, zuri-gorritz jantzitako gizajendea agertzen da, kamioi batean sartu eta herriko festetara eramateko.

Ekintza bortsazkoa da, zezenaren gogoaren kontrako, hurrengo egunetan gertatuko zaionaren aurrekari. Plazan ibiliko dute, egunero, zuri-gorritz jantzitakoak airean ibiltze-



'Pantxo zezena'  
Idazlea: Pello Añorga.  
Ilustratzailea: Jokin Mitxelena.  
Argitaletxea: Denonartean.

ko, kopetakoka, adarkadaka. Eta, halere, gustura daudela dirudi! Pantxok egoera nola hala jasaten du, harik eta baten batek banderilla sastakatzan dion arte. Haren marruak! Orditik aurrera, Pantxoren ahalegin guztiak etxera bueltatzekoak dira, ihesean atzetik zapi gorridunak dituela.

Kontakizuna album ilustratu baten eran irakur daiteke, irudiek asko dute esateko, eta testua ikusitakoa janzteaz edota ñabardurak egiteaz arduratzen da. ●

### KRIKA

## Hau ez da 'Jaja' diskoa

### Imanol Mercero

**J**ajatxo protagonistak liburuari izena jartzen dio, eta ez alferrik, bere neurritan sortu dira-eta kontakizuneko ezagurri guztiak: Inor ez da ezer Jajaxorentzat ari ez bada, lekuri ez da Jajatxo handik ez badabil, eta gertaerak, gertaerak Jajaxoren izateko moduaren arabera dira.


Egun bateko kronika da, goizean jaikitzen denetik, gauean oheratzen den arte, herrian zehar nondik, nola eta zertan dabilen kontatzen diguna.

Pausaleku bakoitzean gertaera bat biziko du, ezustekoa beretzat, baina déjà vu moduko bat ingurukoentzat, Jajaxok memoria oso txarra omen daukalako, narratzaileak ohartarazten gaituenez.

Ipuinaren beste ezaugarri oso hanpatu bat da protagonistak hainbat hitzekin totelka egiten duela, eta, imitazioz-edo, narratzaileak ere bai.

kulturalak XX. mendekoak (Uztapide, Bowie, Kafka, eta abar), bizimoduan apenas dagoen aldaketarik adimen artifizialaren teknologiez gain eta harreman-ereduek bere horretan jarraitzen dute: familiar ardatzutako bikote heterosexualetan. Hortaz, espazio-denborak aldatu bai, baina ez dira eszenatoki berriak espekulatzen baliatzen.

Horrekin ez dut esan nahi genero hau ezaugarritzen duten hausnarketarik edota irakurketa politikorik ez dagoenik. Ironia eta idazkera argia lagun, utopia epela proposatzen baitu Zabala, gatazkari gabeko gatazka eragiten duena: ez dago gerrarik, planetaren biziraupena ziurtatuta dago, baina gizakiak bere burua gobernatzeko autonomia galdu du. Monitorizatutako bizitza horrek zenbait gai azaleratzen ditu: teknologiaren erabilera, kontrola, mesede-tratuak eta konspirazioak, besteak beste. Hala ere, idazleak panfleto-tonura jotzen du sarri, eta zenbait gai derrigortu samar lantzen direla sumatzen da. ●



'Jajatxo'  
Idazlea: Jabier Muguruza.  
Ilustratzailea: Concetta Probanza.  
Argitaletxea: Denonartean.

Ezaugarri horien guztien batura ez da desiragarriena izan, Gloria Fuertesena edota Quentin Blakeren dohainak eduki behar direlako halako baliabide narratiboekin emaitza itxurosoa lortzeko.

Indargunea nonbait edukitzekotan, Maite Larburuk egin dion audioan dago, QR bidez eskuragarri jarri zaiguna. ●





# Lemoatik aldran finalera

Lemoako saioko onena izan da **Nerea Ibarzabal**, eta Bilboko finalerako sailkatzea lortu du, 638 punturekin. Finaleko sailkapenean ere puntu gehien lortu dituena izan da. Onintza Enbeita izan da bigarren, 635,5 puntu lortuta

## Oihana Arana

Leporaino bete zuten 700 lagunek Lemoako Udal Kiroldetgia. Pankarta andana paretetan eta azken finalurrekoetan ohikoa zen tentsio solidoa giroan. Entzulea bertso gose zen, sarre-  
rak astebete lehenago agortuta zeuden. Nerea Ibarzabal izan zen nagusi, eta argitu zen zein izango den finaleko zortzikotea. Hiru saioretako irabazleez gain, Onintza Enbeita, Oihana Bartra, Gorka Pagonabarraga, Aitor Etxebarriazarraga eta Aissa Intxausti izango dira abenduaren 16ko fiinalean kantatuko duten

bertsolariak. Idoia Anzorandiak aurkeztu zuen saioa, eta agurrean Ibarzabalek aipatu zuen bezala, lagunarte ederrean pozik hasi ziren bertsotan. Zortziko handiko ariketan eguna batetik bestera pasatzen duen Intxausti ahizpari erritmoa jaitea iradoki zion Josune Aramendik. Greba feminista prestatzeko batzordetik etxera bueltan joan diren ama-alabak izan ziren Ibarzabal eta Bartra, zaintzaren pisuaz hizketan. Eta Ibai Amillategi eta Enbeita, te-  
lebistaren aurrean Palestinako irudiak ikusi ala ez erabakitzen egon ziren pisukideak. Ariketa guztietan egon zen azpimarratzeko modukorik, baina azkena

izan zen, akaso, publikoak txaloz gehien eskertu zuena.

Zortziko txikian ere, maila bertsuan aritu ziren bertsolariak. Bartra bezeroa eta Aramendi tabernaria izan ziren, aurrena parranda luzatzen, taberna itxi guran bigarrena. Etxera joateko motiborik ez zuela esan zion Bartrak Aramendiri tabernak *Gure etxea* izena zuenez gero. Enbeita eta Intxausti ganbaran kokatu zituen Anzorandiak. Enbeita ganbara zaintzailea izan zen, eta Intxausti bakarkakoa kantatze-  
ra atera nahi ez zuen seigarren aulkiko bertsolaria. Ibarzabal eta Amillategi alkoholemia kontrol baten egon ziren, bata udal-

tzaina eta bestea disimulatzeko kopilotuaren aulkian eseri zen auto gidaria. «Kopiloto esaiozu/ berehala argi/ putz egiteko lagun/ ikusezinari» hasi du ofizioa Ibarzabalek. Egiten ari zen hori udaltzainen eskumena ote den zalantzan jarri zuen Amillategik, eta diru truke ez ikusiarena egitera gonbidatu zuen azkenean.

Gehine txaloturiko ofizioa, hamarreko txikikoa izan zen: Intxaustiren eta Bartraren artekoa. Intxausti euskal preso politikoa, eta Bartra haren laguna. Aurrena laster kalera irtengo zela eta, zituen kezkei buruz berba egiten hasi ziren. Imajinaezintzat zeukan askatasunak sortzen zizkion beldurrak hizpide izan zituen Intxaustik, eta babesa adierazi zion Bartrak une oro. «Nire zalantza denak/ oin ezin ezkuta/ baina seguru nago/ banago galduta/ eramango nauzula/ eskutik helduta» kantatu zuen azken bertsoa Intxaustik eta «zuretzako ez al da/ azkenik *summuma*/ zuk erabakitzea/ egiten duzuna?» amaitu zuen ariketa Bartrak.

## Gorputzari begira

Ganbarako atalean bi ariketa egin zituzten bertsolariek. Bi punturi erantzun, eta, gaia emanda, hiru bertso kantatu gero. Puntu erantzunetan umetako ametsen berri galdetu diete, eta, oro har, bertsolari izatearekin lotutakoak kontatu dituzte bertsolariek.

Hauze zen bakarkako gaia: «Gero eta gehiagotan egiten duzu. Inork ikusi barik egiten ahalegintzen zara». Intxausti izan zen gaiari heldulekurik ezberdinena topatu zion bertsolaria. Ligatzea gustatzen zaion, baina ekintza hau ezkutuan egiten duen 30 urteko pertsonaren larrutik abestu zuen. Gainontze-koek elikadura nahasteekin eta gorputz irudiak sortutako minekin zerikusia izan zuten bertsoak josi zituzten. Ibarzabalek amaierako agurrean esan zuen bezala, zerbaiten seinale da horrenbeste anorexia. Ganbarako biribilena Ibarzabalena izan zen: «Estomagoa egin zait/ besteen begien neurrira/ eta nahi ez dudana arren/ beti alditik aldira/ nahigabe joaten zaizkit/ atzamarra ez tarrira» esanez amaitu zuen lehengo bertsoa. Eta hau izan zen hirugarrena: «Gustura astindu arren/ feminismoan banderak/ aldiro bahitzen nau ni/ barrualdeko gose grebak/ murriztuaz zoriontsu/ bilakatzeko aukerak/ autoestimua ebakiz/ zorroztasunaren segak/ berriz mahaira itzuli naiz/ bajatuta eskailerak/ eta amak «zer zelan zaude?»/ arraro esan dit berak/ eskatu nahiko nioke/ salbazio posible bat/ arren sartu atzamarra/ eta aterazkidazu berbak». ●

**SAILKATUTA.** Nerea Ibarzabal, atzoko saioan. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

## Sailkapena

### SAIOKO SAILKAPENA

Nerea Ibarzabal	638 p.
Onintza Enbeita	635,5 p.
Oihana Bartra	610, 5 p.
Aissa Intxausti	580 p.
Ibai Amillategi	571 p.
Josune Aramendi	567, 5 p.

### FINALISTAK

Nerea Ibarzabal	638 p.
Onintza Enbeita	635,5 p.
Jone Uria	631 p.
Xabat Galletebeitia	616 p.
Oihana Bartra	610 p.
Gorka Pagonabarraga	604 p.
Aitor Etxebarriazarraga	585 p.
Aissa Intxausti	580 p.



# Gogoan iltzatutako une bat

Bob Dylanek 1966an Manchesterren eman zuen kontzertua berregin du **Cat Powerrek** 'Cat Power Sings Dylan. The 1966 Royal Albert Hall Concert' diskoan

Mikel Lizarralde

Beste artista batzuen bertsioz osatutako diskoak ez dira, sarritan, oso estimatuak. Badira, halere, bertsioei mira berezia dieten nortasun handiko musikariak. Horietako bat da, ezbairik gabe, Chan Marshall. Cat Power izen artistikoarekin garatu duen ibilbide luzean, hiru disko eskaini dizkie bereak ez diren kantuei. *The Covers Records*-ekin estreinatu zen —besteak beste, The Rolling Stones, Bob Dylan eta The Velvet Undergrounden kantuak berrinterpretatuta—; *Jukebox* (2018) iritsi zen gero —James Brown, Billie Holiday, Janis Joplinen kantuekin—; eta 2022koa du bertsioen eremuan egindako azken ahalegina, *Covers* —Frank Ocean, Lana del Rey eta The Poguesen bertsioak azaltzen ziren, besteak beste—.

Oraingoan, berriz, rockaren historian iltzatutako une jakin bati begiratu dio, eta Dylanek 1966ko maiatzaren 17an Manchesterko (Ingalaterra) Free Trade Hall aretoan eman zuen kontzertua berregin du Cat Powerrek, hark ere zuzenean: *Cat Power Sings Dylan. The 1966 Royal Albert Hall Concert*. Dylanen Manchesterko kontzertu hura historiara igaro zen, formatu elektrikoa besarkatu zueneko une huraxe islatu zuelako, eta folk komunitatearen artean, aurretik Newporteko jaialdian gertatu zen bezala, hautsak harrotu zituelako. Manchesterko kontzertuaren grabazioa disko piraten bitartez zabaldu zen urteetan, eta denbora luzez uste izan zen Londresko Royal Albert Hallen egindako ekitaldiaren grabazioa jasotzen zuela. Horregatik, Dylanek berak, keinu gisa, *Bob Dylan Live 1966, The 'Royal Albert Hall' Concert*

izenburua jarri zion *The Bootleg Series*-eko laugarren atal gisa argitaratu zuenean.

## Miresmen erakustaldia

Aurreko bertsio diskoetan erakutsia zuen Cat Powerrek Dylanekiko miresmena, eta *Kingsport Town*, *Paths of Glory* eta *I Believe in You* zituen bere eremura eramanak. Horregatik, 2022ko azaroaren 5ean Royal Albert Hallen kontzertu bat emateko proposamena egin ziotenean, berehala hartu zuen erabakia: 1966ko emanaldi hartan entzun ziren piezak berrinterpretatu zituen. Dylanek bezala, bi partetan banatu zuen Cat Powerrek Londresko kontzertua. Lehenengoan, gitarra eta aho soinu baten laguntza hutsarekin, modu akustikoan berreskuratu zituen *She Belongs to Me*, *Fourth Time Around*, *Visions of Johanna*, *It's All Over Now*, *Baby Blue*, *Desolation Row*, *Just Like a Woman* eta *Mr. Tambourine Man*. Ez da berrinterpretazio horietan Dylanen kantutegia iraultzeko asmorik sumatzen. Eta, hala ere, Cat Powerrek bere egiten ditu kantuak, berak edo beretzat idatziak balira bezala.

Bigarren partean, Dylanek egin bezala, talde elektriko batek lagunduta jo zituen, bata bestearen segidan, *Tell Me Momma*, *I Don't Believe You (She Acts Like We Never Have Met)*, *Baby*, *Let Me Follow You Down*, *Just Like Tom Thumb's Blues*, *Leopard-Skin Pill-Box Hat*, *One Too Many Mornings* eta *Ballad of A Thin Man* —ez da falta, azken horren hasieran, Dylanen grabazioan bezala, Marshalli Judas deitzen dion publikoko pertsona baten oihua—, eta kontzertua *Like a Rolling Stone* klasikoen artean klasikoenarekin amaitu zuen, une errepikaezin bat eskaintzen ari zen jakitun. ●



MUSIKA. Cat Power, 2022ko urrian, Txilen emandako kontzertu batean. ELVIS GONZALEZ / EFE

## GUGGENHEIM BILBAO



Infinítua  
neurtzen

Midiendo  
el infinito

Measuring  
Infinity

Occident






## ELEFANTEEN ZIMETERIOA

Iban Zaldua


**L**erro hauek idazten ari naizenean ezin dut burutik kendu Gazaren biztanleria zibilaren aurka Israelgo armada aurrera eramaten ari den sarraskia. Zaila da beste ezertan pentsatzea edo aritzea Europar Batasunaren (hots, gu guztion) zeharkako babesarekin halako zerbait gertatzen ari denean Mediterraneoaren atarian, hots, gure ondoan: Ukrainako gerrako frontea bezain hurbil dago gugandik Palestina, ez bada pittin bat hurbilago. Eta zein erantzun ezberdin eman diegun, politikoki, gatazka biei. Egia esateko, mundu gaingaratu kapitalistako ilustrazioaren ideien zabalkuntza historikoaren eta, XX. mendeko Mundu Gerrez geroztik, mugimendu antimilitaristaren eta bakezalearen porrota berresten dute gerra bi horiek. Bai, ezkor nago. Eta, agian horregatik, beldur naiz, ez zait artikulu bereziki biribila aterako oraingoan. Gerren aurkako hiru album elkartzeko asmoa neukan, baina, bila eta bila, onartu beharrean nago ez direla asko sail honetarako planteatu nituen baldintzen pean bil dezake-danak: rockaren mundukoa izatea (horretaz dihardute Elefanteen Zimenterioaren aleek, gainbeheran doan musika popularraren adar horretaz, gure belaunaldiaren soinu-banda nagusiaz), eta nire disko-bilduma partikularrean egotea. Ohartu naiz gerraren aurkako eta bakearen aldeko kantak, bai, ehunka daudela, baina gaiari buruzko disko osoak, ez hainbeste. Normala dena, albumak, kontzeptualak ez badira behintzat, askotariko kanten sortak direlako, oro har. Badaude, halere, gerraren aurkako aire orokor hori biltzen duten zenbait disko nire diskotekan, akordura etortzen zaizkidanak: Emerson, Lake and Palmer-en *Tarkus*, John Lennon-en *Imagine* saihestezina, Marvin Gaye-ren *What's Going On*, The Sound taldearen *Jeopardy* (*Missiles* kanta beti aldarrikagarrarekin), U2ren mesianismoa oraindik jasangarri samarra zen garaiko *War* (hain zuzen)... Hona hemen gaurko aukeratu ditudan beste hiru, edonola ere. ●



## Jefferson Airplane Volunteers (RCA Victor, 1969)

Egia da (Grateful Dead-ekin batera) San Frantziskoko hippismoa eta psikodelia hobekien haragitzen zuen Jefferson Airplane taldearen lehenengo etapako ia edozein album ekar nezakeela hona, guztietan antzematen delako, gehiago edo gutxiago, Vietnamgo gerraren aurkako protestaren taupada, mugimendu antimilitaristaren mugari historikoetako bat alegia. Baina agian hemen da ageriko burrenba hori, diskoaren azal ikonikotik hasita, beste Amerikako Estatu Batu batzuk posible zirela aldarrikatzen zuena, ozen: *boluntario* horiek ez dira, hitzaren esanahi arruntari izkin eginez, gerrara joan nahi zutenak, herrialde berri bat eraiki asmo zutenak baizik. Bestalde, oso disko ona da, taldeak egin zuen onena ziurrenik: aurreko albumetan jorratutako estilo diferente guztiak biltzen dituzte, folk-rockarekin eta country-rockarekin lotuago daudenak (*Good Shepherd*, *The Farm*), alde batetik, eta Mendebaldeko Kostaldeko rock *azidoa* delakorekin identifikatu daitezkeenak, bestetik (*Hey*, *Fredrick*, *Eskimo Blue Day*). Baina, batez ere, himno kontrakulturalak daude: Pantera Beltzen borrokari erreferentzia egiten dion diskoaren hasiera indartsua (*We Can Be Together*), lana esanguratsuki ixten duen *Volunteers* espantsiboa, eta diskoaren harribitxia, *Wooden Ships*, holokausto nuklearraren inguruko abisu-abesti klasikoak, taldeko gitarrista Jim Kantnerrek David Crosby eta Stephen Stillsekin konposatu zuena (Kaliforniako musikari komunitatearen arteko *buenrollismoaz* zerbait esaten digu horrek), eta Crosby, Stills & Nashen ere grabatu zutena. Nik, gehienetan, bertsio hura dut gogokoago, baina onartu behar da Airplanekoen honi indar berezia ematen diola Grace Slick kantari handiaren interpretazioak. ●

# Gerraren aurkako hiru disko



## Pink Floyd The Final Cut (Harvest, 1983)

Aipatu dut hemen lehenago: Pink Floyd nire nerabzaroko talde kutuna zen, eta hau izan zen, horretaz kontziente nintzela, argitaratu zuen lehen albuma. Uler dezakezue, beraz, zenbaiterainokoa izan zen nire dezepzioa, eta beste fan askorena, *The Final Cut* atera berria entzutean: ez zegoen konparatzerik, mailan, *The Wall*-ekin, edo haren aurreko beste edozeinekin. Ez da harriztekoa: taldea desegiten ari zen, Richard Wright teklista kanporatuta zegoen, eta David Gilmour gitarristak, alferkeriak jota, ez zuen ekarpen bakar bat egin. Izan ere, hau, Pink Floyden formazio klasikoaren azken diskoa baino, Roger Watersen bakarkako lehenengotzat jo daiteke ia. Album guztiz kontzeptuala ez bada ere, mezu antimilitarista da bertan nagusi. *The Wall*-en grabaziotik sobratutako txataletatik abiatuta, nabaritzen da Gerra Hotzaren gogortze fase betean idatzi zela (entzun *The Fletcher Memorial Home*, zeinetan Reagan, Thatcher, Brejnev edo Begin bezalako garaiko mundu mailako liderrei amaiera krudel bat desiratzen baitzaie, edo *Two Suns in the Sunset*, gatazka nuklearrarekiko beldurrari buruzkoa), eta baita Malvinetako gerraren testuinguruaren erdian ere (cfr. *Southampton Dock* edo, askoz ere modu zuzenagoan, *Get Your Filthy Hands Off My Desert*). Baina, tira, Pink Floyd klasikoaren album ez bereziki on bat beti da garantia handiagoa beste talde askoren disko onena baino, eta esango nuke urteek on egin diotela (Waters gabeko Pink Floyd gilmourtarren hurrengo ez bezala). Waters, bide batez esanda, Israelen interesen kontrako BDS boikot-kanpainaren aitzindarietako bat da egun, eta jarraitzen du kausa antimilitaristarekin engaiatuta, 2017ko *Is This The Life We Really Want?* bezalako album estimagarriek erakusten duten bezala. ●



## Marillion Sounds That Can't Be Made (Ear Music, 2012)


Aitor dut: Marillion nire *guilty pleasure* (ugarietako) bat da. Peter Gabrielen Genesis klasikoaren metadona gisa hasi nintzen kontsumitzen (orduko Genesis, Phil Collins-ena, pop *otxentero* arruntenera lerratua zen garaian), taldeak Fish karismatikoa zuenean kantari gisa, eta neo-prog mugimenduaren buru zenean, 1980ko hamarkadan rock sinfonikoaren garai onenak (alferrik) berpizten saiatzen ari ziren taldeek bultzatutakoa alegia. Fishek taldea utzi, eta Marillionek hiru erabaki hartu zituen: kantari berri bat inguratzea (Steve Hogarth: eragin-korra, baina ez bereziki distiratsua), bere karrerari bira bat ematea (rock progresibotik urrunduz eta, ai, haren antzinako ereduak egin bezala, popea hurbilduz, nahiz eta ez, zorionez, azken aldiko Genesis bezain duintasun gutxiarekin), eta izena ez aldatzea (talde berri bat baziren ere, *de facto*). Hala ere, ez dakit ondo zergatik, fidel eutsi diot Marillioni, eta haren diskoak eskuratzen jarraitu dut (ez dena meritu makala: estudioko hogeira dira honezkerok). Agian, alde batetik, talde gutxi jasaten dutelako pertsonalitate handiko kantari baten galera. Edo, bestetik, miresmena eragiten didalako negozioan jarraitzeko zabaldu dituen estrategiak (Marillion izan zen, mainstream rockaren alorrean, *crowdfunding*-aren estrategia arrakastaz garatu zuten aurreko taldea). Eta, azkenik, noizean behin, modan dagoen popa imitatzeari utzi (dela Radiohead, dela Massive Attack...), eta taldea itzultzen delako, album honetan bezala, rock progresiboaren bere erroetara, *Gaza* bezalako hamazazpi minutuko kanta dramatiko, eta, kasu honetan, konprometituekin. Zeina, asmatu duzue, arrazoi nagusia baita nik hona elepe hau ekartzeko, Gazako zerrendako horrorea aspaldikoa dela gogorazten digulako, besteak beste. ●





**MURGI**  
'Hain zuzen ere'

Azken bi lanetako gordintasuna da nagusi Murgiren zuzeneko lehen diskoan. Itsasuko Ataatzean grabatu dira lehen zortziak: base eritmiko zora-biagarriaren zehaztasunak eta talde lanak bereziki markatzen ditu guztiak. *Txakur ta otso artean* (hori oihua bukaeran!), *Me too*, *Hotz eta motz* eta beste guztien garratzasuna eta gogortasuna bereziki aipagarriak dira. Garai zaharretatik soilik berreskuratu dute, berezkoa baino irmoagoa, akaso. Greg Juvinen baxuaren sarkortasuna harrigarria bada, Cedric Lepinieren atabalen eta plateren zehaztasunak harridura besterik ez du sortzen. Beste lau kantuek Urdin irradian grabatu zituzten zuzenean, baina ildo berari heltzen diote. Tristtan Murgiren taldea 2019tik power trio bihurtu bada ere, progresibo da oraindik ere, modu zuzenago eta indartsuagoan bada ere. ● **Urko Ansa**



**BLACK PUMAS**  
'Chronicles of A Diamond'

Eric Burton (ahotsa) eta Adrian Quesada (gitarra) musikariek osatutako puma beltzen bigarren lana da *Chronicles Of A Diamond* hau. Aurretik, 2019an, estreinako lana plazaratu zuten, bai eta Grammy sarietarako hautagaitzak lortu ere. Oraingo lanak antzeko ezaugarriak erakusten ditu: ekoizpen lan aparta eta psikodeliaz zipriztindutako soul garaikideko kantu itsaskorak. Halere, gospelera (*Tomorrow*), eta funkera (*Sauvignon*) ere gerturatzen dira tarteka —bigarren horrek western kutsuko gitarrak era baditu doinuaren hasieran—. Diskoa erraz entzuten da, batez ere kantuen eta soinuaren gozotasunagatik, baina gordintasun eta intentsitate handixeagoa falta duela sumatzen da. ● **Julen Azpitarte**

**KRIKA**

# Hiri kronikak ilunabarrean

Andoni Tolosa

**A**tlantikoaren bi aldeei erreparatu die beti Antonio Zambujok: alde batetik, fadoari eta Alentejoko musikei; eta, beste alde batetik, Brasilgo musikari, edo, hobeto esateko, musikari. Bi aipatzearren, Chico Buarqueren eta, batez ere, Caetano Velosoren itzala suma daiteke portugaldarren ibilbidean. Hainbestera, inokoa da bi enbor musikala hauen artean gertatzen den sinbiosia, 2016an Grammy latino irabazteko zorian egon zen *Até Pensei Que Fosse Minha* diskoarekin... urteko MPB (Musika Popular Brasildarra) diskorik onenaren atalean! Epaileak ez omen ziren oso onak geografian, edo, agian, nahigabe Zambujoren lanaren balio nagusienetako bat aitortu nahi izan zuten, eta portugaldarraren gaitasuna azpimarratu musika *erregionalen* kategoria transzenditzeko.

Bada, alde horretatik, oraintsu kaleratu duen *Cidade* hau beste urrats bat da ibilbide horretan, eta, astakeria badirudi ere, utzi esaten orain arteko bere diskorik *ez-portugesena* duela. Modu zaterra da adierazteko diskoan inoiz baino biola gutxiago eta piano gehiago sumatuko duzuela, alegia. Agian, zerikusirik dauka oraingo honetan kantu bilduma osatzen duten hamabi kantuetatik 11 Miguel Araujok konposatu izana, eta diskoa hark ekoiztu izana. Edota, inguru urbano depresiboari eskainitako lan kontzeptual gisara hartu ahal izana. «Asmoa hiri bateko egunero bizitza urbanoaz aritzea zen, Miguelek aipatu zidan moduan; bertako lagundutako bakardadeaz jardutea», adierazi du Zambujok disko aurkezterakoan.

Aspaldikoa da bi musikariren arteko elkarlana, eta, oraingo honetan, elkarlan horrek definitzen du kantu bilduma. Portugalgo herri musika aldera egiten dute *Le-*



**ANTONIO ZAMBUJO**  
'Cidade'  
Diskoetxea: Universal Music Portugal.

*va-me De Min, Saga Inaudita Do Bom Jesus De Teibas* edo *Uma Valsa Urgente* kantuek. Kantariaren errepertorioan ohikoak diren balada eder eta pulamentuzkoen ildoak dira *Sagitario, Lua eta Ceu*, non kantariak ahotsa grabe gozo horietan erortzen uzten duen, gure belarrien gozamenerako. Crooner pop aldera egiten dute azkenik, *Dancemos Un Slow, KO, Nas Bocas Do Mundo, 5 Minutos De Whisky* edo *Romance De Cordel-ek*. Guztia tempo eta aire malenkoniatsuz jantzia dator, baita diskoaren unerik eritmikoenetan ere, eta Zambujok berak iradoki bezala, ez da bere diskorik *errazena* gertatuko: «Abesti berriak lehendik askotan entzundakoak baino zailago asimilatzen dira, baina erronka hori gustatzen zait», adierazi du zuzeneko lehenengo emanaldien ondoren.

Ez dut uste gehiegikeria denik esatea Zambujo Europako kantariarik interesgarrienetako bat dela, eta gehitzea hamargarren disko honek bere gaitasun sortzaile jostari eta freskoaren osasun-egoera onaren sintoma argiak adierazten dituela, berriro ere. ●



**KONTZERTUA**

## Atabal Elektronika eta Indie doinuak

**Petit Fantome eta Rudiger.**  
Abenduak 1,  
21:00etan,  
Miarrizko  
(Lapurdi) Atabal aretoan.

Datorren ostiralean, Miarrizko (Lapurdi) Atabal aretoan, Petit Fantome eta Rudiger artistek kontzertu bana eskainiko dute. 21:00etan hasiko da lehen kontzertua, eta sarrerak Atabalen webgunean daude. Petit Fantomek, *Un Mouvement Pour Le Vent* lan laburra kaleratu eta sei urtera disko berri bat atera du: *Steve II*. Duela hamar urte kaleratutako *Steve* diskoaren jarraipena da. Euskal doinu elektronikoak eta popa uztartzen ditu.

Geldi egoten ez den musikari horietako bat da Rudiger. *Before It's Vanished* da bere lehen diskoa. Joseba Irazokirekin aritu ondoren, orain Euskal Herriko beste musikari batzuekin osatu du taldea ●

**HUHEZINEMA 17**  
**EUSKAL FILM LABURREN JAIALDIA 2024**  
**LANAK AURKEZTEKO**  
**AZKEN EGUNA AZAROAK 27!**



# 2010eko urria



**LAUHAZKA**  
Beñat Sarasola

**V**irginia Woolfek, XX. mendearen hasiera zoroa bizitzen ari zelarrik, 1910eko abenduan giza-izaera aldatu egin zela esan zuen. Ziur aski, momentuan inor ez zen jabetuko, eta denak jarraituko zuen, itxuraz bederen, 1910eko azaroan bezalaxe: te-hostoak iragazteko keinu berberak, kriketean aritzeko arau berberak, elikagai-dendan ilara errespetatzeko politesia berbera. Baina, denbora igaro zelarrik, hantxe kokatu zuen Woolfek aldaketaren une zehatza: 1910eko negu berriaren hastapenetan.

Mende bat geroago, badirudi XXI. hasiera honetan ere zerbait aldatu dela giza-izaeraren zerako zeran. Alabaina, kontua da giza-izaera piztia apetsua izaki, bi hilabetez aurreratu zela. Izan ere, 2010eko abenduan ez, baizik eta 2010eko urrian, orain hamahiru urte, etorri zen kanbiamentua: hilabete horretan argitaratu zituen Wikileaks-ek Irakeko Gerrako dokumentuak, orduan sortu zen Instagram, urri hartan hasi zen Tarana Burke sare sozialetan «*Me too*» esaldia erabiltzen, eta garai hartantxe argitaratu zuen lehen abestia Yung Beef-ek Kefta Boyz-ekin. Berriz ere, momentuan, inor ez zen aldaketaren handiaz jabetu; benetakoa iraultzak halaxe gertatzen baitira, espanturik gabe.

2023ko udazkenean bizi garelarik, ordea, denbora nahikoa igaro da konturatzeko ordutik hona jende ez gutxi dagoela (gaudela) jokoz kanpo agerikoan. Zenbatetan ez ote dugu aditu urlia seko «desubikatuta» dagoela, sandia aurreko mendean bizi dela, berendiak ez duela egungo egoeraz ezer entenditzen. Harako hura *boomerra* dela, hemengo bestea *edgya*. Eta aitortu, askok eta askok aitortzen dute (dugu), gainera: nire garaian ez zen halakorik, gaurko mundu hau zoratu egin da, egungo gazteek hau eta beste.

Belaunaldi berri guztiek egiten omen diote desafio aurrekoari, baina, egiazki, XXI. mende hasierarekin gazte bihurtu ginenok nahiko lan izan



Virginia Woolf idazlea. BERRIA

genuen aurrekoei ezer leporatzen ibiltzeko. Alde batetik, 2008a aurreko iji eta aja testuingurua; bestetik, gure Gerra amaiezina. Posmodernitatearen biharamuna bizi izan genuenoi mundua eta haren erreminta-kaxa paketatuta eman ziguten, eta bestetik, gure partikularitate honetan, aurrekoen Gerra heredatzea beste erremediorik ez genuen izan, antza. Handik idaztea tokatu zitzaigun eta, neurri batean, ezintasun horrek azaltzen du XXI. mende hasieran idazten, eta oro har, zerbait egiten, hasi ginenen lana.

Izan daiteke aurrekoena imitatzeko, izan daiteke eskapismoa egiteko, izan daiteke ezintasun hori aitortzeko, izan daiteke iraultzaile kosmetiko gisa azaltzeko, baina denok partekatu genuen, gutxi-asko, ezin hori.

Horregatik, bekaizkeriaz baizik ezin diegu begiratu 2010eko azaroak ume edo nerabe harrapatu zituenei. Duela gutxi multzo horretan sartzen diren bi poeten emanaldian izan nintzen, eta benetan deigarria egin zitzaidan nola markatzen zuten haien eta haiek baino 10-15 urte zaharragoak ziren poeten

arteko distantzia; edo, hobeki esanda, arrakala. Adanismoa leporatzen diete (diegu) ez gutxitan, baina zein iraultza ez da adanista? Harold Bloom zaharrak, zeina dudarik gabe aldakuntza horiek beltzuri jarriko baitzuketen, aspaldi esan zuen ezer berria sortzeko aurrekoa gaizki irakurri behar duzula, ezinbestez. Tradizioarekin obsesionaturik bizi denak eta ñabarduren mizkinkerietan laketzen denak sekula ez du iraultzarik egingo, ez bada gure belaunaldiak hain ondo ezagutzen dituen iraultza-fakeak. Ezin konprenitua bizi dugu, bai, jokoz-kanpotasuna, behiala irmoa zen zoruaren egun

«Tradizioarekin obsesionaturik bizi denak eta ñabarduren mizkinkerietan laketzen denak sekula ez du iraultzarik egingo»

irristakor sentitzea. Bekaizkeriaz ere begiratzen diegula nioen: izan ere, oi, oraingoek egiten ari zaizkien bezala egin izan bagenie aurre ikasleak (batez ere emakumezkoak) umiliatzea maite zuen unibertsitate-irakasle autoritarioari, txosnetan musika egokia jartzen ez genuelako sintonia aldarazi zigunari, modalitate eta bariazio orotan goitik begiratu ziguten askojakinei...

Batzuek esango dute, kontu horiek gorabehera, gauzak ez direla sobera aldatu eta hor jarraitzen dutela (dugula), *boomerrak*, *edgyak*, rockero zaharrak, gizon-heterosexual-zuri jarriak, betiko naftalina usaindunak eta orotariko Perez-Reverterrak lehen lerroan eta aginte-makilari ondo helduta. Arrazoi dute, baina nola ukatu guda, hainbestetan entzun dugun guda kulturala delakoa, galduta dutela (dugula) dagoeneko? Denbora kontua da, oraingo gudu kulturalen garaileak baitira geroko manu militarriak.

Azken boladan mintzagai ditugun auzi askok 2010eko urriko kanbiamentu handiak zeharkatzen dituela esango nuke. Horregatik, susmoa dut datozen hilabeteetan Lauhazka honetan idatziko ditudan gauza askok ere, sakonean, horixe izango dutela presente. Nekez idatz daiteke gaur egun hura kontuan izan gabe, eta honenbestez, gazteagoekiko gurasokerian ez erortzeko esfortzurik egin gabe. Ez ahal naiz gehigitan eroriko! ●



guztian jotzen dute menia hasi baino lehen. Ez da ekaitzaren aurreko barealdia, baizik barealdiaren aurreko ekaitza.

Orain ilun-iluna dago dena. Beltz ikusten da zerua, nahiz eta ia ilargi betea dagoen, kezko eta hautsezko geruzen tartean. Hil honetan, ordea, inork ez dio erreparatu ilargiari. UNRWak hemendik gertu dituen eskolak orain babesleku masiboak dira desplazatuentzat, eta haietan ere isil-isilik geratu dira. Zain daude ea gero zer etorriko. Gerrako 21. eguna da, orain arteko latzena. Aitagarrebak proposatu du denak etxera joatea, arriskua handitzen ari da eta. Urrun dagoela esan diot. «Honetan inolako ordenarik ez dago», bota du. Eta guk baino hobeto daki.

**G**oizean, Hannaren izeba Niam-ek esan du berak ez diola beldurrik heriotzari; lehenago edo geroago, denok hilko gara. Senarra orain dela hamar urte galdu zuen, eta badaki berari ere tokatuko zaiola. Baina ez du nahi gorputza mila zati egin diezaioten: gorputza osorik hil nahi du. Esan diot gerra garaian

ezin dugula aukeratu, ez geure nahia inposatu. Niamek alde egin zuen esparruko ekialdean zuen etxetik, hartara bere ahizparekin egoteko —hau da, nire amaginarrebarekin—, eta izututa dago zer datorkigun ikusirik. Seme-alabak han eta hemen sakabanatuak ditu Gazako zerrendan: hegoaldean, nagusiki. Galdera egin diot amaginarrebari, zeina Nakba izandako urtean jaio baitzen, Axkelon-en, eta Gazara ekarri baitzuten besoetako haurra zela: «Beldurrik bai?». Eta hark erantzun, ahots indarge batez: «Bai, jakina».

Telefonoa bateriarik gabe geratu zait. Atzo egunerokoa idazten ari nintzela, %0-raino iritsi zen, eta inguruan ez dago non kargatu. Proposatu dut Mohammed autoz Eixa-renera joatea eta han kargatzea, eta ni bitartean oinez joango naiz esparrura Saftawiko nire etxetik. 2014ko gerran, egunero bide hau egiten nuen oinez, baina atzokoa izan zen gerra honetan halako ibilaldi bat egiten nuen lehen aldian. Oraindik gogoan dut bidearen xehetasun bakoitza; batez ere, nola sentitzen nintzen arratsaldero basapiku zaharraren parera iristean. Hura ikusteak lasaitu egiten ninduen, seinale baitzen etxetik gertu nengoela. Aurrera begiratu, eta hantxe dago arbola oraindik, bizirik atera nintzen aurreko aldiaren lekuko. Yasserrek esana dit nahiago duela nirekin paseatu; beraz, aurreko gerran ibilitako toki batzuk erakutsi dizkiot.

Ilundu ondoren arriskua larriagotu denean, Farajen etxe aldera jo dut. Bidean, argi gehiago ikusi ditugu, mihi bifidoak iduri, su emanaz mendebal aldeko guztiari. Gero ezta aditu ditugu. Kanean, jendea hizketan ari da taldetan, zer ote zen ikusi eta entzundako hori. Bat-batean, ohartu gara seinalerik gabe gaudela, telefonorako eta Internetarako sare guztiak etenda daudela. Jende guztia telefonoa eskua dabil, piztu eta itzali, berriz konektatu nahian.



Faralen etxera iritsi naizenean, argitu dit han ere ez daukatela Internetarako eta telefono saretarako konexiorik. Konturatu gara mundutik bereiz utzi gaituztela. Ez dakigu zer gertatzen ari den, ezta hemen ere. Orain, entzuten ditugun ezta besterik ez dakugu, ikusten dugun sua, sentitzen dugun lur astindua.

Jendea Farajen etxeko egongelan elkartu da. Oraintxe konturatu naiz ergelkeria izan dela aitari itzultzea irrati zaharra. Uste nuen aski izango zirela Farajen etxeko modemak eta Adhamen ingeniarietza elektrikoa, ez genuela besterik beharko. Bonbardaketak ugaritu direnez, ez du mezezi familiaren etxera itzultzea irrati bila. «Bihar hartuko dut, Mohammed», esan diot. «Halako erasoak izanda», erantzun du Farajek, «ez da izango biharrik».

Leherketak gero eta gogorragoak dira, eta Mohammed ahaleginetan dabil Farajen telefonoan irrati seinalea harrapatzeko. Ordu batean pasatu, eta estazio bat aurkitu du. Irrati esataria lurreko inbasioaz ari da, baita telekomunikazioen itzalaldiaz ere. Mohammedek barre egin du: «Barregarria da: gaurko informazioan, esaten ari dira ezin direla Gazako jendearekin komunikatu, baina atzo, komunikatzeko modua zutenean, ez zuten gutako inorekin hitz egiteko lanik hartu».

Imajinatu baino ezin dut egin zeinen kezkatuta egongo den Hanna Ramallah-n. Dudarik gabe, bi minututik behin deika ariko zaio Yasserri, eta mezu grabatu bera entzungo du beti.

Lo egiten saiatu gara, alferrik. Bi minututik behin, ohetik jaiki gara, azken eraso gure eraikinean edo ondokoan izan

delakoan. Gogoan dut ordu bi eta erdiak zirela ni lokartzerako. Seietan poza hartu dut, esna eta bizirik nago eta. Faraj kalean da jadanik. Hemengo dozenaka gizon hizketan ari dira kanpoan, haiek ere pozik bizirik egoteagatik. Erritu bihurtu dira goizeko bilkura horiek, bizirik segitzearen ospakizun, beste gau bat pasatu izanaren ospakizun. Yasser jaiki eta kexaka hasi da goseak dagoelako. Bi arrautza frijitu dizkiot, eta kalera atera naiz gero, Farajekin. Ordu batean eman dugu hizketan, eta azken berriak kontatuz elkarri: eskolako aspaldiko lagunak ditut asko. Zazpitan, gurasoen etxera joan naiz. Aita lo dago oraindik; beraz, aurrera segitu dugu Eixa ondo dagoen ikusteko. Poza hartu du gu ikusita eta konpainia edukita, bart gaueko amets gaiztoen ondok. Te beroa prestatu digu gosaltzeko. Gero, gure arreba Haliam ondo dagoen ikustera eramanez gaitu. Haliam lekuz aldatu da Beit Lahia-tik hutsik zegoen lokal komertzial batera, gure izeba Fatimaren eraikinetik hurbil. Gutako bederatzik hor egin dute lo, leporaino betetako toki bero horretan. Esan dit etxea txikitu diotela, eta senarraren senideak hilak direla. 2014ko gerran etxerik gabe geratu, eta berriz altxatu zuten handik lau urtera. Oraingo gerrak berriz kendu dio etxea.

Aitagarrebak eskatu dit ospitalera eramateko, Wissam ikustera. Hara joan eta pixka batean egon gara Wissamekin: lehen baino erneago dago, dirudienez. Haren senide Widad-ek kontatu dit Wissamek zerbait jan zuela bart, lehen aldiz. Berri ona da. Galdetu diot ea zer ekarriko diodan gero. Eta hark erantzun: «Esne osoa». ●

#### ERABATEKO SUNTSIKETA.

Israelen bonbardaketek suntsitutako eraikin multzoa, Gaza hirian. MOHAMMED SABER / EFE



# Taiwaneko hauteskundeak, gertu



**LEKU LEKUTAN**  
Olatz Urkia

**T**aiwanen presidentzarako hauteskundeak izango dira 2024ko urtarrilaren 13an. Irlarentzat berebiziko garrantzia duen momentua da, emaitzen arabera, Taipeiren eta Pekinen arteko harremanak norabide bat edo kontrakoa hartuko du eta. Orain agintean dagoen Alderdi Demokratiko Progresistak boterean jarraitzen badu, Pekinen tentsioa handituko da: Lai Ching-te hautagai demokratikoaren promesen artean, lehen lerroan daude inbertsio militarra eta autonomia defendatzea. Aldiz, oposizioko alderdiek irabazten badute, albiste onak izango dira Pekinentzat; Kuomintang alderdiak eta Taiwango Alderdi Popularrak diote beraiek irabazita Pekinekin hitz egin eta Taiwan beste Ukraina bat izaten amaitzetik salbatuko dutela.

Taiwandar gehienek gerra ere ez dute nahi, baina beren demokrazia babestu nahiko

lukete. Pekinek, aldiz, bi nahiak betetzeko aukerarik ez die ematen. Aurten Xi Jinping presidentek behin baino gehiagotan adierazi du Taiwanekin bateratzea nahitaez gertatuko dela. Eta ezin da zalantzan jarri, geroz eta bide autoritarioagoa hartzen ari den Xiren kontrolpean egonda, taiwandarrek arriskuan izango dutela beren askatasuna.

**Lau aukera.** Lau presidentegai nagusi dituzte taiwandarrek aukeran: hasteko, Lai dago, Alderdi Demokratiko Progresistaren hautagaia. Orain arte Tsai In-wen-en bidetik jarraitu nahi dutenen botoa izango du, eta, duela gutxi arte, behintzat, irabaziko zuela zirudien. Iragan abuztuan egindako inkestetan, taiwandarren %57k adierazi zuen bere alde bozkatuko zuela. Baina izan diren hainbat eskandaluren ondorioz, boto horien zati bat galdu du —batez ere, bere alderdikideen aurka hainbat salaketa egin dituzte Me Too mugimendukoek— eta zerbitzu militarra urte batera luzatzeko asmoa ere ez dute ondo hartu gazte askok.

Alderdi Demokratiko Progresistaren jarraitzaileen artean, gehienak gerraren aurkakoak dira, baina, Lairen arabera, autonomia babesteko bide bakarra Taiwanen indar militarra handitzea da. Uharteko derri gorrezko zerbitzu militarra lau hilabetetik urte batera pasatzeko erabakiak kritika asko sortu ditu. Hala ere, inkesten arabera, Alderdi Demokratiko Progresis-

tak oraindik baditu botoen %38 inguru.

Beste aldean oposizioko alderdiak daude; koalizio bat egiten saiatu dira, baina hautagaiaren inguruan ez dira ados jarri, eta aliantza hautsi egin dute. Kuomintang alderdi tradizionalaren lehen lerroan Hou Yu-ih dago, Taipeiko alkatea; bestalde, berriagoa den Taiwango Alderdi Popularrean, Ko Wen-je alkate dago. Hor zegoen ere, laugarren postuan, Terry Gou, Foxconn enpresaren sortzaile milioiduna, baina azken unean ez aurkeztea erabaki du. Hou

**Xik gero eta sarriago adierazi du Taiwanekin bateratzea nahitaez gertatuko dela; ikusteko dago nola egingo den**

eta Kok indarrak batuko baliatuzte, irabazteko aukera izango lukete, baina, bientzat, ez da erraza izaten ari adostasun batera heltzea.

Kuomintang alderdiak duen tradizio luzea dela eta —beraiek bota zituzten komunistak Taiwanetik—, oposizioko lider bezala ikusten du bere burua Houk, eta hauteskundeetara elkarrekin joatekotan presidente postua beretzat nahi du nahitaez. Hala ere, Alderdi Popularrak gero eta jarraitzaile gehiago ditu, eta hainbat inkestatan Kuomintang baino boto gehiago lortuko dituela aurreikusten da; horregatik, beraiek ere ez dute erraz onartuko bigarren planoan geratzea. Gainera, presidente eta presidenteorde postuen negoziazioaz harago, bi alderdi hauek ezer gutxi dute komunean, Pekinekiko gertutasuna izateaz gain. Alderdi Popularreko Ko Wen-je publikoki behin adierazi zuen gehien gorroto dituen gauzen artean daudela moskitoak, labezomorroak eta Kuomintang alderdia.

**Aldaketa iristen bada, zer?**

Hauteskundeak pasatuta boterean indar politiko berak jarraitzen badu, aurrekontu militarra areagotu, estatubatuarrekin akordioak lotu eta Pekini aurre egiten jarraituko du Laik. Egoera horretan edozer gerta liteke. Aditu gehienek arabera, Pekin ez da eraso armatu bat egiteraino iritsiko, Txinako Gobernuak nahiago izaten baitu gauzak beste modu batera egin; zeharka, eta zarata handirik gabe. Gainera, bai Taiwanen, baita Txina kontinentalean ere gehienek iritzia da herri bera direla, eta gizarteak ez luke batera ondo hartuko taiwandarren aurka indarra erabiltzearen erabakia. Hala ere, Xik gero eta sarriago adierazi du Taiwanekin bateratzea nahitaez gertatuko dela; ikusteko dago nola egingo den, Taipeik hori onartzen ez badu.

Irudia erabat bestelakoa izango da boterera oposizioko alderdiak iristen badira. Batez ere Kuomintang da Pekinen aldekoa. Hauteskundeetan beraien promesetako bat izan da beraiekin Taiwan ez dela beste Ukraina bat bihurtuko. Harremana hobea izango da Txinarekin, eta horrek ekonomiari ere laguntza emango dio... Promesa horrek asko konbentzitu ditu, ez dutelako Txina eta Ameriketako Estatu Batuen arteko gatazkan nahastuta jarraitu nahi. Denbora daramate horrela, eta batzuk hasi dira pentsatzen agian alde batera jotzeko ordua iritsi dela, eta gertuago dute, noski, Txina.

Baina Lairen alde bozkatuko duten —gutxienez— %38 horiek beldur dira. Hong Kongen beren autonomia babesteko protestak 2019an deskontrolatu ondoren kolonia britainiarra izandakoak nola amaitu duen ikusi dute: Pekinen ondo prestatutako mugimendu batean, Segurtasun Nazionalaren Legea indarrean sartu eta Alderdi Komunista txinatarrek gustuko ez duen edozein ekitaldi ilegalizatzea lortu dute. Ekintzaileek eta manifestariek heritik ihes egin edo kartzelan amaitu dute urte gutxian. Galdu dute Hong Kongen protestan ateratzeko eskubidea. Taiwan oraindik urrun dago horrelako egoera batetik, argi dago bertan demokrazia indartsua dutela; adibide askoren artean bat da 2019an ezkontza homosexuala onartu zuen Asiako lehen herrialdea bihurtu zela. Ez dute hori guztia galdu nahi, eta Pekinera gerturatuz gero, nork daki urte batzuk barru Taiwan nolakoa izango den. ●

## HITZ GUTXITAN

### Portugalen, Montenegro PSDko hautagai

LISBOA— Portugalgo PSD Alderdi Sozialdemokratik bere buru Luis Montenegro izendatu du zerrendaburu heldu den martxoko hauteskundeetarako. Eskuineko alderdia da PSD, eta hura da faborito bozak irabazteko. Montenegrok «erradikal» deituta gutxietsi du bere lehiakide nagusia, Pedro Nuno Santos sozialista.

### Hildako bat eta 120 bahitu Nigerian

LAGOS— Talde armatu batek eraso egin zien ostiral arratsaldean Nigeria iparraldeko lau herriri. Erasoetan gutxienez adineko bat hil zuten, eta 120 lagun bahitu zituzten. Agintarien arabera, Lawali Damanaren «lapur taldeak» egin zuen eraso, herriek ez zielako hark eskatutako «babeserako tarifa» ordaindu.

### Guterresek anbizioa eskatu du COPari begira

SANTIAGO— Klima aldatketaren alorrean, anbizio handiagoa eskatu zuen atzo Antonio Guterres Nazio Batuen Erakundeko buruak. Antartikara egin zuen bisita, Txileko presidente Gabriel Boricekin batera. Handik dei egin zien munduko agintariei COP28an orain arteko konpromisoak areagotu ditzaten.

### Adingabekoen ezkontzak debekatuta Perun

LIMA— Adingabekoen ezkontzak debekatzeko araudia indarrean sartu zen atzo Perun. Adingabeko baten eta haren tutorearen arteko ezkontza debekatzen du, baita adin txikiko ezkontza ere. Ezkontza dauden adin txikikoek aukera izango dute lotura hori bitartekaririk gabe eteteko.

**IZPIOPTIKA**  
aloña larrañaga

julio urkijo, 8  
tel.: 943 85 25 11  
20720 azkoitia



# Zozketak

BERRIA ekonomikoki babesten duen komunitatearentzako zozketak

PARTE HARTZEKO: igandetik asteartera

**Berria.eus/komunitatea**

edo **943-30 43 47**


Parte hartzeko azken eguna, **azaroaren 28a**, asteartera  
SARIDUNAK **ostegunean** argitaratuko dira.



## 01 • Lisipe 'Erresistentziarako gorputzak: bollerak'

Bost ale

Egilea: Eva Perez - Pons  
Argitaletxea: Susa



## 02 • 'Fast fatum'

Bost ale

Egilea: Libe Goitia Artetxe  
Argitaletxea: Susa



## 03 • Elhuyarren 2024ko egutegia

Bost ale


Argitaletxea: Elhuyar



## 04 • 'la denaren istorio laburra'

Bost ale

Egilea: Bill Bryson  
Argitaletxea: Elhuyar



## 05 • 'Belarriko kilkerra'

Bost ale

Egilea: Uxue Alberdi  
Argitaletxea: Elkar



## 06 • 'Loak ezkutatzen duena'

Bost ale

Egilea: Patxi Zubizarreta  
Argitaletxea: Elkar



## 07 • 'Barraskiloek baino bat gehiago'

Bost ale

Egilea: Ane Labaka  
Argitaletxea: Erein



## 08 • 'Bekatua'

Bost ale

Egilea: Goiatz Labandibar  
Argitaletxea: Erein



## 09 • 'Luis Bonaparteren brumairearen hemezortzia'

Bost ale

Egilea: Karl Marx • Itzultzailea: Idoia Santamaría Urkaregi • Argitaletxea: Igela



## 10 • 'Aralar - mundua leku den lurra' digypaka

Bost ale

Sortzailea: Landarlan Ingurumen Elkartea



## 11 • 'Aralar - mundua leku den lurra' liburua

Bost ale


Sortzailea: Landarlan Ingurumen Elkartea



## 12 • 'Paradisuairen kanpoko aldeak'

Hiru ale

Egilea: Bernardo Atxaga  
Argitaletxea: Pamiela



## 13 • 'Biziakoak'

Hiru ale

Egilea: Xamar  
Argitaletxea: Pamiela



## 14 • 'Atzo | gaur' Modus operandi

Hiru ale

Diskoetxea: Baga biga



## 15 • 'Ache pa ti'. Bilakatzen

Hiru ale

Diskoetxea: Gaztelupeko Hotsak



## 16 • 'Mingus moods'. Iosu Izaguirre sextet

Hiru ale

Diskoetxea: Errebal jazz



## De Rerum Natura



## Iritzia

## Porra



**HITZ ETZANAK**  
Andoni Egaña

**L**agunarte batean, gertatzen dagoen zerbait aurreikusteko gaitasunik handiena nork duen neurtzeko sortu ziren porrak. Jolas bat, azken finean. Gehienez kirolari lotua, beste arlo batzuk ere harrapatzen ditu. Eta asteburu honek behar zuen porrak egitekoa. Astelehena aipatzen baitzuten batzuek nahiz besteek, Euzkadi Buru Batzarra eta EH Bilduren Mahai Politikoak. Orduan iragarri behar zuten nor izan daitekeen lehendakari. Denbora pasa, dagigun porra. Izenak asma-

tzen saiatzeko begiak itxi ditut. Nekez dut gogoan nolako den Eusko Legebiltzarraren biltzar aretoa. Gauza bertsua gertatzen zait Nafarroako Parlamentuarekin. Aldiz, fresko dut Espainiako Kongresuaren irudia, azken egunotan bertako eztabaida eta diskurtso batzuek piztu baitute nire arreta. Arrasto ona da apusturako. Hortik joko dut. Inoiz baino protagonistagoak izan gara... Madrilen. Jeltzaleen eta Bilduren bozeramaileen lana txukun iritzita, bi izen botatzera arriskatu behar nuen. Aitor Esteban. Mertxe Aizpurua. Barre egingo zenidaten hemendik egun batzuetara. Defendatuko nuen neure burua. Erantzungo, jolasean ari nintzela, *porra* eta *porru* hitzek sustrai bera dutela, eta bigarren hau sartu nahian nenbela... Baina EAJk eten dit jolasa, Imanol Pradales aukeratu baitu Urkulluren tokia betetzeko. ●

## Bihotza lirain



**LARREPETIT**  
Iñigo Aranbarri

**E**z gaude Weimarko Errepublikan; bonbazian eta bankezan bizi direnek ez dute George Groszen koadroetako txerropoen jiterik. Lirainak dira, ederrak dira, lirain eta eder duten bezala bihotza. Esan zion Ana Botinek Jesus Calleja telebista-izarrari elkarrekin Groenlandiara joan ziren hartan. Feministatzat jo zuen bere burua, kezkatuta agertu zen berotze globalarekin eta, azak ontzeko, 2012tik bankuek ez zutela inor kalean utzi bota zuen, gorritu gabe.

Hurrengo asteetan aterako omen da Madrileko burtsara Techô, etxegintza arloko sozietate anonimoa. Helburua, «etxerik gabeko jendearen etxebizitza beharra asetzea». Nola sortu den ere, azaldu dute. Akziodun nagusietatik den Martinez-Cosetino familia «bihotza urratuta» itzuli zen etxera Nijarreko soroetan era irregularrean diharduten langileen bizi-baldintzak ikusita. Zerbait egin behar zutela erabaki eta sortu zuten Techô. Nekez izen egokiagorik.

Baina inor ez dagoenez hemen dirua galtzeko, lasaitzeko deia inbertsoreei. Dauzkaten etxeak ez dizkiete behar dituztenei utziko, haiei aterpea ematen dieten erakundeei baizik. Merkatuaren prezioetik behar alogerean, baina ziurtatuta hartara diru sarrera, jakinda administrazioek, filantropoek eta abarrek hornitzen dituztela erakundeok. Gainera, saria: enpresak ez du sozietateen zerga ordaindu beharrik izango.

«Gehien sufritzen ari diren horriengana heldu nahi dugu» diote, bihotza Groenlandian. Bazkideen artean bankuak daude, aseguru-etxeak eta, nola ez, inmobiliariak. Azora da hauen artean nagusia, alokairuko etxeetatik fueratuta, Donostian familiak kale gorrian uzten ari den funts kanibal bera. Orain dakigu zergatik: bihotza lirain, etxegabeei eurei laguntzeko. ●

## BERRIA

**Zuzendaria:** Amagoia Mujika Tolaretxipi **Zuzendariordea:** Eider Goenaga Lizaso  
**Edizio arduraduna:** Idurre Lazkano **Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM  
**Publizitatea:** Bidera publizitatea **Lege gordailua:** SS-0662/03 **Batzorde parekidea:** 0722/84059  
**Egoitza nagusia:** Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien Etorbidea, z/g 20140 Andoain  
**Telefonoa:** (0034) 943-30 40 30 **Webgunea:** www.berria.eus **Posta elektronikoa:** berria@berria.eus  
**Publizitatea:** publi@bidera.eu **Harpidetza saila:** (0034) 943-30 43 45 **Date:** 26/11/2023  
**Exemplaire:** 6.347 **Editeur:** Euskal Editorea SL **Directeur de publication:** Amagoia Mujika Tolaretxipi

**Comission paritaire:** 0924 C 84059 **Delegation Labourd:** Lisses 3, 64100 Baiona (0033) 559-256220. lapurdi@berria.eus  
**Ordezkaritzak | Araba:** Bizenta Mogel, 6. 01008 Gasteiz. (0034) 945-15 04 52. araba@berria.eus | **Bizkaia:** Uribitarte kale 18, 3C, 48001 Bilbo. (0034) 94-435 26 00. bizkaia@berria.eus | **Lapurdi:** Lisses 3, 64100 Baiona. (0033) 559-25 62 20. lapurdi@berria.eus | **Nafarroa:** Iratxeko Monasterioa 45, 13. 31011 Iruñea. (0034) 948-36 66 22. nafarroa@berria.eus



# Doinu-aldaketak

## Nekane San Miguel

**A**zken urteetan sarritan datorkit gogora joan zen mendeko hirurogeita hamarreko hamarkada hasieran sarri entzun nuen kantua. Melani Safka estatubatuarren hitzek «*Ils ont changé ma chanson*» izen-burua zuten. Europa aldean Dalila kantari frantsesak eman zion ospea kanta horri. Kantuan zehar, kexa: *Idatzi dudana gustukoa nuen, nire bizitza zen baina eurek ez dute ezer ulertu; doinua ere aldatu didate; itzuli egin dituzte hitzak baina traizioz, amaxo. Aldatuko dute kantua baina nire bihotzean nireak dirau. Lasai, ama, ni ez naiz aldatu.*

Berdintasuna eta parekotasuna kantatzean, balore aldaketen ezinbestekoez azpimarratzen genituen gure gazte garaiko doinuak. Ez genituela guretzat nahi gizonen mundu honetan lehenesten ziren doe eta gaitasun, baina musika hori ezabatzea lortu dute, gure egitera behartuta arbuatzen genituen haiek.

Banakako mendekua ekidin beharrez ere eratu zela sistema penala irakatsi ziguten diktadurapean ikasi arren. Delitua jasan duena ez zela objektu, subjektu behar zuela, baina orduan jarri nahi genion doinua eta gaur kantatzen dena oro diferente. Hainbat biktima borrero bilakatu dira, zigor-prozesuan zigor gogorren eske, Fiskalen ondoan. Mila aldiz esan dugu delitugileari ezarri beharreko zigorra frogatua geratu den ekintzaren neurrira izan behar duela, baina gaur egungo musikak biktimari eragindako minaren neurrira behar duela zigorra dio. Zer gertatu den eta zein baldintzatan egin den ustezko delitua jakiteko baino, sufrimenduaren eskaparate bilakatu zaigu epaiketa. Oraindai-no ekintzaren frogatzat hartzen ez genituen hamaika eginbide ekartzen dira eszenatoki horretara, zenbateko min larria eragin zaion (ustezko) biktimari erakusteko. Egitateak epaitu beharrean pertsonen izaera aztertuz, proportzio ideia bera joan da. Hori bai, pertsona guztiek ez dute sufrimendurako eskubide bera, ez eta berdina ere. Galdetu Agnes Wanjiruren alaba, ahizpa eta ilobei (ezin minik adierazi ere). Neoliberalismopeko hedabideek jendearen emozioen manipulazioari buruzko azterketa azalarazten duen *La stratégie de l'emotion* (Anne-Cécile Robert - Lux Éditeur - 2018)

liburuxka gomendagarri gai honen inguruan.

Orain «*Ez ezetz da*» ez dela doinu egokia diote, adostasunik-eza adierazteko. «*Soilik bai da bai*» bategatik aldatu digute, hain difuminatua den desioa eta hain konplexua izan daitekeen baimena (*consentimiento? Adostasun? Onarpen? Onesperen?*) zigor kodearen esparrura sartu eta gaia erabat korapilatuz. Feminismoaren baitan (1978an hasita, gutxienez) bizi-bizi izan den eta oraindik den eztabaidako planteamenduetariko bat (besteak gailenduz) legez arautzea bai dela delitu. Ez da egia orain jarri dela

*erdigunean* adostasuna. Aspalditik da delitu adostasunik gabeko sexua. Harremana izateko borondate eza nola menperatzen duen erasotzaileak, hor dago gakoetariko bat, baina oraingoan badirudi, zigor kodeko kontrola haratago jarri dela: ez da soilik baimena, ez eta borondatea. Baimentzen duguna deseatu eta deseatzten duguna baimentzeaz gain, garbi eta gogotsu adierazteko obligazioa jarri zaigu, parean duzun horrek zalantzarik gabe uler dezan. Katherine Angelek (*El buen sexo mañana* gaztelaniaz Alpha Decay-n argitaratua) gogoratzen digun moduan, «*Bai da bai*» horrek emakumearengan jarriko du *sexu-onaren* zama eta ase; eta hainbat feminista ospetsuk gogorazten digute lehenago edo beranduago emakumeon aurka etor daitezkeela halako formulazioak. Urrutira joan gabe, ez da zaila asmatzen guzti honi buruzko epaiketa batean zein izan daiteken epaitua. Legeek zehatzak behar dute, eta seguritate juridikoaren esparruan, ulergarriak. Ezin hori esan 10/2022 lege organikoa adostasunaz (edo baimena, edo onarpena, edo amore eman..., zer ote?) ari denean (178 artikuluan, modu eta leku ez egokian) eta ez soilik emakumeok zein nolako paperean kokatzen gaituen ikusita, akusatua errugabetasun presuntzio-eskubidea zapuzteko bidean jartzen duelako ere.

Hamaika aldaketaren adibide emanez jarrai dezaket, urtetan aurrera joateak duen eragina ez baltzait etorriko burura, gure aurrekoek dena nola aldatu zen eta zein jasangaitza egiten zitzaion ziotenean pareko.

Julio Numhauser poeta txiletarrak, 1982an *Dena aldatzen da*, Ines Osinaga eta Miren Amurizak euskara ekarritako poemari zioena etorriko zaio hainbati gogora; edo Héctor Chavero Aranburuk (Atahualpa Yupanqui izenarekin munduan ibilia) kantatutakoa bere gitarrari galdetuz, *munduari itaunduz gero, engainatuko zuelako*. Ez dut dudarik egiten aldaketak alde askotatik begiratzeko moduak badirela, baina ziur nago gure adinekoei Lluís Llach *No es aixó companys* kantuko hitzak zuzenago etorriko zaizkiela gogora: *Ez zen honegatik hainbat lore zapuztu, ezta hainbat irrikaz negar egin*. Ez zen hau. Kantariak ez zuen bake-hitzik garroteekin nahi, ezin jasan gure eskubideekin egiten den komertzioa. Gure eskubideak berezkoak dira, ezin dira ez eraiki ez zapuztu lege-irudia hartzen duten barrote eta mugekin. ●

Zer gertatu den eta zein baldintzatan egin den ustezko delitua jakiteko baino, sufrimenduaren eskaparate bilakatu zaigu epaiketa

Baimentzen duguna deseatu eta deseatzten duguna baimentzeaz gain, garbi eta gogotsu adierazteko obligazioa jarri zaigu

# Gernikako arbola



JIRA  
Maialen Akizu

**G**aur, gure herrian, Urretxun, *Gernikako arbola* euskaldun guztien ereserkia izan dadila eskatzeko egun osoko ospakizuna egingo da. Ekimen honek balio izan digu jakiteko Joxe Mari Iparragirrek kanta 1853an lehen aldiz kantatu zuenean «Euskal Herriko ereserki nazional» bihurtu zela, hildakoak, zaurituak, presoak izan omen ziren kantua kantatzearen. Lehen Mundu Gerra bukatu ostean ere, Baionako karriketan *Gernikako arbola* entzun zen, diasporan ere aski kanta ezaguna da, hamaika memoriaren musika, eta, bai, himnoaren kerak hartzen dizkiot nik ere.

Baina ez dakit ereserki izan behar duen, ez dakit ereserki bat eta bakarra behar dugun, ereserkiaren eskaera nori egin behar zaion, nola erabakitzen den hori, erreferendum deitu gabeko galdeketa bat egin behar ote den, edo ez, zer den herri honetan adostea, zer den herri hau, zer Gernika.

Nire kuadrillako J.-rentzat Gernikako Arbola Eroskia dagoen plaza da. *Ereserki* hitza ez darabil, eta harrituta zegoen atzoko kafean Gernikako Arbolako eroskia Euskal Herriko eroski nazionala bihurtu nahi dutela entzun duela-eta. ●

# Laffiten tiroa



BIRA  
Ainize Madariaga

**B**azenekien Piarres Lafittek zuela jaurti Frantziako Erresistentziako lehen tiroa 1941eko agorrilaren 13an, Parisen? Egia da zaila izan daitekeela irudikatzea sotanadun intelektuala pistola eskuan. Idazle, kazetari eta mugimendu abertzalearen akuilatzailea Frantziako Erresistentziako kidea izan bazen ere, ez zen bera izan tiro horren egilea, baizik eta Jakes Andurain. Bertzeak bertze, *Pierrette Labé* edo *Ithurralde* ezizenak baliatu zituenaren zinezko izen deituz jabetu zen Andurain, zeina izan baitzen Piarres Laffitteren beraren ikaslea Uztaritzen. Nazien aurkako borrokan ari zen bitartean amarekin bizi zen Jakes. Gibleko bortatik opioaren kontrabandoan ari zen ama, preseski, naziekin. Marga Andurain zuen ama: abenturazalea, errebeldea, feminista, idazlea, espia, hiltzailea, abangoardista, librea, poliamorantea, kontrabandista eta bidaiaria, hainbatik hainbatean. Eta lehen tiro hori botatzeko baliatu zuen Browning 6.35 mm pistolaren jabea ere bazen. Berez, Margak semeari amatxi zahar bat kaliaz nahi izan zion, haren bitxiez jabetzeko. Egungo egunez sortu zen Jakes, 1916an. ●



# Zaintzaren borroka zenbait hausnarketa, ikuspegi feminista eta independentistatik

Kizkitza Gil de San Vicente  
Goikoetxea

Sorturen Ekintza Politikoko arduraduna

**D**emagun oraingoan ez garela gorputz eta arima entregatzen zeharkatzen gaituzten beste borroka batzuetara, ondo asko baitakigu horiek ez digutela ziurtatzen, eta ez dakartela *per se* eurekin ere, gure askapena sexu gisa. Demagun *fin* jartzen garela, eta ez ditugula lehenesten mugimendu eta ekintza-batasunak gure zapalkuntzak sentitzen, jasaten, ikusten eta ulertzen ez dituzten sektore sozial horiekin.

Alegia, demagun kontzienteki gure bizitzak eskaini dizkiogun horren justu kontrakoa egiten dugula, eta ez dugula bestea lehenesten, ezta besteak ere; eta geuregandik abiatuta egiten dugula bizitzan aurrera, osotasun hori barne hartu gabe. Jarrera horrek, zalantzarik gabe, zibilizazio-kolapsoa ekarriko luke, paralisia dinamika politikoan, desorientazio orokorra.

Hori irudikatzen auzartzeak berak bakarrik badauka dagoeneko sendatze-efektua.

Lasaitu ditzagun irakurleak; euskal emakumeok ez diogu muzin egingo gure komunitateei, emakumeok gure jendartearen parte eta ondorio gara, baita denbora eta lurralde honetan ezartzen diren harremanenak ere. Feminismoa aldaketarako indarra da, berdintasunaren, ongizatearen eta zoriontasunaren katalizatzailea da artikulatzen denean, gure garaiko borroka emantzipatzaileekin harremanean jartzen denean, eta zapalkuntza- eta esplotazio-sistema globalari erantzun orokor bat ematen saiatzen denean. Hau da, jendarte hobe bat eraikitzen eta pertsona libre gisa eraikitzen saiatzen denean, hemen, Europa mendebaldeko Euskal Herri honetan.

Hori guztia argi izanda, balora dezagun ikuspegi autozentratu batetik euskal feminismoak ireki duen borroka zikloa, zaintza eskubide kolektibo aitortua eta bermatua bilakatzeko helburuz.

Zaintza agenda politikoaren erdigunera ekartzea, ikusaraztea, haren balio sozial eta monetarioa aitortzea

(eta, ahal izanez gero, atzeraeragina izatea), problematizatzea, duintzea eta horiek kolektiboki onartzea jauzi kualitatibo bat da patriarkatuaren aurkako eta emakumeen askapenaren aldeko borrokaren prozesu historikoan. Jauzi bat, zeinak emakume gisa emantzipatzeko baldintza materialak hobetzeko aukera ematen duen. Jauzi bat, nire ustez, animalia emeak izateari utzi eta arrazionaltasunaren jabe garen emakumeak bihurtzeko ekarri zuenaren parekoa. Gure eskubide zibil eta politikoak aitortzearen pareko jauzia (boto eskubidea, herritartasun-eskubidea, dibortziorako eskubidea, aborturakoa edo hezkuntzarakoa).

Esperientziak erakusten digu aurrerapenak ez direla iraunkorrak eta osoak, ezta orokortuak ere emakumeentzat. Baina, era berean, esperientziak erakusten digu geure buruak konbentzitzea lortzen dugunean, jendartearen trakzio-indarra garela eskubideetan aurrera egiteko eta egungo erreakzio kontserbadore eta misoginoa geldiarazteko. Euskal feminismoa jendartearen interpelatzen ari da, eta borroka horretara elkarrekin batzeko deia egiten ari zaigu emakumeoi. ●

Balora dezagun  
euskal feminismoak  
ireki duen borroka  
zikloa, zaintza eskubide  
kolektibo aitortua eta  
bermatua bilakatzeko  
helburuz

## Zuzendariari



**BERRIA**k irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta **BERRIA**k mozteko eskubidea du.

● Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita:

**BERRIA**, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain.

● Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: [iritzia@berria.eus](mailto:iritzia@berria.eus)

### Iruñeko udal plazan, euskarazko haur eskolen alde

Euskarazko haurren eskolen aldeko hurrengo ekitaldia gaur izanen

da, azaroak 26, 12:00etan, Iruñeko Udal Plazan, Iruñeko Euskalgintzak antolatuta.

Iruñeko jende guztia deituta dago, ahal bada zerbait gorria jantzita.

Dagoeneko Iruñeko Udaleko oposizioko alderdiek jaso dute mozio proposamen bat, 2023-24ko ikasturterako Donibanen, Mendillorri eta Erripaginan euskarazko haur eskola bana sordezan Iruñeko Udalak.

Azpilagañan, Donibanen, Mendebaldean, Mendillorri, Bigarren Zabalkundean, Etxabakoitzen eta Erripaginan ez dago euskarazko eskaintzarik. Horregatik %Okoa da euskarazko aurrematrikulazioa. Horrek desitxuratzen du euskarazko eskaera, nolabait itzaliz.

Gurasoak mobilizatuak dira Donibanen, Mendillorri eta Erripaginan. Beraz, horietatik hasi

behar du Iruñeko Udalak, baina gainontzeko auzoetan euskarazko haur eskolaren alde izanen da borroka hurrengo urteetan, auzo guztietan lortu arte.

**Joseba Otano Villanueva**  
Iruñeko Euskalgintza

### 2008-11-19

Egun horretan, duela hamabost urte, Iruña-Veleiako aztarnategian ari ziren arkeologoei —Eliseo Gil Zubillaga eta Idoia Filloy Nieva— industen jarraitzeko baimena kendu zieten, eta kanporatu egin zituzten langileekin batera.

Arazoi ugari eman bazituzten ere grafitoen faltsutasunaz, bat bera ere ez arazoi zientifikotan oinarritua: azterketa fisiko eta

kimikorik gabe, C14 egin gabe, dataziorik gabe...

Bost urte geroago hasi ziren laborategiko analisiak egiten, eta, hemezortzi ikerlari aritu baziren ere —lau txosten idatzi zituzten—, ikerlari batek soilik, Jose Vicente Navarrok, jo zituen faltsutzat 36 grafito, haietan aurkitu zituen metal aztarnak faltsutasun frogatzat hartuz. Beste hamazazpi ikerlariek ez zuten ondorioztatu ez grafitoen faltsutasunik, ez benetakotasunik. Beste bat benetakotzat hartu zuen. Epaileak 36 hauengatik zigortu zuen Eliseo Gil Zubillaga, bakoitzeko bi euroko zigorra ezarri. Beste ehunka grafito analizatu gabe daude oraindik.

Epaiketaren bezperatan, kazetari batek honela idatzi zuen auziari buruz: «Tamalgarría da arkeologo, hizkuntzalari eta historialariak elkarlanean jarri eta

auzia argitzeko gai ez izatea; deitoratzekoa, jakintzaren arloan diharduten erakundeek —Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Jakiunde, unibertsitateak...— horretan ez lagundu izana». Bat nator berarekin.

**Tomas Elortza Ugarte**  
Hernani

### ZUZENKETA

Egunkari honen atzoko zenbakian, 6. orrian, zera publikatu zen: EH Bilduk eta EAJk 1982ko Euskararen Legea eguneratzea adostua zutela irailaren 29an. Ordea, informazio hori ez da zuzena, Euskararen Legearen osteko hizkuntza ereduaren dekretua eguneratzea adostu baitzuten.



# Ateak eta aurpegiak

## BI TARTE

Amaia Iturriotz Etxaniz  
Mariñe Arbeo Astigarraga

### Txakur Gorria

**E**makumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna izan zen atzo, eta aste honetarako dago deituta greba feminista orokorra. Tarteko egun bat da gaur, prostituzioari buruz aritzeko proposa iruditu zaidana. *Iruxuloko Hitza*-k Carolina Clemente sexu langileari eginiko elkarrizketa darabilkit buruan aste hauetan. Azkar irakurri nuen, asteburuko pilota-partiden emaitzak irakur litezkeen bezain azkar gutxi gorabehera. Bere hitzen oihartzunak konpainia egiten dit errepidea gurutzatzera noanean, dutxan sartu berritan edo arropa zintzilikatzen ari naizenean. Bi ondorio nagusi atera ditut. Bat. Mutil-taldeetan, hots, anaidian, dezente gehiago hitz egiten dela prostituzioaz nesken artean

baino. Bi. Argazkiaz gogoratzen naizela behin eta berriz. Garatzen ahaleginduko naiz.

Gure adin bertuko urlia eta sandia gertuko auzo bateko putetxera joaten ziren ligatzen ez zuten gau batzuetan. Badakit, gizon batek kontatu zidan-eta. Berendia ere maiz joaten da bertara. Hori ere badakit, baina hori ere gizon batek kontatu zidan. Gizonek gizonei kontatzen dizkiete halakoak. Barraren izkinan. Igandez, edo beste egunen batean. Pilota-partiden emaitzak komentatu daitezkeen bezala. Nik, hala ere, entzun izan dut noiz edo noiz Altunak eta Etxeberriak aurrekoan nola bukatu zuten. Kasualitatez, belarriek saiakerarik egin gabe. Txori izena duen errepide ertzeko klubaz, ordea, inork ez du sekula ezer esan nire aurrean. Gure aurrean, noan zehaztera, emakumeon aurrean. Anaidian ukigarria eta erreala da prostituzioaren gaia, lekuek atea daukatelako, pertsonak aurpegia. Eta gizonek boterea. Eroslearen aldean daudelako, beraz, ez saltzailearenean. Emakumeok,

bitartean, sutuki eztabaidatzen dugu. Abolizioa ala erregulazioa. Hil ala bizi. Prostituzioak ez luke existitu behar, eta horrelako bide motzak. Langile-klasea. Sexu-indarkeria. Atzerritartasun legea. Garrasika azkenik guztiok. Garrasika baina urrunetik hitz egiten dugu, lekuetara eta aurpegietara hurbiltzeko asmorik gabe. Nahita urrunduz, esango nuke. Kopetan denok: ni ez naiz puta. Puta izateko izu hori.

Bestetik, argazkiarena. Elkarrizketatuaren aurpegia burutik kendu ezinda nabil. Inor nire pentsamenduari begira ez neukanean sudurra eta begiak aztertu dizkiot kontu handiz. Normalak iruditu zaizkit. Beroki beltz bat darama soinean. Antzeko bat dut nik. Ilea, lepoa, ahoa. Harritzen naue-na zer den jabetu ezinda nabil. Arropa eskegitzen bukatu dudanean ohartu naiz nire iruditerian hezur-haragizkoa den sexu langilerik apenas dagoela. Ez daudela. Ez behintzat izenekin. Despertsonalizatu egiten ditugu eta desagerrarazi. Bizi garen munduan ez baleude bezala. ●

Arropa eskegitzen  
bukatu dudanean  
ohartu naiz  
nire iruditerian  
hezur-haragizkoa  
den sexu langilerik  
apenas dagoela







Ez baduzu hanka  
sartu nahi,  
sartu zure iragarkia  
IragarkiLaburrak.eus  
atarian







# Ertzak leundu beharrean egingo dio bisita Osasunak Vila-reali

- Osasunak erregularrago aritu nahi du Vila-realen irabazteko.
- Budimirren bolada ona baliatu behar du: zazpi gol daramatza
- Marcelinok debuta egingo du ligan, Vila-realen aulkian.

## Eñaut Agirrebengoa

Osasuna, orain arte, ez da izan iragan sasoiko talde biribila. Desitxuratu egin da apur bat, eta ertzak agertu zaizkio han eta hemen. Forma ez du guztiz galdu: joko oneko faseak izan ditu hainbat partidatan, eta lau aldiz izan da atea hutsean uzteko gauza. Ez da oinarri txarra. Apain agertu orduko, ordea, trakestu egin dira gorritxoak. Gutxi iraun die lilurak. Piztu bezala itzali dira erasoan, eta golak ere errazegi sartu dizkiete. Jagoba Arrasatek bi aste izan ditu egoera patxadaz aztertu, gauza berriak landu eta esku hartze egokia egiteko. Bada, gaur ikusiko da arazoak konpondu dituen, Osasunak Vila-realen zelaian jokatu duen partidatan (LaLiga, 14:00).

Nafarrek oraindik ez dute estualdirik izan sailkapenean. Jaisteko postuak urrun antzean ikusi dituzte orain arte. Haatik, gerora larri ez ibiltzeko, iratzarri egin behar dute. Ez dute punturik sobera: hamalau lortu dituzte hamahiru partidatan. Granadaren kontrako garaipena mugarririk izan zitekeen, baina ez dute irabazi hurrengo hiru partidetatik bakar bat ere. Galdu egin zuten Betisen eta Gironaren aurka, eta zapore mikatzekeko puntua lortu Las Palmasen kontra. Azken berdinketa horri balioa erantsiko liokete gaur irabaziko balute. Vila-realek ere badu premia: hamabi puntu eskas

batu ditu orain arte, eta dagoeneko bi aldiz aldatu du teknikaria. Marcelino Garcia Toral aurreneko eseriko da gaur Zeramikaren estadioko aulkian, asteazkenean Kopan debuta egin ondoren.

Makal dabilen arren, Vila-realek joa eta kalitatea du aurrean. Gerard Moreno golegilerik onenen pare dabil: zortzi gol sartu ditu orain arte, Griezmannek adina, eta Bellinghamek baino bi gutxiago. Sorlothekek sei daramatza, baina norvegiarra min hartuta dago, Yeremi Pino bezala. Hala ere, Osasunak belarriak tente izan beharko ditu. Atzean erraztasunak ematen jarraitzen badu, oso zaila izango da Vila-real mendean hartzea. Gutxirekin asko egiten diete aurkariak gorritxoak. Erdireketak defendatu ezinik dabilta. Zuloa dute arean, baita atean ere: zazpi jaurtiketa egin dizkiete atara azken hiru partidetan, eta denetan baloiak sare barruan bukatu du. Lau partida irabazi dituzte orain arte, eta horietatik hirutan ez diete golik sartu. Horrek izan behar du oinarria.

Vila-real ere makal dabil defentsan. 24 gol dizkiete sartuak, Osasunak baino hiru gehiago. Beste inori baino jaurtiketa gehiago egiten diote: hamasei partidako. Zaurian gatza botatzen saiatuko dira gorritxoak. Ikusteko dago Arrasatek zer plan darabilen aurkariari min egiteko, azken bi partidetan hamaikako berbera erabili eta gero. Mojica atzelari aritu da, eta Ruben Peñak aurre-rago jokatu du, eskuinean zein ezkerrean. Biak Vila-realen arituak dira, Moi Gomezen gisara. Erdilariak hasieratik jokatu ditu azken lau neurketak, baina ezin da baztertu haren tokian gaur Moncayolak jokatzeko. Bestalde, deialditik kanpo gelditu dira Darco Brasanac eta Kike Barja, biak min hartuta.

## Baloiak Budimirri

Aurrean, berriz, zalantza gutxi dago. Izan ere, azkenaldian Budimirrek harreman idilikoa du

golekin: zazpi sartu ditu dagoeneko Ligan, eta Kroazia Eurokopian sartu zuen asteartean, Armeniaren aurka partidako gol bakarra eginda. Erdireketa asko egin ohi du Osasunak, eta, Budimir horren bolada onean egonda, indartu egin behar du joera hori. Ukitzen duen baloi oro urre bihurtzen du kroaziarrak. Eta ez area barruan bakarrik; jokaldiak sortzen ere ekarpen handia ari da egiten. Gaur-gaurkoz, Osasunaren mehatxu nagusia da.

Vila-realek, berriz, Marcelino du berme. Harekin sendotzera egingo du, ondo bidean. Gainera, Athleticen entrenatzaile ohiak neurria hartu dio Osasunari: iruindarren kontra zuzendu dituen azken sei partidetatik bat bera ere ez du galdu. Gorritxoek lau aldiz irabazi dute bakarrik Vila-realen zelaian, baina azkenaldian ez dira makal aritu: iaz 2-0 galdu arren, 1-2 gailendu ziren aurreko bi aldietan. ●



JAGOBA ARRASATE. Jagoba Arrasate Las Palmasen aurkako azken partidatan. JAVIER DIGES / EFE

## Athleticek Girona liderraren etxean jokatu du bihar gauean

### Beñat Mujika Telleria

Athleticek Europako postuetan sendotzeko aukera dauka bihar (21:00, DAZN), baina gogotik sufritu beharko dute zuri-gorriek horretarako. Aurkaria ez da edonolako izango. Denboraldiko talde indartsuenaren etxean jokatu du Ernesto Valverderen taldeak: Gironan. Michel Gonzalezek Girona lider sendoa da. Ustekabea dela esan dezake partidatik ikusi ez duenak, baina merezitako postuan daude kataluniarrak. Joko bizia erakutsi dute, eta oso puntu gutxi galdu dituzte orain arteko bidean. Real Madrilek eta

Realak soilik lortu dute Gironaren aurka punturen bat eskuratzea. Jokoa zeuden 39 puntuetatik bost baino ez dituzte galdu.

Talde zuri-gorriak azken unera arte itxaron beharko du deialdia zein izango den zehazteko. Yeray Alvarezek min hartuta jarraitzen du, eta ezin izango du Gironaren aurka jokatu. Baina oraindik ikusteko dago Yuri Berchiche eta Ander Herrera deialdian sartzeko moduan izango diren edo ez. Dani Garciak ere min hartu zuen ostiraleko entrenamenduan, eta ezin izan zuen lan saioa taldekideekin batera amaitu. ●





PROTAGONISTA. Erik Jakak berotu zuen Aizarnazabalgo frontoian zegoen giro hotza. GORKA RUBIO / FOKU

# Lehena, Jakaren erritmoan

- 22-7 irabazi dute Jakak eta Mariezkurrena II.ak Larrazabalen eta Arangurenen aurka, Aizarnazabalen jokaturako partidaren.
- Hamabi tanto egin ditu Lizartzako aurrelariak, eta erakustaldia eman du.

## Beñat Mujika Telleria

Aise nagusitu ziren Erik Jaka eta Jon Mariezkurrena, Aizarnazabalen (Gipuzkoa), Binakako Txapelketako lehen jardunaldian. Iker Larrazabal eta Aitor Aranguren izan zituzten aurkari, baina ezer gutxi egiteko aukera izan zuten Jakaren erakustaldiaren aurrean. Hamabi tanto egin zituen aurrelariak, horietako hamar airez. Ikustekoak izan ziren ezkerrez egin dituen lauzpabost gantxo. Hiru ordu laurden ere ez zuen iraun partidak.

Unai Laso aldakan egin zioten ebakuntzatik osatzeko amaierako fasean dago oraindik, eta haren ordeztu aritu zen Larrazabal Arangurenekin. Jaka-Mariezkurrena II.a, berriz, finalera iristeko faboritoen artean zeuden bikoteak aurkeztu zituzten egunetik bertatik. Biak sasoi onean iritsi dira txapelketara, eta horixe berretsi zuten Aizarnazabalen.

Partidako lehen hiru tantoak oso azkar egin zituzten, baina pixkanaka gehiago landu behar izan zuten tanto bakoitzan. Hala

ere, hasiera-hasieratik kolore gorria izan zuen partidak, eta faboritoak direla erakutsi zuten. Ondo ezagutzen dute elkar, eta hori partidaren prestaketan ere nabari zen. Helburua bakarra zen: Aranguren nekatzea. Helburua, gainera, ederki bete zuten. Mariezkurrena II.a jaiola da lan zikina egiten, eta ohikoa duen joa erakutsi zuen beste behin. Hori ederki aprobetxatu zuen Jakak, partidako izarrak. Aurrelariak asmatu egin zuen lehen koadroetan. Ezkerrez min handia egin zuen, eta oso fin aritu zen errematean, batez ere airez. Horrela, 7-2 aurreratu ziren, eta urdinek geldialdia eskatu behar izan zuten.

Urdinak ahaleginu ziren lehen kolpearen ostean berpizten. Larrazabal urduri aritu zen hasieran, baina hauspoa eman zioten bi tanto egin zituen jarraian (8-4). Ilusioz ekin dio txapelketari, eta aukera baliatzeko ahalegina egin zuen. Asmatu egin zuen bi tanto horietan, baina, bestela, oso aukera gutxi izan zituen lasai errematzeko. Lan zaila izan zuen Amurrioko aurrelariak, gorriek ez

baitzioten uzten jokoan sartzen. Arangurenak, berriz, oso pilota zailak eraman zituen, baina temati jarraitu zuten gorriek atzelaria nekatzeko helburuarekin. Hala, partidako tanto gogor gehienek emaitza bera izan zuten: Arangurenak hala-hola jasotako pilotak modu ederrean errematatu zituen Jakak. Azti aritu zen lan horretan Lizartzako aurrelaria. Horrela, 13-5 jarri ziren Jaka eta Mariezkurrena II.a.

Urdinengan frustrazio puntu bat ere nabaritu zen uneren batean. Susperraldi txikiena izan zutenean, gorriek ez zieten neurketan sartzen utzi. Jaka izan zen errudun nagusia; frontisetik oso gertu jokatu zuen une oro, eta aukera guztiak baliatu zituen ezker eskuan daukan konfiantza erakusteko. Bi pilota galdu zituen arren, erakustaldia izan

zen. Neurketaren bigarren erdian, gainera, arrisku handirik ez zeukaten pilotak huts egin zituen Larrazabalek. Ez zuen askoz gehiago iraun partidak. 13-5etik 22-7ra joan zen neurketa, ordu laurden eskasean.

Ezbairik gabe, Jaka izan zen partidako protagonista. Bolada gozoan dago aurrelaria, eta, negua luzea den arren, modu ezin hobean ekin zion txapelketari. Pozik agertu zen partida amaitu berrikan: «Lehen partidetan garrantzitsua da irabaztea, bikoteak bat egitea eta minik gabe bukatzea, eta lortu dugu. Hurrengo asteko partidaren pentsatzen jarri behar dugu orain».

## Gaur, Seguran

Seguran izango du hurrengo geldialdia binakakoak, gaur. Bertan lehiatuko dira Iñaki Artola eta Ander Imaz, eta Jon Ander Peña eta Jon Ander Albisu. Artola ez da aritu azken bi binakakoetan, baina azkenaldian erakutsitako sasoia saritu nahi izan dio enpresak. Imazekin bigarrenez ariko da. 2019-2020an hirugarren izan ziren ligaxkan, baina kanporaketan galdu zuten. Peña II.ak eta Albisuk, berriz, hirugarrenez egingo dute bikote. 2020-2021ean bigarren egin zuten, Elezkano II.aren eta Zabaletaren aurka finala galduta. Biek ala biek lehen puntua eskuratzea izango dute helburu. ●



«Lehen partidetan garrantzitsua da irabaztea, bikoteak bat egitea eta minik gabe bukatzea, eta lortu dugu»

## ERIK JAKA

Baikoko aurrelaria

## HITZ GUTXITAN

### Realak gozoa dastatu du, eta Eibarrek, gazia

FUTBOLA— Realak garaipena eskuratu zuen atzo, Zubietan, Valentziaren aurka: 2-0. Natalia Arroyorenak bolada txarrean ziren, baina hiru puntuak eskuratu zituzten Synne Jensenen bi golei esker. Eibarrek, berriz, jipoia jaso zuen Levanteren aurka. 3-0 galdu zuten sailkapeneko bigarrenaren etxean.

### 33-36 Porrot mingarria jaso du Anaitasunak

ESKUBALOIA— Galdu egin zuen Anaitasunak atzo, etxean, Logroñoren aurka. Neurketa parekatua izan zen, baina azken ordu laurdenean alde egin zion garai-penak 3-9ko partzial baten ostean. Bestalde, gaur arituko da Bidasoa Irun, Galezian. Cangasi egingo dio bisita (17:30).

### 58-71 IDK nagusi Araskiren aurkako derbian

SASKIBALOIA— Goiko postuetan sendotu da IDK Araskiren aurkako derbia irabazita. Donostiarrek partida osoa jokatu zuten, eta azken laurdenean biribildu zuten aurrez egindako lana. Alba Prietok 21 puntu sartu zituen. Gernikak gaur jokatu du, Zaragozan (12:15).

### 12-21 Belgikak mendean hartu du Euskarians

ERRUGBIA— Euskariensek Belgikaren aurka galdu zuen atzo Donibane Lohizunen. Bisitariak nagusi izan ziren hasi eta buka, baina partida polita ikusi zuten ikusleek. Ekainean jokatu zuen Euskariensek azkeneko, Kataluniaren aurka. Atzokoan, txapela buruan eta ikurrina eskuan zelairatu ziren.



# berria fm

PODCASTA

Ziklo berria

**Kazetaritza  
feminista**  
erraietan  
eta uhinetan

**UXUE** Rey

**ANE**

Eslaba

**Hamabostean behin, asteazkenez,  
[Berria.eus/podcast](https://berria.eus/podcast) webgunean eta plataformetan entzungai.**



## Mugen gaineratik



**IRRATIA**  
Arantza Gutierrez Paz

**U**rriaren 19an, posta elektronikoa jasozen dudana Radiokulturaren buletinean, berri ona iragarri zuten: AIRK izeneko irrati abian jarri berri zuten, Antxeta Irratiarekin batera, Baionako DAB dial digitalean. Kulturaren eta gaurkotasan oinarritutako programazioarekin, Euskal Irratiek eta Mediabasken emisio eskaldunekin eta Surf FM eta Plein Air 2 kate frantsesekin multiplexa partekatzen du hedabide berriak. Gaur Nafarroako, Gipuzkoako eta Lapurdiko hainbat herritarra heltzen den Antxetari buruz mintzatzer

nator —Gasteizera ere heltzen dela diote euren webgunean—.

Bidasoaren bi aldeetan jaio zen, eta hasieratik inposaturiko muga administratiboek ezarritako zatiketa gainditzen saiatu da, eskualde naturala osatzen duten herriek partekatzen duten errealitateari erantzunez. Diskurtsoetan kontrakoa adierazi arren, Euskal Herriko txoko batzuetan, Beran, Lesakan, Hendaietan edo Urriñan gertatzen denari buruz informazio urria dugu. Kontsumitzen ditugun komunikabideetan, euskaldunetan ere bai, Espainiako gaurkotasuna Euskal Herri osoan eragingo balu bezala aurkezten dute, eta

Frantziakoa, aldiz, atzerriko sailean azaltzen dute. Umorean ere, irrati askotan aipatzen diren pertsonaia gehienak espainiar politikari, artista edo *ospe-tsua*k dira... Eta musikan, berriz, salbuespenak dira frantziar joerak ere kontuan hartzen dituztenak entzule euskaldunentzako eskaintzan.

Hainbat alderditatik begiratuta eredugarria iruditzen zait Antxetaren jarduna. Hiru administrazioek eragiten duten lurralde batean kokaturiko euskal komunitateak dituen informazio eta adierazpen beharrei erantzuteko asmoz, hortik begiratzen dio errealitateari,

eta ez hain barneratua dugun *EAEzentrismotik*, zeinaren eraginez, inkontzienteki bada ere, politikari batek dioen hobe dela *bertako* pilotari batek irabaz dezan, eta ez nafar batek, azken horiek kanpotartzat hartuz.

Ez dut aurkitu AIRK-ren programazioa; ez dakit zeintzuk diren DABen dialean Antxetak eskaintako saioak. Momentuz ez dut hargailu digitalik, eta, gainera, ez dut uste Bizkaitik jaso ahalko dudarik. Beraz, berritu duen webgunean eskaintako emanaldiak eta podcastak aditzen jarraituko dut nik ere buruan hain sartuak ditudan mugak apurtzeko. ●

## Erresistentzia istorioak



**PANTAIEN ARTETIK**  
Urtzi Urkizu


**J**avier Milei ultraeskuineko hautagaiak bozak irabazi ostean, Argentinak zer bide hartuko duen hizpide izan da egunotan komunikabideetan. Argi da politika neoliberalak ez dutela ezer onik ekarriko herrialde horretan —Donostiako Zinemaldian, saridun argentinarek kezka azaldu zuten zer gertatuko ote den kulturarekin—. Hego Amerikako herrialde hartan gertatzen denaren berri izateko modu bat izan daiteke Buenos Airesko *Tiempo Argentino* egunkariak egiten duen kazetaritza independentearen artikuluak irakurtzea.

Azaroaren 10ean, *Tiempo Argentino* egunkariaren inguruko *De la resistencia a la existencia* dokumentalaren Europako estreinaldia egin zuten Hernanin (Gipuzkoa), Hariak jaialdian. Hain zuzen ere, Erresistentzia Istorioen Zinemaldia da Hernanikoa, eta, bigarren urtez, Kulturarteko Plaza Feminista herritarrez bete zen, erresistentzia istorio horiek ezagutzeko. Han izan zen, gainera, egunkariako kooperatibaren presidente Malena Winer, proiektzio osteko solasaldi aberasgarrian.

Egunkari hori 2010. urtean sortu zuten, baina, handik sei urtera, jabeek eskrupulurik gabeko enpresari bati saldu zioten. Mauricio Macri zen orduan Argentinako presidentea, 2016. urtean. Eta enpresari jabe berriak talde bat bidali zuen erredakzioa husteraz; dena suntsitzera, gauzez, eta Poliziaren begiradapean. Langileak ez ziren mutu gelditu: erredakziora sartu ziren, kazetaritza egiten jarraitzeko asmoz. Proiektua atxiki, eta langileen kooperatiba bat sortu zuten. Herritarrei kazetaritza independentea eskaintzeko. Oztopoak oztupo, gaur egun Buenos Aires inguruan erreferentziazko kazeta da *Tiempo Argentino*. Kazetarien erresistentzia istorio mamitsu hori jaso du Pablo Lecarosek aipatutako dokumentalean. Sola-saldian, Winerrek oztopoen artean aipatu zuen Argentinan paperarekin darabilten sistema iluna. Horrenbestez, egunkariarentzat sekulako ahalgina da egunero paperezko edizioa kioskora eramatea. Benetan garesti baitago papera.

**'Tiempo Argentino' egunkariaren inguruko dokumentalaren Europako estreinaldia egin zuten Hernanin**

Hariak Erresistentzien Istorioen Zinemaldian, bestalde, Armeniako bi film labur interesgarri ikusi ahal izan ziren: *Anahide*, Arnaud Khayadjanian zinemagilearena, eta *Tombé*, Diana Kardumyanek zuzendua. Horrez gain, Araks Sahakyan artista armeniar



**DOKUMENTALA.** De la resistencia a la existencia filmeko fotograma bat. HARIAK

erakusketa eder bat jarri zuen Kulturarteko Plaza Feministan, eta *Nuit Blance* izeneko performancea jokatu zuen. Ikuskizun horretan, olerki bat euskaraz errezitatu zuen artistak. Borroka pertsonal eta kolektiboak artearen bidez transmititzeko abilezia du Sahakyanek.

### Mendebaldeko Sahara

Palestina, azkeneko asteetan, hirurogei kazetari baino gehiago hil ditu Israelek. Pentsatzekoa da nazioarteko kazetari elkarteek orain arte egin duten baino gehiago egin zezaketela egoera tragiko hori salatuz. Palestina bizirik gelditzen diren kazetari eta fotokazetariak egiten duten lana, bestalde, oso aintzat hartzekoa da. Erresistentzia ezinbestekoa, mingarria bezain gogorra.

Duela egun gutxi, bestalde, Kristina Berasain Tristan kazetariak (Lizarr

Nafarroa, 1973) *Sahara. Herri bat erresistentzian* liburua aurkeztu du (Aleka bilduma: BERRIA, Jakin, Elkar). Berasainek hala dio liburuan: «Aspaldi ohartu nintzen saharar batekin hitz egitea liburu bat irekitzea bezalakoa dela. Den-denek dute liburu bat. Pertsona bakar baten bizitzaren bidez, herri oso baten historia idatz daiteke». Espainiako Gobernuaren makina bat traizio jasan ditu Mendebaldeko Saharak. Gerra gupidagabea jasaten ari den herri bat da. Komunikabide handien pantailatik desagertua den gatazka bat. «Axolagabekeria eta ahanzturan erori da Mendebaldeko Sahararen gatazka», esan du Berasainek, gaiaz euskaraz argitaratu den lehen kazetaritza liburua aurkeztean. Beste erresistentzia istorio bat. Tentuz jarraitu beharrekoak dira guztiak, munduko leihotatik begiratu nahi izanez gero. ●







## EKITALDIAK



1

### Musika: Benito Lertxundi Baluarten

Benito Lertxundik 2018an aurkeztu zuen bere azken diskoa: *Ospakizun gauean*. Hasi zen hura aurkezteko kontzertuekin, baina pandemiak eten zuen bere jarduna. Berrir ekin die kontzertuei, eta gaur Iruñeko Baluarten ariko da.

**Benito Lertxundi.** Gaur, 19:00etan, Iruñeko Baluarte auditoriumean.



2

### Antzerkia: 'eMcumeak' Getxon

Euskal emakume sortzaileen errealitatea erakusteko asmoz sortu dute *eMcumeak* antzezlan: «Euskal emakume sortzaileen *mcDonaldizazioa* agerian uzten duen satira». Gaur estreinatuko dute Getxoko Muxikebarrin.

**'eMcumeak' antzezlan.** Gaur, 19:30ean, Getxoko Muxikebarri zentroan (Bizkaia).



3

### Txotxongiloak: 'Andereño' berezia

Anita Maravillas konpainiaren azken familia ikuskizuna da *Andereño* izenekoa. Errepublika garaiko maistrei egindako omenaldia da euren azken lana, eta jendaurrean aurkeztuko dute gaur, Zarautzen (Gipuzkoa).

**'Andereño' ikuskizuna.** Gaur, 16:45ean, Zarautzko Modelo antzokian (Gipuzkoa).




Emaguzu zure inguruko ekitaldien berri  
<https://www.berria.eus/zerbitzuak/agenda/bidali/>

50 urte Petronor energiaz ENERGIA AURREZTEKO AHOLKUAK  
Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Ahal bada, saihestu bonbilla asko dituzten lanparak.

## EGURALDIA



### Eguzkitsu eta hotz

Zerua ez da erabat urdin egongo, erdi mailako hodeiak eta goi hodeiak tartekatuko baitira, baina eguzkiari leku dezente utziko diote. Ekialdeko haizea nagusituko da, eta kostaldean mendebaldera egingo du arratsalde-gauean. Barnealdean izotza egingo du.

### JOERA

- Asteartea, 28
- Asteazkena, 29
- Osteguna, 30


	Bihar	Asteartea	Asteazkena	Osteguna
BAIONA	9/14	9/14	7/16	9/15
BILBO	8/14	10/14	9/19	9/17
DONIBANE GARAZI	7/12	8/12	7/14	8/14
DONOSTIA	9/14	10/13	9/17	9/16
GASTEIZ	5/12	7/11	7/15	5/13
IRUÑEA	5/11	7/11	6/13	5/11
MAULE	8/13	7/12	7/14	7/13
TUTERA	6/14	8/14	7/16	8/14

### ITSASOA

Ekialdeko haizea ibiliko da, 2-3ko indarrarekin; gauean, mendebaldekoa, 3ko indarrarekin. Itsaso kizkurra edo itsaskirria izango da. 0,5-1 metro arteko olatuak.

ITSASALDIA	ORDUA	METROAK
Itsasgora	03:20	4,20
Itsabehera	09:24	0,75
Itsasgora	15:42	4,29
Itsabehera	21:43	0,79

### ISOBARA MAPA



EGUZKIA	SORTU	GORDE
	08:18	17:40

ILARGIA	EGUNA
Ilbetea	Bihar
Ilbehera	Abenduaren 5a, asteartea
Ilberria	Abenduaren 12a, asteartea
Ilgora	Abenduaren 19a, asteartea

### BIHAR

Lehor hasiko da eguna, erdi mailako hodeiekin eta goi-hodeiekin, baina, goizak aurrera egin ahala, fronte bat sartuko da, lainotu egingo du, eta euritara joko. Euria denera zabalduko da.

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua





Oihana Teyseyre Koskarat

BAIONA— Ipar Euskal Herrian euskaraz egin daitezkeen ikasketak bakarrak dira Euskal Ikasketak. Lizentziakoak UPPA Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatearen esku dira; masterrekoak, UBM Bordeleko Unibertsitatearen esku. Goi mailako ikasketetako euskal literatura irakaslea izan da urte anitzez Jon Casenave (Lehuntze, Lapurdi, 1957), eta erretreta hartu du orain. *Lapur-dum* aldizkariaren bi zenbaki egin dituzte haren omenez. Haren ibilbideaz, Euskal Ikasketen bilakaeraz eta euskal literaturaz mintzatu da. Erretreta hartu berrian, «orain arteko gauza bera» egingen du, eta uste du bide horretan «hoberena bakarrik» gelditzen zaiola.

**Unibertsitateko irakasle izan aitzin, zer ibilbide egin duzu?**

Nik Letrak ikasi nituen, Bordele [Okzitania]. Eta gero irakasle izateko konkurtsoak pasatu nituen: lehenik bigarren hezkuntzako irakasleen gaitasun agiria, eta gero agregazioa. Frantseseko irakasle izan nintzen hogeitau urtez. Euskara ere irakatsi nuen, baina ene sail nagusia frantsesa zen.

**Nola egin zenuen euskal literaturarako jauzia?**

Letretan egin nuen maisutza. Ondotik, ikasten segitu nahi nuen, eta gatzedanik jadanik euskaraz idazten nuenez, erabaki nuen tesia eginen nuela Euskal Ikasketetan. Ene belaunaldiko doktoregai anitz bezala, lanean ari nintzela egin nuen tesia, Jean Etxepareri buruz. Idazle gisa miresten nuen. Iruditzen zitzaidan behar zela idazle horren inguruan zerbait egin, ikusiz zer ekarri zion euskal literaturari. Biziki interesgarria zen, kazetaritzan ikasi baitzuen idazten. Garai hartan ez zen euskal idazleentzako eskolarik; bizpahiru belaunaldiz, kazetetan ikasi zuten idazten denek. Barbier, Otxobi, Zerbitzari, Lizardi, Lauaxeta, Orixe... Etxepareri buruz interesgarria zen ikustea oztopoak izan zituela publikatu zuenean.

**Zeintzuk?**

Berak publikatu zituen bi liburu: *Buruxkak*, 1910ean, eta *Beribilez*, 1931n. Horietan baziren bi saio ezin jasanak orduko publikoarentzat eta irakurleria kontserbadorearentzat. Bat amodioari buruzkoa zen. Amodio mota guztiak aipatzen zituen, ez bakarrik platonikoa; sexualitatea ere bai, eta hori, orduko, jasanezina zen. Bazuen beste saio bat zentsuratua izan zena, laikotasunari eta eskolatzeari buruzkoa. Garbiki erraten zuen apezek ez zituztela haurrak hezi

# «Euskal Ikasketetan katebegi gisa ikusten dut ene burua»

**JON CASENAVE**

*Unibertsitateko irakaslea*

Euskal literatura irakatsi du Casenavek Baionako unibertsitatean. Euskarazko goi mailako ikasketen ibilbidea garatzen ikusi du, eta uste du gizartearen galdeetara egokitzen ikasi dutela urtez urte.

behar, salbu katiximan. Bi testu horiengatik eskatu zioten liburu horiek saltzetik kentzea, eta hala egin zuen. Euskarari buruz ere bazuen kronika bat, *Euskalduna* aldizkarian, zehazki hizkuntzari buruz eta euskal kulturari buruz. Bidaia liburu bat ere idatzi zuen, Euskal Herrian gaindi egin zuen ibilbide bati buruz, eta hor kasu eman zuen: garaian onartezinak ziren gaiak kukutu zituen.

**Nola ikusten duzu egungo euskal literatura? Emazte idazleen presentzia handitu da.**

Garapen hori ezinbestekoa da; euskal gizartea anitz aldatu da, eta literaturaren alorra araberan aldatu da. Emazteek ere giderrak hartu dituzte; ez da harrigarria. Erran nezake beharbada uste baino fiteago eta errazkiago gertatu dela gurean, Frantziako Estatuan baino. Gisa berean, ikusten dut unibertsitateko irakasleen artean badirela emazte franko, kasik parekotasuna bada, naturalki. Dena den, ekarpena egiten duen orok badu bere tokia. Hala ere, nik ez dut erraten kristalezko sabaia denetan gainditua denik, baina literaturan, hasteko, ez da horrenbeste ageri, ez eta ere unibertsitatean.

**Baionako unibertsitateko Euskal Ikasketetako irakasle izan zara urte luzez. Zer bilakaera izan dutela erranen zenuke?**

Gaitzeko aldaketa izan da berrogei urtez. Baionako Euskal Ikasketek historia laburra dute: 1980ko hamarkadaren erditik harat hasi ziren. Gero, diploma bereziak sortzen hasi ziren. Baina, ordura arte, bakarrik tesiak egiten ahal ziren euskaraz, eta ordutik harat hasi zen lizentzia, geroxeago maisutza, eta, azkenik, masterra. 1993an, bigarren mailako irakasleen gaitasun agiria sortu zuten, eta, gero, 2004an, lehen mailako irakasleen hautatzeko lehiaketa. Azkenik, euskarazko agregazioa ere sortu da.

**Zer garrantzi dute, zure ustez, euskarazko goi mailako ikasketak eta diploma horiek?**

Sekulakoa. Hegoaldean jadanik bazen EHUn sail bat Euskal Ikasketak egiteko. Gero, emeki, kasik sail guzietan euskarazko eta erdarazko ibilbideak proposatu dituzte. Baina Ipar Euskal Herrian ez dugu holakorik, nahiz eta helburua hori den. Euskal Ikasketetan, diziplina berri horretan, 30 bat ikasle trebatzen ziren urtero. Funtsezkoa izan

da, zeren diziplina bat eta haren inguruko kontzeptuak sortu baititugu, baita corpus bat ere. Hor sartzen da euskara, erran nahi baita hizkuntza, baina euskal literatura eta kultura ere bai. Ordutik harat, sortu ditugu gure gaiet buruz gogoetatzeko tresnak eta irakasle taldeak. Funtsezkoa izan da: eredu Hegoaldean genuen, baina, bistan dena, baziren hemengo berezitasunak: frantsesetik aipatzen ziren euskal gaiak, eman dezagun, edo konkurtsoetan behar ziren beste tresna batzuk. Sortu dugu mundu ttipi bat, Euskal Ikasketak deitu duguna, Hegoaldeko euskal ikasketak erreferentzia gisa ukanez.

Gauza bat azpimarratu behar da: ez gara bakarrik ari lanean. Aitzinekoak ukan ditugu: Jean Haritxelar, Jamattitt Orpustan, Txomin Pellen... Ondotik, ene belaunaldikoak izan gara: Xarles Bidegain, Aurelia Arkotxa eta nihaur... Berrikiago, Ur Apalategi, Celine Mounole, Argia Oltzomendi eta Katixa Dolhare... Bakoitzak ekartzen ditu bere interesak, bere ikusmoldeak, bere jakitateak, eta orduan, ene burua katebegi gisa ikusten dut; bakoitzak bere tenorean zerbait ekartzen du.







GUILLAUME FAUVEAU

**Euskarazko goi mailako ikaske-  
ta bakarrak dira Ipar Euskal He-  
rrian. Horrek zer erran nahi du?**  
Hastapenean, oinarri sendoak  
finkatu behar izan ditugu hiru  
arlotan —hizkuntzan, literatu-  
ran eta kulturari—. Corpusa sor-  
tzeko, bistan dena, ikerketaren  
gainean finkatu ditugu oinarri  
horiek. Emeki-emeki, gizartea al-  
datu da, eta 2000. urtetik aitzina  
kezka berriak sortu dira. Euska-  
ra behar zen irakatsi eskoletan;  
beraz, behar genituen irakasleak  
trebatu. Ikasgeletatik lelo bat hel-  
du zitzaigun, irakasleak ez zirela  
aski trebatuak, ez baita aski zer  
irakatsi behar den jakitea; nola  
irakatsi ere jakin behar da. Pix-  
kanaka, inguruan instituzioak  
sortzen ari ziren, eta bagenituen  
galdeak Seaskatik, Hezkuntza Na-  
zionalatik, eskola pribatuetatik...  
Denbora berean, Hegoaldeko lan-  
kideekin harremanak sortu eta  
azkartu ditugu, gure formakun-  
tzak hobetzeko xedez.

**Aipatu duzu ikerketa izan du-  
zuela oinarri. Zertan da euskal  
ikerketaren arloa Ipar Euskal  
Herrian?**

Hemen dugun laborategia, Iker la-  
borategia, aski fite garatu da, eta  
garrantzi handia hartu du ikerke-  
taren paisaian, ez bakarrik Euskal  
Herrian, European ere bai. Bistan  
dena, Iker laborategiaren bitartez  
eta gure unibertsitateen bitartez,  
Hegoaldekoekin harremanak  
sortu ditugu. Tesiak, erraterako,  
elkarlanean zuzentzen dira, bi  
zuzendarirekin: bata hemengoa,  
eta bestea EHUKoa. Azken urteot-  
an, tesien kopurua goiti joan da.  
Lehen ikusten ez zen zerbait ere  
gertatzen da: ikasleak lagunduak  
dira tesiak egiteko, anitzetan diru  
laguntzak eta doktoretza kontra-  
tuak badituzte. Gure arloan bada  
berezitasun bat: gazteak ikerketa-  
ren munduan guti direnez, kasik  
filtrorik gabe integratzen ditugu,  
eta hori ez da diziplina guzietan  
gertatzen. Gure ahulezia da guti  
garela, baina, aldi berean, gure  
indarra ere bada. Azkenean, iker-  
lari gazteei ardurak eta aukerak  
ematen dizkiegu beste dizipline-  
tan baino errazkiago eta goizago,  
eta hori funtsezkoa da.

**Zer gero ikusten diezu Euskal  
Ikasketei?**

Funtsezko egiteko bat dugu: du-  
gun horrek erroak egin behar  
ditu. Hortakotz, lankidetza her-  
tsia dugu Seaskarekin, Hezkun-  
tza Nazionalarekin, eskola pri-  
batuen sarearekin... Funtsezkoa  
da irakaslegaien trebatzea. Ikusi  
behar da bigarren mailarako  
guk trebatzen ditugula; ikuspe-  
gi orokor bat eman behar zaie,  
formakuntza orokor batekin.  
Aspaldidanik hasiak gara espe-  
zialistak ere trebatzen, gizarteak

gero eta gehiago eskatzen baititu.  
Gure helburua da gizarteak behar  
dituen sail guzietan jendea pres-  
tatzea eta trebatzea. Preseski,  
aurten, diploma berezi bat ireki  
da Baionan, euskal kazetaritzara-  
ko. Erran nahi du gizarteak behar  
dituen formakuntzak kontuan  
hartzen ditugula. Urrun da He-  
goaldearekin parekatzeko hel-  
burua, sail bakoitzean bi ibilbi-  
de eskaintzea... Urrun da, baina,  
bistan dena, hori da helburua.  
Bederen, sail guzietan euskaraz-  
ko formakuntza sendo bat eman  
behar da, eta gai berezituak ere  
proposatu euskaraz. Hori da on-  
doko urratsa.

**Bigarren mailako euskara ira-  
kasleentzako diploma plantan  
ezartzea lortu zen duela zenbait  
urte, eta, berrikiago, bigarren  
mailako irakasleentzako diplo-  
ma gorena sortu da, agregazioa.  
Nolakoa izan da horiek ukaiteko  
prozesua, eta zer ekarri du?**

Tokiko hizkuntzen espezialistak  
biltzen dituen sail berezian, badu  
anitz urte ari ginela pentsaketan  
agregazioari buruz. Agregazioa da  
edozein diziplinatan, Frantzia,  
bigarren hezkuntzako irakasle  
diplomatik landa proposatzen  
den goi mailako formakuntza.  
Iruditzen zitzaigun guk ere behar  
genuela. Lehen diploma, ontsa-  
laz, urrats bat da, eta agregazioa  
eboluzio bat da irakasleentzat:  
oren gutiago dituzte, hobeki pa-  
gatuak. Inportantea da lanean ari  
diren irakasleek ukan dezaten pa-  
rada ikasketan segitzeko eta ho-  
beki pagatuak izateko. Guretzat,  
Euskal Ikasketetan, helburu bat  
zen hori lortzea. Bestalde, dizip-  
linaren garatzeko parada da:  
konkurtsoen programen bitar-  
tez gogoetatzen gara gure gaiez.  
Corpusak finkatzen ditugu litera-  
turan; edizio berriak prestatzen  
ditugu, kurtso berriak... Horrek  
erran nahi du ikuspegi kritiko  
berriak ere lantzen ditugula, eta,  
horretarako, jendeak kanpotik  
etorritzen ditugu: Hegoaldetik,  
Bretainiatik, Kataluniatik... Gure  
tresneriaren osatzeko posibilitate  
bat zen.

**Erretreta hartu berri duzu. Zer  
eginen duzu hemendik aitzina?**  
Orain arteko gauza bera! Kar-kar.  
Orain, mezu elektronikoen erasia  
hori gelditua da, instituzioen pre-  
sio hori. Bistan dena, normala da  
norbait lanean ari denean, behar  
baitira erabakiak hartu, proiektu-  
ak sortu, gauzak aitzinarazi...  
Baina orain hori ez dut gehiago  
izanen; beraz, hoberena geldit-  
zen zait! Irakurketa, idazketa eta  
harremanak. Badira gauza anitz  
egiteko eta badira molde anitz  
aitzina egiten duen mugimendu  
horretan parte hartzeko. Entsea-  
tuko naiz segitzen. ●



**«Diziplina bat eta haren  
inguruko kontzeptuak  
asmatu behar izan ditugu,  
eta pixkanaka corpus bat  
finkatu dugu»**

**«Aspaldidanik hasiak  
gara espezialistak  
trebatzen, gizarteak gero  
eta gehiago eskatzen  
baititu»**





## Baiona Ttipia GALen garaian

'Baiona Ttipia eta GALen garaia' tour politikoa egin dute Baionan. Ehunaka jende bildu da Baiona Ttipiko karriken zeharkatzeko, Dominika Agerre eta Jakes Bortairu kontalarien bozen gibeletik.



Tour politikoa Dominika Dagerre eta Jakes Bortairuren eskutik egin zen, atzo. PATXI BELTZAIZ

1983ko urriaren 16an, GALen lehen ekintza: Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren bahiketa, Patxa plazan. Bi urte geroago gorpuzki zatiak atzeman zituzten, baina hamar urte berantago baizik ez zituzten identifikatu. 1983ko abenduaren 9an, bahiketatik bi hilabetera, GALen lehen erailketa: Ramon Oñaederra, *Kattu*, «tiro batez buruan» erail zuten, Kayetenia ostatuan lanean ari zela. «Traumatismo handia izan zen, eta biharamunean manifa bortitza antolatu zen», oroitu zen Dagerre. Garaian, Kayetenia pareko eraikina okupatzen ari ziren; 1983ko apirilatik 1984ko ekaina arte iraun zuen. Tiroaren harrabotsa entzun, eta laster batean jaitsi ziren denak; Katturen gorpua atzeman zuten ostatuaren barnea, lurrean, hilik. 1985eko martxoaren 29an, Pirenes ostatuan tiroketa bat: bi zauritu egin ziren, eta bertan lagunekin poteoan zebilen Benoit Pecasteing ikaslea hil zuten. Urte bereko irailean, Monbar hoteleko atentatu ezaguna ere egin zuten GALekoek, eta lau errefuxiatu hil zituzten. Atentatu guztien artetik, gainera, antz larriki zauritu ziren.

40 urte pasatu dira, eta GALEk Baiona Ttipian utzi herexa agerian da oraindik. Bortairurentzat, helburua argia da: «Biziki inportantea da memoria historikoa lantzea mugimendu batentzat. Batetik, belauldi berriei transmititu behar zaie; gure historia ezagutzea funtsezkoa da, ez da etorkizuna eraikitzen ahal iragana jakin gabe. Bestetik, iraganetik hainbat ikasgai ateratzekoak dira, eta etorkizunari aurre egiteko inportantea da horien jakitea». Estatu terrorismoaren aipamena ere egin zuen, bira denboran, eta ondotik, berriz. Oroitarazi zuen Frantziako Estatuaren inplikazioa sekula ez dela argitua izan, eta, hala eta guztiz ere, «gauzak oroitu eta salatu behar» direla. ●



**ATZEKOZ AURRERA**

### Leire Casamajou Elkegarai

BAIONA— 40 urte pasatu dira, baina boza oraino dardarka entzuten zaie noizbehinka gertakariak kontatzen dituztenei. 40 urte pasatu dira, baina negar batzuk isurtzen dira oraindik. 40 urte pasatu dira GAL Askapenerako Talde Antiterroristak sortu zirenetik, eta, oroitzapenek ilun eta

bortitz diraute. Baionako Mayou zubian emana zuten ordua, 10:00etan, atzo goizean. Baiona Ttipia eta GALen garaia deitu diote egitasmoari: tour politikoa. Beroki lodiak, boneta eta —batzuk— eskularrak jantzirik ere hurbildu ziren goizean; ehunaka jende. Hego Euskal Herritik ere jende antz hurbildu zen; garai horiek bizi izan zituzten Iparraldeko eta Hegoaldeko jendeen historiak erabat lotuak baitira. Frankismo garaia zen, eta Hegoaldeko errefuxiatu antzek leku segurua atzeman zuten Baiona Ttipian, besteak beste. Saldoari dei egin, eta abiatu zen tourra Baiona Tti-

piko karriketan gaindi, Dominika Dagerre eta Jakes Bortairu kontalarien bozen gibeletik.

### «Karrika odoltsuak»

Bourgneuf karrika, Lafitte karrika, Maringo karrika, Patxa plaza, Pannecau karrika, San Andres plaza... Baionan bizi den orok jada entzunak ditu karrika horien izenak; Baiona Ttipia auzo ezaguna baita, lehen bezala orain. Orduan, abertzaleentzako auzo ezinago garrantzitsua izan zen: gazte mugimendu politikoen habia, Gau Eskolaren etxea, hamaika egunkari, astekari eta aldizkarirena ere bai, besteak beste. Baina, ga-

raiak garai, «karrika odoltsuak» ere izan ziren. Orotara, bederatzi atentatu kontatzen dira Baiona Ttipian, GALen eskutik.



**«Gure historia ezagutzea funtsezkoa da; ez da etorkizunik eraikitzen ahal iragana jakin gabe»**

### JAKES BORTAIRU

Tourraren gidaria